

# HITZ-ELKARKETA/1

**LEF**  
BATZORDEAREN LANAK

**EUSKALTZAINDIA**












HITZ-ELKARKETA/1

LEF BATZORDEAREN LANAK

EUSKALTZAINDIA  
1987



BELOKE



PLENTZIA

● EUSKALTZAINDIA  
Arbieto, 3 - 48008-BILBO

Azala: Jantxu Lejarraga

Legezko gordailua: BI-953-1987

PRAKOR, Moldiztegia  
Muelle de Olabeaga, 21  
48013-BILBO

HITZ-ELKARKETA/1

LEF  
BATZORDEAREN LANAK

EUSKALTZAINDIA  
1987





## AURKIBIDEA

EUSKALTZAINBURUAREN SARRERA-HITZAK .....	9
LEXIKOLOGI ERIZPIDEEN FINKAPENERAKO BATZORDEA .....	13

### LEXIKOLOGI ERIZPIDEAK FINKATZEKO IV. JARDUNALDIA

HITZ-ELKARKETARI BURUZKO 1. EKINALDIAREN AURKEZPENA .....	17
HITZ-ELKARKETA LANTZEKO ERIZPIDEAK .....	19
Sarrera .....	21
I. Terminologia .....	21
II. Muga-arazoak .....	23
III. Definizioak .....	25
IV. Lan-prozedura .....	30
HITZ ELKARTUEN SAILKAPEN-SAIOA .....	31
Sarrera .....	33
I. Aditz-elkarteak .....	37
II. Hitz-elkarte sintetikoak .....	43
III. Asmo-elkarteak .....	53
IV. Izakera-elkarteak .....	55
V. <b>Ezkonberri</b> elkarteak .....	57
VI. Bahuvrihi elkarteak .....	59
VII. <b>Lotsagabe, lo-falta</b> elkarteak .....	63
VIII. <b>Eguzki-lore</b> : menpekotasunezko izen-elkarketa .....	65
IX. Atributu edo koordinaziozko elkarteak .....	77
X. Aposizioak .....	79
XI. <b>Jarleku</b> elkarte-mota .....	83
XII. <b>Erdiase</b> elkarte-mota .....	85
XIII. Bikoiztapenak .....	89
XIV. Dvandva .....	93
XV. Sinbolismo fonetikoz eta hots-uztarduraz sorturiko hitz elkartuak .....	97
XVI. <b>Astaputz</b> elkarte-mota .....	99
XVII. <b>Peru Abarka</b> elkarte-mota .....	101
XVIII. Hitz-andana ihartuak .....	103
Sailkapen-saio osatuaren laburbilduma .....	105

LEXIKOLOGI ERIZPIDEAK FINKATZEKO V. JARDUNALDIA

HITZ-ELKARKETARI BURUZKO 2. EKINALDIAREN AURKEZPENA .....	113
XIII. BIKOIZTAPENAK .....	115
Bikoiztapenezko eraikuntzen sailkapena .....	117
Erdal erabideekiko ahaidetasuna .....	118
XIII.1. Amredita-elkarteak .....	119
XIII.1.1. Sailkapena .....	119
XIII.1.2. Amreditak, koordinazio- ala subordinazio-elkarte? .....	121
XIII.1.3. Semantikazko zertzeladak .....	123
XIII.1.4. Gramatikazko izaera .....	126
XIII.1.5. Berrelkarketa edo garapena .....	127
XIII.1.6. Hitz-junturako hots-aldaketak .....	127
XIII.1.7. Emankortasuna .....	128
XIII.1.8. Idazkera .....	128
XIII.2. Indargarriak .....	130
XIII.2.1. Bikoiztapen indargarriak, hitz elkartu? .....	130
XIII.2.2. Sailkapena .....	132
XIII.2.3. Indargarriak, koordinazio-elkarte? .....	137
XIII.2.4. Semantikazko zertzeladak .....	138
XIII.2.5. Gramatikazko izaera .....	142
XIII.2.6. Berrelkarketa edo garapena .....	145
XIII.2.7. Emankortasuna .....	146
XIII.2.8. Hitz-junturako hots-aldaketak .....	147
XIII.2.9. Idazkera .....	147
XIV. DVANDVA-ELKARTEAK .....	149
Dvandva-hitzen sailkapena .....	151
Erdal erabideekiko ahaidetasuna .....	151
XIV.1. Izen-dvandvak .....	153
XIV.1.1. Ezaugarri nagusiak .....	156
XIV.1.2. Berrelkarketa edo garapena .....	163
XIV.1.3. Hitz-junturako hots-aldaketak .....	164
XIV.1.4. Emankortasuna .....	165
XIV.1.5. Idazkera .....	166
XIV.1.6. Osagaien hurrenkera .....	166
XIV.2. Adjetibo-dvandvak .....	167
XIV.2.1. Ezaugarri nagusiak .....	167
XIV.2.2. Berrelkarketa edo garapena .....	169
XIV.2.3. Hitz-junturako hots-aldaketak .....	170
XIV.2.4. Emankortasuna .....	170
XIV.2.5. Idazkera .....	171
XIV.2.6. Osagaien hurrenkera .....	171
XIV.3. Adizlagun- eta aditzondo-dvandvak .....	171
XIV.3.1. Ezaugarri nagusiak .....	171
XIV.4. Adizki-dvandvak .....	172
XIV.4.1. Ezaugarri nagusiak .....	173
XIV.5. Zenbatzaile-dvandvak .....	174
XIV.5.1. Ezaugarri nagusiak .....	174
XIV.6. Galdekari-dvandvak .....	175
XV. SINBOLISMO FONETIKOZ ETA HOTS-UZTARDURAZ SORTURIKO HITZARTEAK ....	177
Sarrera .....	179
Sailkapena .....	179
XV.1. Hots-errepikak .....	180
XV.1.1. Ezaugarri nagusiak .....	180
XV.1.2. Berrelkarketa .....	182
XV.1.3. Junturako hots-aldaketak .....	182

XV.1.4. Emankortasuna .....	183
XV.1.5. Idazkera .....	183
XV.2. Ablaut-taldeak .....	184
XV.2.1. Ezaugarri nagusiak .....	185
XV.2.2. Berrelkarketa edo garapena .....	188
XV.2.3. Junturako hots-aldaketak .....	188
XV.2.4. Emankortasuna .....	189
XV.2.5. Idazkera .....	189
XV.2.6. Sasi-uztardurak .....	190
XV.3. Errima-bikoteak .....	190
XV.3.1. Ezaugarri nagusiak .....	191
XV.3.2. Berrelkarketa edo garapena .....	195
XV.3.3. Junturako hots-aldaketa .....	196
XV.3.4. Emankortasuna .....	196
XV.3.5. Idazkera .....	197
XV.3.6. Beste zenbait ohar .....	197
<b>XVI. ASTAPUTZ MODUKO HITZ-ELKARTEAK .....</b>	<b>199</b>
XVI.1. Ezaugarri nagusiak .....	203
XVI.2. Berrelkarketa edo garapena .....	205
XVI.3. Hitz-junturako hots-aldaketak .....	205
XVI.4. Emankortasuna .....	206
XVI.5. Idazkera .....	206
<b>XVII. PERU ABARKA ELKARTE-MOTA .....</b>	<b>209</b>
XVII.1. Ezaugarri nagusiak .....	213
XVII.2. Berrelkarketa edo garapena .....	214
XVII.3. Hitz-junturako hots-aldaketak .....	215
XVII.4. Emankortasuna .....	215
XVII.5. Idazkera .....	215

## ADIBIDETEGIA

SARRERA .....	219
BIKOIZTAPENAK .....	225
1. Amreditak .....	227
2. Idargarriak .....	251
DVANDVAK .....	341
1. Izen-dvandvak .....	341
2. Izenondoko adjetibo-dvandvak .....	377
3. Adizlagun- eta aditzondo-dvandvak .....	385
4. Adizki-dvandvak .....	399
5. Zenbatzaile-dvandvak .....	411
6. Galdekari-dvandvak .....	415
SINBOLISMO FONETIKO ETA HOTS-UZTARDURAK .....	417
ASTAPUTZ .....	439
PERU ABARKA .....	445
BIBLIOGRAFIA .....	451



## EUSKALTZAINBURIJAREN SARRERA-HITZAK

### Belokeko Jardunaldian irakurritako aurkezpen-txostenaren laburpena

Oker egiteko beldur handirik gabe esan daiteke, ene ustez, euskara, autonomiaren ondorioz, egoera edo aro berri batean sartu dela. Eta hortik supituki --eta zorionean-- gure mintzairari istilu eta katramila berriak heldu zaizkio. Ofizialtasun-maila eskuratu duen puntutik, euskarari hiztegi-arazo larriak azaldu zaizkio.

Euskaraz tradizionalki erabili izan den hitz-multzo edo ondare hori behar bezainbestekoa zen eta euskaraz adierazten ziren premia eta zereginetarako egoak. Baina orain bat-batean euskarak sarrera izan du administrazioan, irakaskuntzan, komunikabideetan; gizartea bera neurri handi batean hiritartu egin da eta mende berriko kultur giroan bizi da. Orduan ez da mirakuilu euskarak hitz-eskasia handi batekin topo egin badu.

Itsaso neurgea, ikaragarri zabala dugu hemen begien aurrean.

Zein da Euskaltzaindiaren egitekoa arazo honetan? Euskaltzaindiak ez du uste gaur behar diren hitz guztiak sortzea berari dagokionik edo hainbeste alorretako izenak euskaraz nola esan behar diren berak dekretuz eta bana-banaka erabaki dezakeenik. Akademiak badaki berak bakarrik ezin dituela inolaz ere eremu larri horiek inguratu. Gainera, horretarako behar liratekeen ezagupen eta jakitateak gure ahalbideen gainetik daude.

Lan hau guztiona da, hots, herri osoarena; eta, edozein modutan ere, bere denbora galdegiten du.

Baina hori esan eta, honako hau ere gaineratu behar dela uste dut: Euskaltzaindiak baduela hemen zeregin bat, bere-berea duena, hots, erizpideak finkatu eta nolazpait batu, obra handi hau batasun baten barnean egin dadin. Bestela, arau gidari batzuen faltaz, nahaspila ikaragarria sor daiteke, eta hori euskararentzat kaltegarri eta are hiltzaile ere gerta daiteke. Pentsatu besterik ez dago zer izango litzatekeen gauza bat bera izendatzeko zortzi-hamar hitzek kurritzen badute edo, hitzak berberak izanik ere, idazkera eta forma desberdinetan idatziko balira.

Hau da, bada, kontua: hitz berrien premian dagoela egun euskara. Eta behar dituen hitzok nondik eta nola izango ditu? Horretarako hiru bide aitortzen

dizkiote gure gramatikalariek euskarari: Lehena, hitzak mailegatu, esan nahi baita, kanpotik etxeratu. Bigarrena, hitz-elkarketa edo konposizioaren bidez hitz berriak sortu. Hirugarrena, eratorbide edo deribazioaren bidez --aurrizki eta atzizki bidez, alegia-- hitz berriak eratu. Laugarren bat ere oraindik aipa daiteke: semantikaren alorrean hitzaren adiera batetik beste adiera berri batera luzapen bat edo lerradura edo irristadura egitea. Ez dut uste euskarari ate hauetarik batño ere hertsu behar zaionik. Noiz baliatu bata eta noiz bestea kasu konkretuetan, hori ezin daiteke alde aurretik erabaki. Gure plangintzan laugarren bidea, semantikarena, oraingoz kanpoan uzten dugu, baina ez galerazten dugulako, noski.

Azken urteotan Euskaltzaindia aurrenengo bidez arduratu izan da, eta ataraberri ditu arau edo erabaki batzu mailegatuko diren hitz horien itxura, hasiera, bukaera eta ortografia esleituz. Ikus Maileguzko hitz berriei buruz Euskaltzaindiaren Erabakiak, 1986. Erabaki horiek prestakuntza-garai bat izan zuten; hots, bi Jardunaldi egin ziren, txostenak aginduz, eztabaidatuz, eta elkar hizketa eginez, gaia bera aztertzeke eta eritziak ahalaz hurbiltzeko.

1985eko martxoan Lekarotzen Barne-Jardunaldiak egin ziren, eta han, Euskaltzaindiaren eskariz, Mikel Zalbidek hiztegitzinta arloko lan-plangintza orokor bat eskaini zuen. Eta maiatzeko 30ean Bilbon egindako batzarrean lan-plangintza hura bera, baina xehekiago, azaltzen digu berriz ere Zalbidek. Donostian egindako urriko batzarrean, berriz, Miren Azkaratek, Euskaltzaindiaren eskariz, txostena ekarri zuen: "Euskal konposizioaren inguruan". Abenduko batzarrean ere, eta Euskaltzaindiaren eskariz, Miren Azkarate eta Pello Salabururen artean egindako txostena irakurri zen (berriz ere konposizioaren inguruan).

Aurre-lan guzti horiek kontutan hartuz, 1986ko urtarrilean Bilbon egindako batzarrean M. Azkarate eta M. Zalbidek urte honetarako ekintza-plana aurkezten dute, hitz-elkarketa edo konposizioaren gai hau proposatuz. Plan honi lehen-onarpena urtarrilean bertan ematen zaio. Eta otsaileko batzarrean, Donostian, birrespena eman eta lantaldea aukeratzen da.

Sail ongi mugatu eta berri-berria du lantaldeak aztergaitzat: hitz-elkarketa edo konposizioa, lehenago maileguena izan genuen bezala.

Galde daiteke agian ea hitz-elkarketa eta eratorbidea ez ote diren azpi-azpian, erro-erroan eta funtsean gauza bat bera, eta ea ez ote litzatekeen hobe biak batera aztertzea. Baina, alde batetik, hitz-elkarketa eta eratorbidearen arteko mugak aski garbi daudela uste dut, eta, bestetik, dena batera aztertu

nahiko bagenu, zabalaren zabalaz inguratzen zaila den itsasoan ibiliko ginateke. Hobe dugu, beraz, epeka eta zatika joatea. Horrela, gainera, hitz-elkarketari zor zaion bezalako garrantzia, astia eta denbora eskaintzeko parada izango dugu. Bestela, dena batera hartuz alegia, nekez izango genukeena.

Gaur, agian, euskararen bi baliakizun hauek atrofia baten mehatxupean aurkitzen dira. Askori gaur, euskara pixka bat kanpotik ezagutuarren, beronen etxebarnean bizi ez direlako edo etxearen giltzaz jabetu ez direlako, baliakizun horietara jotzeko sena edo erosotasuna falta zaie. Orduan zer gertatzen da? Ia beti maileguetara jotzen dela. Eta Euskaltzaindiak maileguen bide hau hertsigabe, noski, beste biak ere aitzinatu eta bultzatu nahi ditu. Baina horretarako bideok zer-nolakoak diren, zer-nolako legeak dituzten etab. arakatu behar da.

Eta bego hau garbi: lantalde honen helburua edo xedea ez da erabakiak hartzea, gaia bera istudiatzea eta sakontzea baizik. Beste hitzez esanik, gaia heltasunera etor dadin laguntzea eta bere egunean aurre-asmu batzu Euskaltzaindiari eskaintzea; honek ikusiko du gero zer egin. Euskaltzaindiak, alegia, bere egunean, hala baderitzo, batzarrean erabakiak hartuko ditu.

L. Villasante





## LEXIKOLOGI ERIZPIDEEN FINKAPENERAKO BATZORDEA

Gaur kaleratzen dugun liburuska hau, Lexikologi Erizpideen Finkapenerako Batzordeak 1986. urtean zehar burututako lanaren ondorio eta emaitza da. Hemen-dik aurrera LEF Batzordea deituko duguna, 1986ko udaberrian sortu zen, urte ho-rretako apirilean lehen bilera eginez. Batzorde honen zergatia eta nondik nora-koa azaltzekotan, beste Batzorde zabalago baten barnean kokatzen dela esan be-har: 1981ean sortu zen Euskaltzaindiaren Hiztegegintza Batzordearen atal da, hain zuzen ere. Hiztegi-lanak berarekin dakartzan alderdi desberdinak direla eta, Batzorde nagusi horrek beste zenbait Batzorderen sorketari bide eman zion. Horrela, lehen pauso gisa, 1982an Maileguzko Hitzen Batzordea sortu zen, 1985 arte (hots, hiru urtetan zehar) mailegu edo prestamoak euskal hitzen altxorreen jaso eta irensteak sortzen dituen arazoak bideratzen saiatu dena. Maileguzko Hitzen Batzorde honen lana amaitu ondoren sortu da LEF Batzordea. Zein da bero-nen helburua? Euskara hitz berriez hornitzaerakoan, kanpotikako hitzen ondoan, euskarak berak dituen baliabideak ere aukera ditzakegu ezinbesteko zaigun termi-nologia berria eskuratzeko. Baliabide hauek (nagusiki hitz-elkarketa eta erator-pena), ordea, ez ditugu oraindik euskaraz aski aztertuak. Hauxe da, beraz, LEF Batzordearen egitekoa: hitz berriak eratzeko euskal bideak aztertu eta jorra-tzea. Eta bi baliabide nagusi aipatu ditugunez, bi pausotan burutu asmo du LEF Batzordeak bere lana, hitz-elkarketa delarik lehen aztergaia, bizpahiru landuko duena. Beronekiko azterketak amaitu ondoren ekingo zaio bigarren atalari, hots, eratorpen edo deribazioaren azterketari.

Sortu zenean proposatutako lan-proiektuari eutsiz, LEF Batzordeak bi osoko bilkura edo bi Jardunaldi egin ditu 1986. urtean zehar. Lehen Jardunaldiak Belo-ken izan ziren 1986ko Ekainaren 26 eta 27an. Aztergai nagusia, hitz-elkarketaren behin-behineko sailkapen orokorra onartzea izan zen, hau da, ondorengo bi-hiru urtetan aztertu beharko diren hitz elkartu mota desberdinen behin-behineko fin-kapena, urtero-urtero lan-programa konkretu bat ezartzea zilegi egingo duena. Mikel Zalbidek aurkezturiko "Hitz Elkartuen Sailkapena" txostena izan zen, be-raz, eztabaidagai garrantzitsuena. Talde osoaren eritzi eta oharrak jaso ondoren onartu zuen LEF Batzordeak hitz elkartuen behin-behineko sailkapen hau. Eta hari honi jarraiki, 1986ko bigarren Jardunaldietan, bost hitz elkartu mota (Bikoizta-penak, Dvandvak, Hots-uztardurak, Astaputz mota eta Peru Abarka mota) jorratzea erabaki zen. (Bidenabar esan dezagun behin-behineko lehen sailkapen honetan, terminologi auzietan gehiegi ez murgiltzearren, hitz elkartu mota asko izenda-tzeko mota horretako hitz elkartu bat aukeratu dela: horrela ditugu Astaputz mota, Peru Abarka mota, Eguzki-lore mota e.a.).

1986ko bigarren Jardunaldi hauek, zerbait atzeraturik, 1987ko Urtarrilaren 30 eta 31n egin ziren Plentzian, Bizkaian. Bertan, lehen Jardunaldietan erabaki bezala, liburuska honetan doazen hitz elkartu motez aritu zen Batzordea. Mikel Zalbidek mota bakoitzaz aurkezturiko txostenak eztabaidatu, eta han jasotako oharrez zuzendu eta horniturik prestatu dira gaur plazaratzen ditugun lanok. Amaieran, 1987ko lan-egitasmoa onartzeaz gain, liburuska honi bide eman dion erabakia ere hartu zen: Lexikologi Erizpideen Finkapenerako Batzordeak hitz-eraketaren alderdi desberdinak osorik landu orduko urteak beharko dituzenez, eta gai hauetaz dagoen bibliografiaren eskasia kontutan izanik, Batzorde honek urtero landuko dituen gaiak eta berauek, ondorioz, sorteraziko dituzten txostenak argitaratzea erabaki zen.

Hona, beraz, liburuska honen edukina: hasieran esan bezala, 1986. urtean zehar, hitz elkartuen azterketaren barnean, LEF Batzordeak burutu duen lana da gaurkoan eskaintzen dena. Txostenez gain, txosten hauek idatzi ahal izateko ezinbesteko oinarri izan diren adibideen zerrenda ere eskaintzen dugu, 100 libururitik gora partez edo osoz hustu edo biluztu direlarik eskuartean duzuen adibidetegia osatzeko. Hitzak testuinguru jakin batean erabiltzen direnez, eta beren balio osoa hor hartzen dutenez, ez dituzue hemen hitz elkartu soilak aurkituko: bakoitzak darama ondoan zein autorek zein liburu eta orrialdetan erabili duen eta zein inguramendutan ezarri duen. Adibideak Mikel Zalbidek bilduak dira, eta UZEIk mekanizatuak; dauden-daudenean argitaratzeko bideak ipini ditu, azkenik, Euskaltzaindiak.

Lan guzti hau, behin-behinekoa izan arren, LEF Batzordeak hitz-eraketa erabat arakatu arte ezingo bait da ikuspegi orokor zehatz eta erabatekorik eman, lagungarri izango zaizuelako esperantzak bultzatu gaitu geure lana jendartera zabaltzera. Era berean, hitz-eraketaren munduaz arduraturik daudenen ohar eta iritziek ere gure azterketak osatzen lagunduko digutelakoan gaude.

Azkenik, legezkoa den bezala, bere lana gauzatzen lagundu diotenei eskerrak eman nahi dizkie LEF Batzordeak: Belokeko Abat den aita Iratzederri eta Bizkaiko Diputazioari, Jardunaldiak egiteko egoitza eskaini zutelako.

Donostia, 1987ko apirilaren hamabia

LEXIKOLOGI ERIZPIDEAK FINKATZEKO IV. JARDUNALDIA  
LEF2: HITZ-ERAKETAZKO BALIABIDE DESBERDINEN AZALPENA

Hitz-elkarketari buruzko 1. ekinaldia

Beloke, 1986.06.26-27

1. txostena: Hitz-elkarketa lantzeko erizpideak
2. txostena: Hitz elkartuen sailkapen-saioa



SARRERA

Belokeko jardunaldi honen bidez eman zion hasiera, Euskaltzaindiaren LEF Batzordeak, hitz-eraketazko baliabide desberdinen azalpenari. Zuzen-zuzenean elkarte-mota desberdinak arakatzen hasi aurretik, hitz-elkarketaren inguruko zenbait arazo nagusi bere luze-zabalean aztertzea hobe zela uste izan zen; eta, ondorioz, aurrelan horiek izan zituen jardunaldiko aztergai nagusi. Bi txostene-tan aurkeztu ziren, horretarako, luze-zabaleko kezka eta auzigaiak. Izenburuetatik antzeman daitekeenez, erizpide orokorren lanketaz dihardu lehenak, eta bigarrenak sailkapen-saio bat eskaintzen du. Hurrengo jardunaldietan batzordekide eta txostengileok, nahas-mahas eta nor geure erara ibiltzearen ondorioz, alferlaneko errepikan edota amaigabeko eztabaidan eror ez gintezen gutxienezko bizkarrezur bat eman nahi izan zitzaion aurrelan honen bidez hitz-elkarketaren azter-eremu osoari.

Puntuz puntuko azterketaren ondorioz espero izatekoa da (eta Plentziako jardunaldietan, jadanik, gertatu ere hala gertatu da) lehen bi txostenotako hainbat erizpide partez edo osoz aldatu edo itzulipurdikatzea. Horrek ez dio, halere, prestatzaileen ustez, aurrelan honi bere balio-indarra ezabatzen: laguntza-tresna batek betea bait du bere xedea, hainbat puntu eta puntutan hobekizun gertaturik ere, begiz jotako langintzarako bide-argitzaile eta lagungarri gertatzen bada.



HITZ-ELKARKETA LANTZEKO ERIZPIDEAK



Beloken aurkeztutako 1. txostena da, funtsean eta oinarritz, ondoren eskaintzen dena. Lan-prozeduraz diharduen atala (30. orr.) izan ezik, zeuden-zeudenean mantendu dira ahaleginean gainerako aipamen, adibide eta abarrekoak.

SARRERA

Lexikologi Erizpideak Finkatzeko taldeak hitzartua duen eginbeharra ganoraz eta probetxuz beteko bada, garrantzi bizikoa da xede-helburuak ongi go-goan izan ditzagun eta, ondorioz, tartean behin baino gehiagotan izango ditugun bidagurutzeetan gure elkarlanaren nondik norakoa galdu ez dezagun. Etekin eskasa aterako bait genuke, guztiok, amaiera gabeko estabaida antzu-elkorretan suntsituz.

Arrisku horri itzuri egiten ez da, noski, eginkizun erosoak. Zail da, alegia, begiz joa dugun helburura onez iristeko ibili beharreko bide xuxena, bere xehetasunean, alde aurretik markatzea.

Bada, halaz guztiz ere, oraindainen bideak erakutsitakoak aintzakotzat hartu nahi baditugu ahaztu edo gutxietsi behar ez genukeen oinarritzko hainbat erizpide.

Erizpide horien azalpen labur bat eskaini nahi da txosten honetan.

I. TERMINOLOGIA

Bestetan ere sarriegi behaztopa-harri gertatu ohi da, hizkuntzaren alorreko auzi-garbiketa bati ekiterakoan, terminologi kontua. Inon baino argiago ageri da agian, traba-ahuldade hori, hitz elkartuen sailean: alde handiak daude, izan ere, hitz elkartuen gertaerak oro har, eta elkarte-mota desberdinak bereziki, azaltzerakoan batzuk eta besteok (etxeko zein kanpoko, oraingo nahiz lehengo) erabilitako izendapen-modu desberdinen artean.

Ez da noski kasualitate hutsa gertaera berberari hain izendapen-molde desberdin, eta sarritan kontrajarriak, egozteak. Izan ere ez da, azken batez, terminologi auzi hutsa: axalgaineko forma-desberdintasun horien azpian mami-educinei ere zuzen-zuzenean datxezkien ikusmolde bereziak daude, ondo erreparatzen bada, erabakizun eta aztergai. Terminologiazko eztabaida eta kontu-garbitzea ez litzateke beraz, alde horretatik, jakintsu-planta egin nahiaren jolas-kontua: merezi luke alor hori gure artean oraindaino egin den baino sakonago aztertzea, eta ez litzateke hain harrigarria ere izango azterlan horren ondorioz hizkuntzaren funtzionamolde osoari dagokion hainbat zertzelada gaur egun baino artezago ulertu ahal izatea.

Ez dirudi, halaz ere, lantalde honek ezer asko aurreratuko lukeenik terminologiazko eztabaidetan sartuz: euskal hitz-elkarketari buruzko ikerlana azken hamarkadotan zein baztertua egon den kontuan izanik, beldur izatekoa da izendapen-aukera hutsa behar lukeenak eztabaida luze-antzueta amaituko lukeela, Uhlenbeck eta Azkueren idazlanen ondorioz gure artean gailendu izan diren azalpen-molde desberdinak behin eta berriro errepikatuz. Argitasun gutxi aterako genuke seguru asko ahalegin horretatik; eta, aitzitik, beldur izatekoa da Euskaltzaindiak Hiztegitigintza Batzordeari emana dion mandatua bete gabe uzteko arriskua areagotu baizik ez genukeela egingo. Hitz gutxitan esateko, mesede baino kalte gehiago ikusten zaio, elkarte-mota desberdinak direla eta, behin-betiko izendapen-sistema sendoaren bila abiatzeari.

Hobe izango dugu, guzti horregatik, axaleko eritzi-desberdintasun horiek alde batera uzten saiatu eta oinarrizko auzigaiei aurrez aurre eta estalkirik gabe heltzea.

Nolabait izendatu egin beharko dira, halaz ere, hitz-elkarte desberdinak. Taxonomia bat eskaintzen den neurri berean, alegia, bertako elementu desberdinak bataiatu ere egin beharko dira. Eta horrek, nahi eta nahi ez, nolabaiteko "terminologia" eskatzen ere du.

Oinarrizko erizpide biok ahalik era samurrenean uztartu asmoz, joan den mendeko hainbat gramatikanik sanskritoarekin egindakoaren antzeko zerbait egitea proposatzen da hemen ere, lantaldearen jardun zuzenerako: eguzki-lore, ulerterraz, bizinahi, begi-mingarri, zikin-usain, okin, ezkonberri eta jarleku izendapenez adieraziko dira maiz asko ondoko txostenean, hobe ustez, kasuan kasuko hitz-elkarte mota desberdinak. Nahi duenak jakingo du gero, gogoak hala ematen badio, elkarte-mota bakoitzaribere gustoko izen-abizenak eransten.

Izendapen zabalagoetan, gramatikari gehienek aski onartuak dituztenean, buruhauste handirik gabe emango dira dena dela, azalpen-eredu hauezag gainera, terminologia klasikoak: *dvandva*, sintetikoak, etab.

## II. MUGA-ARAZOAK

Ez da inoiz gauza erraza izan hitz-elkarketa non hasten den eta non bukatzen jakitea: ez euskararen eremuan eta ez, egia esan, atzerri-hizkuntzen kasuan ere. Besteren ilunak ez digu, dena dela, gure begi-bista argitzen ezer

askorik lagunduko; eta hobe izango dugu, ondorioz, euskal hitz-elkarketaren alorreko muga-arazoak ahalik ongien garbitzen saiatu.

Euskarari dagokionez, bi dira, besteak beste, mugarri finko baino sarrriago istilu-iturri gertatu ohi diren puntuak: hitz elkartuen eta eratorrien arteko muga, alde batetik; eta, bestetik, hitz-elkarketaren eta sintaxiaren artekoa. Banan bana aztertuko dira ondoren, halako xehetasuan batez, muga-arazo biok eta, talde-lanaren on-beharrez, ustez jokamolde egokiena proposatuko.

## II.1. Hitz elkartuen eta eratorrien arteko muga

Bukaeran, -dun, -gin/-gile, -zain/-zale, -bide, -aldi, -ola, -tegi, ... duten eraikuntzak hitz elkartuak dira, ala eratorriak?

Kasuan kasuko morfemaren autonomia lexikala, normalean hitz-elkarketa eratorpenetik bereizteko erabili ohi den erizpidea, ez da halakoetan nahi bezain garbi eta erabakitzaile gertatzen. Hortik dator, hain zuzen, euskal gramatikariaren arteko desadostasuna: batentzat eratorpen hutsa dena hitz-elkarketa argi-argia da, goiko erizpidearen neurri-patroia nork bere erara manejatzearen ondorioz, bestearentzat. Eta ez dira falta, azkenik, neupide horren ahulaz jabeturik edo, elementu berbera bai hitz-elkarketaren atalean eta bai eratorpenarenean ere tratatzen dutenak.

Ez dirudi, egia esan, auzi honetan ere LEF taldeak denbora gehiegi galdu behar duenik. Lehen ekitaldi honetan hitz elkartuak bezala hurrengo batean eratorriak lantzekoak dituenek, hobe izango da aldi-aldi datozkeen mugazailtasunak kasuan kasuko egokieraren arabera gainditzea. Beti izango da gero, hitz elkartuen zein eratorrien alorrak osorik landu ondoren, zein elementu zein lekutan kokatu erabakitzeko aukera.

Erizpide horretan oinarriturik, eta lantaldeak hala erabakiko balu puntu jakin bat edo beste aztergai-zerrendatik ezabatzea beti ere posible dela kontuan izanik, ahalik sailkapen zabalena aurkeztea erabaki da: era horretan, hainbatentzat eratorpenaren alorrean hobe legokeen (edota, agian, ezinbestean han egon behar lukeen) zenbait puntu hitz-elkarketaren sailkapen-zerrendan sartu da. Lantalde osoak du noski hitza, aukera hori egokia ala aldatu beharrekoa den erabakitzeko.

Bidagurutzera iritsitakoan, bide bat ala beste aukeratu beharra izaten da, eta bietako bat aukeratu du, hoberena delakoan, talde eragileak: dudazko kasuak, normalean, hitz-elkarketaren alorrean lantzekoa. Horren ondorioz, -dun, -zain, -bide edo -aldi modukoak hemen aztertzea pentsatua dago, beraien berezitasunak argi azalduz noski, eratorpenaren alorrean noiz aztertuko zain egon gabe. Mementuko komenentziaz gainera, arrazoi sendorik badagoela uste da, nolahi ere, hainbat kasutan bederen egin den aukera babesteko. Besterik uste izango balitz, garaiz gaude orain, dena dela, atzera egin eta beste bidetik jotzeko.

## II.2. Hitz-elkarketaren eta sintaxiaren arteko muga

Norbaitek esana du, orain baino lehenago, hitz-elkarketa mikro-sintaxi bat dela<sup>1</sup>: "es preciso ... considerar los compuestos no ya como especies morfológicas sino como organizaciones sintácticas". Erlazio-atzizkirik gabeko hitz-joskera, alegia, hitz barneko arazoa baino gehiago hitz artekoa ere badela: artzainaren zakurra edo oso txikia sintaxi kontua izatea eta, aitzitik, erbi-zakurra edo txiki-txikia morfologia hutsa ez da, izan ere, begien bistako egia gotorra. Badaude, jakina, batzuen eta besteen arteko bereizkuntza nabarmenak, baina ez dira parekotasun ugariak ere falta.

Urrutira, oso urrutira ausaz, ginderamazke honelako muga-eztabaida batek. Aurreko puntuan bezala, hemen ere nahiago izan da ustez hitz-elkarketaren barnean azter daitezkeen kasuak, handi zein txiki, aztergai-zerrendara biltzea. Ibiliak erakutsiko du, honetan ere, erabaki hori baliozkoa den ala, arrazoi batetatik edo bestetatik, bizkar gainean hartua dugun otarrea besteren zuhaiztiko sagar-udareez arintzea komeni den.

Sailkapen-zerrenda puntuz puntu aztertzerakoan ikusi ahal izango da kasuan kasuko hautapen-lanaren on-gaitza, eta orduan erabaki dezakegu auzigai horiek bere horretan utzi ala baztertu.

Diogun, lehen abisu moduan, sintaxiarekiko muga-arazo larrienak ondoko puntuotan gertatuko bide direla:

---

1: BENVENISTE, E.: **Problèmes de linguistique générale**, Ed. Gallimard, Paris, 1966. (Gaztelaniazko itzulpena, Siglo XXI editores, 1971).

- aditz-elkarketak
- ekintza-elkarte sintetikoak
- dvandva
- bikoiztapenak
- aposizioak

### III. DEFINIZIOAK

Buruhauste bat baino gehiago ekarri ohi dute, maiz asko, hitz-elkarretaren alorreko definizioek. Hitz elkartu bat zer denaz beraz, urrutirago gabe, aski azalpen desberdinak eman izan dira; eta horietariko asko, ondotxo dakikezuenez, ez dira ezkontzen errazak.

Kontu honetan ere ez da, ahal zen neurrian, sakoneko eztabaida teorikoetan sartu nahi izan: ez garrantzitsuak ez direlako, Euskaltzaindiak lantalde honi egotzia dion eginbehar nagusia besterik delako baizik.

Eztabaida teorikoetan sartu nahi ez izanak ez du, ordea, esan nahi, beste puntaraino joatea komeni denik: itsu-itsuan edo iritzira, gabiltzan bidearen nondik norako nagusiaren berri izan gabe, zail da horrelako langintza batean ari izatea. Hori dela eta, oinarri-oinarrizko erizpide batzutan bederen halako batasun batez jokatu izan da, batez ere euskal hitz elkartuen taxonomi lana egiterakoan; eta horrek zenbait definizio ditu, agerian ez bada gordean, gidari. Hitzez hitz azalduak ez egoteak ez bait du esan nahi, noski, golkoan ez daramatzanik, ez eta eragin gabeak direnik ere.

Oinarri-oinarrizko erizpide horietariko batzuk, hitz gutxitan esanik, honako hauek dira:

- hedabide sintagmatiko biziak eta hitz-andana ihartuen arteko funtsezko bereizkuntza.
- sinbolismo fonetiko nahiz hots-uztarduraz eraturiko hitz-elkarteen aparteko izaera.

#### III.1. Hedabide sintagmatiko biziak eta hitz-andana ihartuak

Hitz-elkarketaren alorrean garbi berezi nahi izan da batetik hedabide sintagmatiko biziak eta bestetik hitz-andana ihartuen artean. Gauza bat da,

alegia, hizkuntzak bere-berea duen aukera bizia, hitz bi elkarri lotuz eraikuntza lexikal berri bat sortzekoa (turista-gidari, futbol-lehiaketa, bulego-arduradun, bikinigile, idazmakina,...); eta beste bat, oso bestea gero, hitz-andana ihartuen izakera (udaberri, ilunabar, usapal, herriko etxe, Josafateko zelaia, Aita Santu). Horrela:

a) lehenengoa etengabeko iturria da, nornahik eta noiznahi erabil deza-keena, "hitz" berri bat sortzeko. Nornahi-noiznahi horiek matizatu beharrekoak dira, noski, gaur eguneko euskaldungoaren (batez ere 30 urtetik beherakoen) hizkuntz gaitasuna noraino erasan eta zarpaildua dagoen kontuan izanik sarriegitan gertatzen baita hizkuntzak menderik mende hain bereak izan dituen hedabide sintagmatiko horiezaz hainbatek baliatzen ez jakitea. Halaz guztiz ere, ez dago ukatzerik euskarak gaur egun ere aukera bizia eskaintzen diola euskaldun trebea-ri erlazio-morfemarik (deklinabide-atzizkirik) gabeko sintagma lexikal berriak sortzeko. Ez sortzeko bakarrik, jakina, bere solaskideek hark esandakoa zuzen jasotzeko ere baizik: Kontxitarren senargaia butano-saltzailea dela kontatzen badu Urliak, edo Sandiagatik informatika-irakasle dela esaten badigute, ez dugu neke handirik izango eraikuntza sintagmatiko berri horien esanahiaz jabetzeko. Aldameneko bizilagunek okindegia itxi eta bideo-denda zabaldu dutela jakin araz-ten digutenean bezain gutxi, nolana ere. Beste hainbat gramatika-baliabide bezala, iturri agortezina eskaintzen du euskal sintagmatika lexikalak: eta, aski ezaguna denez, iturri horri darion ura, dena ez bada ere askotxo bai ordea, hitz-elkarketazko hedabidea da.

b) hitz-andana ihartuak ere hitz elkartutzat hartu ohi dira sarri. Ez beti, jakina: askok, Azkue buru dela, ez ditu hitz-andana ihartuak benetako hitz elkartutzat hartu izan, delako "elipsi"rik eza dela medio; eta, orainagoko leku-koetara bagatoz, L. Villasantek berak "sasi-elkarte" izenez darabiltza. Dena dela, ez goaz hemen, orain, mende-hasieratik hona puntu horren inguruan izan ditugun eztabaidak berritzen hastera.

Kontua da, hori bai, hitz-andana ihartuak hitz elkartu baldin badira beste zerbaitegatik direla hitz elkartu. Aurreko multzoan ez bezala, hizkuntzak ibiliaren poderioz hitzengan sortzen duen semantikazko higadura eta finkapena da, hitz-andana ihartu gehien kasuan, hitz-elkartearen muin eta eragile. Horrela, mutilzahar, katagorri, Erromako zubi, arkazte edo etxeakoandre elementu lexikalak hitz elkartu izatearen arrazoi nagusia ez dago beraien eraikuntza sin- tagmatikoan (izen + adjetibo nahiz izenlagun + izen segidak ez dira besterik gabe, gramatika aldetik, hitz elkartu iturri), beraien semantikazko izaera bere- zian baizik: mutilzahar bat ez da xuxen-xuxenean mutil zahar bat, katagorri bat

katu gorria ez den bezala; Erromako zubia, ortzadarra, ikusteko ez dago noski Tiber ibaira inguratu beharrik, eta etxe batean bizi daitezkeen andrazko guztiak ez dira, normalean, etxeakoandre; arkaztea ardi gazte bat denik ere, hartaraz gero, inor gutxik izango du gogoan.

Egia da, hitz-andana ihartuen iturri bakarra ez dela semantikazko higadura eta finkapena. Hor daude izan ere, beste gehiagoren artean, honako ihargarri hauek:

- lexikalizazioa: ongi-etorri, nonzerberri, hordago (karta-jokukoa);
- hedabide sintagmatiko zaharkitu edo ohizkanpokoak: hatzamar, Aitagu-rea, Aingeru-goardakoa;
- ebakerazko kontrakzioak edota loturik idazteko ohitura: hiruzpalau, hogeitamaika, katekorratz.

Guzti horiek kontuan izanik ere, bistan dago semantikazko higadura eta finkapena dela hitz-andana ihartu gehien-gehienen eragile eta sorburu.

Higadura edo finkapen hori, ordea, ez dago norbanakoaren esku; hiztun banakoak ezin du, bere kabuz eta gogoak eman orduko, halakorik gauzatu. Katu gorri sintagma biziaren ondoan katagorri andana ihartua egon arren, ezer gutxi balioko lioke inori gaileta hitzetik, esanahi berariazko bat egotziz, gailetagorri forma asmatzeak. Hiztun-talde osoaren (edota, gutxienez, ohizko harreman-sare finko bat osatzen duten hiztunen) etengabeko mintzajardunean oratutako fenomeno izaten da, gehienetan, hitz-andana ihartua; eta, ondorioz, denboraren arian bakarrik antzeman daiteke bere eragina; urte edo mendeetako denboraren arian, ez gauetik goizerako deliberamendu bapatekoan.

Esana bego, beraz, aurrerantzean erabiliko den azterpidean iturri bita-ko urak nahastuz landuko dela, besteak beste, hitz-elkarketa: batetik lexiko-sorkuntzarako hedabide sintagmatiko biziak aztertuko dira eta, bestetik, hitz-andana ihartuak kontuan izango.

Irudi okerra emango litzateke, dena dela, iturri biok guztiz elkarren-gandik bereiz eta bateraezintzat joko balira. Begiurdinen multzoa eta pipa-erretzaileena bi multzo desberdin dira, jakina. Pipa-erretzaile gehienak ez dira, agian, begiurdinak izango. Eta litekeena da, gainera, begiurdin askok piparik ez erretzea. Badira ordea, denok ondo dakigunez, begi urdineko pipa-erretzaileak ere.



Gure kasuan ere antzekoa gertatzen da axalari ez baina muinari bagagozkio. Horrela, esate baterako:

\* hitz-elkarte batzuren iturria, soil-soilik, hedabide sintagmatikoa da: bertsolari-saio, pinu-adar, trumoi-leku, eliz-kanta, erbi-zakur, barau-egun, baratxuri-zopa, hauspo-soinu, ate-mutur edo solomo-zati moduko hitz elkartuek beren hedabide sintagmatikoari zor diote, huts-hutsik edo nagusiki, hitz elkartu izatea. Hor ez da hitz-andana ihartuetako semantikazko higadura edo finkapenik gertatu. Ez, behintzat, hitz-elkarte horien eragile izatera daramakeenik.

\* beste hitz-elkarte batzuren iturria, iturri bakarra, kontrakoa da aitzitik: semantikazko higadura eta finkapenez (edo, horren ordainean, goian aipaturiko beste iharketa-iturrietariko batez) sortutako hitz-andanak dira horiek. Lehen azaldutako mutilzahar, katagorri, etxeoandre eta abarrez gainera horrelakoak ditugu, urrutirago gabe, udaberri, emagaldu, itsas-zabal, hatzamar, basa-mortu, aste santu, satitsu, zorion, bizpahiru, berrogeitamar, Gernikako Arbola edo oilagor moduko elkarteak. Zergatik udaberria hitz elkartu da, eta uda beroa ez; zergatik gizon saiatua ez eta emagaldua bai; zergatik Añorgako semaforoa ez eta Gernikako Arbola bai? Bistan dago bikote hauen kasuan hedabide sintagmatikoak ez duela eraginik, bikote bakoitzean berbera bait da. Semantikazko erasan edo finkapena da, horietan, eraikuntza batzuk hitz-andana ihartu bihurtu dituen eta, honenbestez, hitz elkartu gisa erabiltzera behartzen gaituena.

\* zer esan, ordea, galeper, baserri edo astaputz moduko hitz elkartuez? Zerk bihurtzen ditu hitz elkartu, hedabide sintagmatikoak ala hitz-andana ihartu izateak? Lehenengo bi adibideei dagokienez batak eta besteak, noski, ez batak ala besteak: galeper-a, gari + eper hitz-segidatik datorrenez, mugatzaile gehi mugakizuneko izen-konposizio normal-normala da. Baina baita hitz-andana ihartua ere: hain ihartua ze galeperra ez da, jadanik, inolako eperrik; bestela esanik, garitan dabilizan eperrak ez dira, gaur egun, galeper. Era beretsuan gauza nabaria da, morfologia lexikalaren ikuspegitik, herri mugakizunari aurretik baso (basa-/-) mugatzailea erantsiz osatua dagoela baserri hitza. Semantikazko erasan nahikoa sendoa jasan du, halere, hedabide horrek; eta, ondorioz, hitz-andana ihartua ere bada bete-betean. Hirugarren adibidea, astaputz delakoa, kokatzen zailago izanik ere ez da hain bestelakoa. Esplikazio gisa, zera esan daiteke hor: jatorrizko astaputz-etik (esan dezagun, elkar ulertzeko, astaputz-1-etik) bigarren bat (astaputz-2 alegia) sortu dela, lehen aldaeratik bigarreneerako pasabidea, semantikazko bilakaera nabarmen hori, metaforizazioaren antzeko zerbait izan delarik. Zilegi da, horrenbestez, astaputz-1 forma hedabide sintagmatiko hutsa den bezala astaputz-2, horretaz gainera, hitz-andana ihartu ere badela esatea.

### III.2. Sinbolismo fonetikoz nahiz hots-uztarduraz eraturiko hitz-elkarteen aparteko izaera

Hitzen esanahiari erabat zaputz egingo ez badiogu nekez onartuko dugu, besterik gabe, tirriki-tarraka, nahas-mahas, zurru-murru, edo ttapa-ttapa moduko eraikuntzak hitz elkartuak direnik: tirriki, mahas, murru edo ttapa moduko formak hitzak (hots, elementu lexikal autonomoak) ez badira, izan ere, zer hitz-elkarte sortuko da horietatik?

Hemen ere ez dira gramatikariak, euskaldun zein erdaldun, ahobateko. Euskararen alorrari dagokionez, hitz elkartutzat hartu izan ditu eraikuntza horiek, mende-hasierako iturburuetara itzuliz, Azkuek; ez, ordea, Uhlenbeck-ek<sup>2</sup>.

Eraikuntza hauen motibazio-iturria sinbolismo fonetikoan zein hots-uztarduran oinarritzen denez, eta bertako forma askori benetako morfema izateko bigarren osagaia (esanahia) falta zaiolarik, arrazoi osoa legoke horrelako eraikuntzak hitz-elkarketaz kanpoko beste zerbait direla esateko: hitz-eraketazko sorkariak dirateke guzti horiek, horretan ez dago zalantzarik; baina ez hitz-elkarketa.

LEF taldearen eginbehar praktikoak begien bistatik ez galtzarren, beste bide batetik ekingo da, halere, hemen. Nahiz propio-propio hitz elkartuak izan ez, LEF2 atalaren barnean sartzekoak direnez, hitz-elkarketaren osagarri gisa aztertuko dira hauek ere, unerik egokiena delakoan, elkarte-mota desberdinen jarraian. Inork hartarako erreparatu handiegirik balu, beti legoke, hemen ere, hitz-erabide horiek berariaz landu eta aparte eztabaidatzeko aukera.

---

2: UHLENBECK, C.C.: "Quelques observations sur les noms composés en basque": RIEV, V (1911), 5-9. Berez, azalpen hau ez da guztiz egia: Uhlenbeck-ek euskarazko izen-konposizioaz (eta ez konposizio osoaz) jardun zuen behin eta berriro aipatu ohi den idazlan hartan. Bestelako artikuluetatik badakigu, ordea (ikus, liburu honetan bertan, hots-uztardurez diharduen atala), aintzakotzat hartu zituela beste sorkari hauek ere.

IV. LAN-PROZEDURA

Atzera-aurrera antzuetan ez galtzearren, eta langintza osoari halako batasun bat eman nahirik, ondoko lan-prozedura aurkezten zaio Osoko taldeari, onespenean eske, hitz-elkarketaren alorra lantzeko.

a) sailkapena: hitz-elkarte mota desberdinen banan banako azalpena, adibide egoki eta ugariez hornitua. Ahal bada, erdal hizkuntzetako antzeko adibideez osatua.

b) hitz-elkarte mota bakoitzaren barnean, honako alderdi hauek izango dira kontuan:

- bai osagaien eta bai eraikuntza osoaren kategoria gramatikala
- berrelkarketa
- hitz-junturako hots-aldaketak: morfofonologiako arauak
- emankortasuna
- azentuazio-kontua
- idazkera: loturik idatzi, marraz ala bereiz

Puntuz puntuko ordena honi eusten bazaio, badirudi Euskaltzaindiak lantalde honi egotzi dion eginbeharra bizpahiru urtetan burutu ezinik ez dagoela. Asmo horrekin agertzen da idazki hau, gaurkoan, guztion aurrera.

Esanak beude, honenbestez, urtarrilean emandako hitza bete nahirik esatekoak zirenek. Guztion egitekoa da, orain, okerrak zuzenduz eta hutsuneak beteaz, gaurko egunez abiatzen den langintza bide zuzenetik eramatea.

HITZ ELKARTUEN SAILKAPEN-SAIOA

Beloken aurkeztutako 2. txostena da, nagusiki, ondoren eskaintzen dena. Jardunaldi hartan partaide batzuek eta besteek agertutako erizpideak jaso eta osatzen saiatu da, oraingo idazkuntza hau prestatzerakoan, LEF batzordearen talde eragilea.

SARRERA

Hitz elkartuen alorra, bere luze-zabal osoan hartuta, 18 sail nagusiotan banatu da.

- I. ADITZ-ELKARTEAK: gaitzetsi, su hartu, hitz egin
- II. HITZ-ELKARTE SINTETIKOAK: harri-jasotzaile, diru-bilketa, gerri-makurka
- III. ASMO-ELKARTEAK: handinahi, dirugose, asko-jakin
- IV. IZAERA-ELKARTEAK: ulerterraz, minbera, ase-ezin
- V. EZKONBERRI ELKARTEAK: ezkonberri, beroarin, janzahar
- VI. BAHUVRIHI ELKARTEAK: sudurluze, eskuzabal, hankutsik
- VII. LOTSAGABE ELKARTEA: lotsagabe, hezigabe, lo-falta
- VIII. EGUZKI-LORE ELKARTEA: eguzki-lore, limoi-ur, baratxuri-zopa
- IX. ATRIBUTU EDO KOORDINAZIOZKO ELKARTEAK: giltzarri, neska-lagun, tresna-tramankulu
- X. APOSIZIOAK: Aralar mendia, Andre Madalen, Retegi pelotaria
- XI. JARLEKU ELKARTEA: jarleku, idazmakina, biltoki
- XII. ERDIASE ELKARTEA: erdiase, erdi-itsu, erdi-lotan
- XIII. BIKOIZTAPENAK: etxez-etxe, emeki emeki, zikin-zikin
- XIV. DVANDVA ELKARTEAK: anai-arrebak, frantses-euskaldun, ezker-eskuin
- XV. SINBOLISMO FONETIKO ETA HOTS-UZTARDURAK: marmar, duda-muda, tirriki-tarraka
- XVI. ASTAPUTZ ELKARTEA: astaputz, artabero, oilobusti
- XVII. PERU ABARKA ELKARTEA: Peru Abarka, Marizikin, Arta Manuel
- XVIII. HITZ-ANDANA IHARTUAK: katagorri, Aste Santu, Gernikako Arbola

Ez dira sail guztiok, ez adibide-kopuruz eta ez emankortasunez, maila berekoak. Egokiago gerta daitekeela uste izan da ordea, kasu den-denak bospasei atal nagusitara bildu edo murriztu ordez sail berri gehiago ematea eta, handi zein txiki izan, sail bakoitzaren gora-behera guztiak berariaz aztertzea.

Lanerako, honen ondoren datorren lanerako, tresna izan nahi du sailkapen-saio honek, eta ez behin-betiko adierazpen finkoa. Eztabaidarako erreferentzi markoa eskaintzen du halere, bere flakezia guztiekin, eta ez da gutxi: ondoren etorriko diren lanek (eta liburu honetan bertan, Plentziako Jardunaldien atalean, lehen bostak eskaintzen dira) nondik abiatu eta zertara mugatu izan dezaten pentsatua dago sailkapen hau.

Irakurleak ikusi ahal izango duenez behin baino gehiagotan apurtu dira, xehetasunei dagokienez, sailkapen nagusi honen barne-atalkatzeak. Arrasto nagusiez denaz bezainbatean dagoen-dagoenean mantendu da orain artekoan, halere, sailkapen hamazortzikoitza.

Sailkapen-saio honen ulerpen zuzenerako zenbait argibide xume eman nahi da sarrera-moduko honetan. Horrela:

a) hitz-elkarketaren eremu osoa 18 sail edo ataletan banatzeaz gain, atal horietariko gehienak azpiataletan banatu dira. Azpiatalketa hori egiteko, ahal zen guztietan, semantikaz besteko erizpideak hartu dira gidari: esanahiaren aldetikako irristakortasuna ahal zen neurrian itzuri nahia izan da, funtsean, horrela jokatu izanaren arrazoia. Atal batzutan, halaz ere, ezinbestekoa izan da banaketak halako neurri batean semantikazko erizpidez gitea.

b) Atal eta azpiatal bakoitza adibide ugariz hornitu da. M. Zalbidek ehun eta gehiago jakiniturritatik (ikus 219-224 orrialdeetako zerrenda) jaso eta partez sailkaturiko adibideak (hirurogei bat mila), UZEIk mekanizatu eta Euskaltzaindiak argitaratzeko bidean jarri dituenak, hartu dira azalpen horiek emateko lehengai. XVI. mendetik honako adibide-zerrenda oso horretatik hamahiru bat milako azpizerrenda bat hartu zen zuzen-zuzeneko iturburu gisa: azpizerrenda horretako zenbakiak dira, hain zuzen, ondoko adibideek, beharrean gertatuz gero beren testuinguru zehatzean aztertu ahal izateko, erantsita daramatzatenak.

c) Elkarte-mota desberdinen azalpena argitu eta laburtzeko, eta bereziki osagaien kategoria gramatikala adierazteko, zenbait letra erabili dira ondoko sailkapenean. Hauek dira letra horien balio nagusiak:

- Letra maiuskula (A, B, C...): izena. Horrela, erbi-zakur eta mandobide "A-B" modukoak dira.
- Letra minuskulua (a, b, c,...): izenondoko adjetiboa. Horrela, zikin-zikina edo txurri-gorria "a-b" modukoak dira.
- x letrarekin, aditz-erroa adierazten da. Horrela, "x-A" modukoak dira jarleku edo egonarri elkarteak.
- xtu formulaz, bestalde, partizipiozko adizkiak aditzera ematen dira.
- n letrarekin, azkenik, zenbakia adierazten da: hamalauzanko eta lau(h)ortz, horrela, "n A" moduan emanak daude.

d) Arrazoi bategatik edo bestegatik bereziak direla uste izan den adibideak aurretik "!" zeinuaz hornitu dira. Duda-mudazkoak direla uste izan direnak, bestalde, "?" ikurraz.

\* \* \* \* \*

Bukatzeko, sailkapen-saio osatu horren laburbilduma eskaintzen da txosten honen amaieran (105-109. orr.)





## I. ADITZ-ELKARTEAK

Ondoko taulan adierazten da, labur bilduz, aditz-elkartek azaltzeko erabileriko den multzoketa:

Aditz-elkarte ARRUNTAK (I.1.)	}	A-etsi (I.1.1.): <b>gaitzetsi</b> a-eritzi (I.1.2.): <b>oneritzi</b> A-egin (I.1.3.): <b>lan egin</b> A-eragin (I.1.4.): <b>gogait eragin</b> x-erazi (I.1.5.): <b>galerazi</b> A-eman (I.1.6.): <b>amor(e) eman</b> A-hartu (I.1.7.): <b>su hartu</b> Bestelakoak (I.1.8.): <b>odolustu, gaizkiesan</b>
----------------------------------	---	---

ERGATIBOZKO aditz-elkartek (I.2.)	}	A (ergatiboaz) + aditza (I.2.1.): <b>lo(a)kartu</b> A (isilpeko ergatiboaz) (I.2.2.): <b>harjo</b>
--------------------------------------	---	---

Aditz-elkarte bereziak (I.3.)	}	<table style="border: none;"> <tr> <td style="vertical-align: middle;">- + behar (I.3.1.)</td> <td style="font-size: 4em; vertical-align: middle;">}</td> <td>           A-behar: <b>goganbehar</b>            x(tu)-behar: <b>luza(tu)behar</b> </td> </tr> <tr> <td colspan="2" style="vertical-align: middle;">A-izan (I.3.2.): <b>beldur izan</b></td> <td></td> </tr> <tr> <td colspan="2" style="vertical-align: middle;">Sintetikoak (I.3.3.)</td> <td></td> </tr> </table>	- + behar (I.3.1.)	}	A-behar: <b>goganbehar</b> x(tu)-behar: <b>luza(tu)behar</b>	A-izan (I.3.2.): <b>beldur izan</b>			Sintetikoak (I.3.3.)		
- + behar (I.3.1.)	}	A-behar: <b>goganbehar</b> x(tu)-behar: <b>luza(tu)behar</b>									
A-izan (I.3.2.): <b>beldur izan</b>											
Sintetikoak (I.3.3.)											

Leku-denborazko mugatzailedunak (I.4.)	}	gora + xtu (I.4.1.): <b>goraipatu</b> gain + xtu (I.4.2.): <b>gainbegiratu</b> azpi + xtu (I.4.3.): <b>azpimarkatu</b> aurre + xtu (I.4.4.): <b>aurreikusi</b>
---	---	---

Garapena edo berrelkarketa (I.5.)	}	a-a egin (I.5.1.): <b>zapal-zapal egin</b> aditz-bikoteak (I.5.2.): <b>goazemak</b> Arruntak (I.5.3.)
--------------------------------------	---	---

I.1. aditz-elkarte arruntakI.1.1. A-etsi (a-etsi, adb.-etsi): **gaitzetsi**

miretsi 7200, 7320, 7323, 7360, 7465, ederretsia 7216, 7341, 7425, 7482, berantetsi 7212, 7530, 7461, goretsi 7403, 7548, 7558, gaitzetsi 7412, 7468, erdietsi 7250, 7421, betetsi 7199, 7205, 7217, luzetsi 7266, 7593, hautetsi 7329, 7396, asketsi 7102, 7437, ebatsi 7171, sinetsi 7306, 7456, zilegietsi 7269, gupidetsi 7402, gutiagoetsi 7400, ihardetsi 7455, onetsi 7478, galetsi 7497, ezetsi 7531, handietsi 7550.

I.1.2. a-eritzi: **oneritzi**

oneritzi 7112, 7144, 7350, gaitzeritzi 7115

I.1.3. A-egin: **lan egin**

lo egin 7104, 7153, 7210, 7365, hitzegin 7106, 7163, 7218, 7391, otoi egin 7296, otoitz egin 7108, 7294, alde egin, aldegin 7113, 7231, 7300, 7441, oker egin 7114, berba egin 7140, 7571, negar egin 7117, 7229, leher egin 7119, 7203, 7276, 7307, 7367, eztanda egin 7120, usin egin 7121, hauts egin 7129, bekatu egin 7137, 7431, 7463, zintz egin 7138, 7513, gaitz egin 7139, 7143, 7413, farre egin 7142, 7228, 7235, 7416, behar egin 7145, lan egin 7146, 7369, atsegin 7147, 7206, 7227, 7436, mu(i)n egin 7148, 7145, gogait egin 7158, irribarre egin 7162, agur egin, 7164, 7442, salto egin 7166, aha-egin 7167, 7444, su egin 7170, poto egin 7180, oihu egin 7186, 7196, 7215, 7288, porrot egin 7187, galdegin 7202, 7325, 7409, 7476, zin egin 7204, huts-egin, huts egin 7219, 7233, 7308, 7386, 7500, txistu egin 7161, 7224, 7388, on egin 7225, so egin 7301, 7473, ihes egin 7226, 7337, 7417, kaso egin 7243, proba egin 7245, huelga egin 7246, konpaini egin 7247, koru egin 7258, zotz egin 7277, txixa egin 7208, argi egin 7284, 7438, bategin 7289, igeri (uger) egin 7290, 7576, bultza egin 7293, uzkur egin 7334, entzungor egin 7345, amor(e) egin 7346, makur egin 7369, gerra egin 7406, erregalo egin 7420, bide egin 7429, atsedeen egin 7435, zurrut egin 7446, jaregin 7448, gogoeta egin, kontu egin 7459, min egin 7464, begitarte egin 7469, etxedun egin 7477, ernegu egin, juramentu egin 7483, dei egin 7501, karitate egin 7514, topo egin 7524, goardia egin 7535, tupust egin 7540, akar egin 7546.

I.1.4. A-eragin, x-eragin: **gogait eragin, eman eragin**

amets eragin 7214, atsedeen eragin 7433, dardar eragin 7498, farreragin 7415, gogait eragin 7151, ihes eragin 7220, leher eragin 7103, negar eragin 7356, 7357, eman eragin 7116.

I.1.5. x-erazi: **galerazi**

abiarazi 7207, adierazi 7136, asaldarazi 7316, atzera(ra)zi 7347, bilaka arazi 7426, bazka erazi 7527, damu erazi 7111, ezagutarazi 7552, ezaguterazi 7182, ezar arazi 7417, esnarazi 7418, entzun erazi 7423, egin erazi 7428, esan arazi 7499, ezkon erazi 7518, etzan erazi 7519, ekarrarazi 7149, galerazi 7105, 7279, 7330, 7408, 7445, 7480, gogora (e)(ra)zi 7118, 7179, gogaiterazi 7404, ganbiarazi 7407, hedarazi 7319, 7395, hel arazi 7394, helarazi 7299, hilerazi 7393, iraunerazi 7177, 7255, ibilerazi 7188, isur(i)-erazi 7213, itzal erazi 7302, izu(tu) arazi 7310, isilarazi 7376, irudi arazi 7377, irijo arazi 7378, ireki arazi 7379, irakin arazi 7380, 7511, ipin arazi 7381, 7481, inprimierazi 7382, ikusarazi 7383, ihes egin erazi 7384, iganarazi 7385, jaso-erazi 7195, jakin erazi 7515, jakinerazi 7198, jauzarazi 7373, jaiki arazi 7374, ken(du) arazi 7174, 7291, kenerazi 7209, korreji erazi 7370, luzarazi , lotsarazi 7364, limurrarazi 7496, mugiarazi 7221, mugi(d)arazi 7359, mintzarazi 7361, min arazi 7510, mugierazi 7516, nekarazi 7355, oroitarazi 7176, sinestarazi 7457, sinesterazi 7181, 7232, 7253, sentiarazi 7208, 7230, sortarazi, sorrarazi 7254, 7292, 7331, 7336, samur(tu) arazi 7265, sumin erazi 7517, trabaila arazi 7479, ukierazi, 7338, utz erazi 7529, xahuarazi 7312, zorarazi 7149, zutiarazi 7315.

I.1.6. A-eman: **amor(e) eman**

amor(e) eman 7326, 7400, 7528, animu eman 7537, antzeman 7439, aurpegi eman 7599, amorru eman 7201, 7539, buru eman, 7189, bihotz eman 7257, 7427, 7472, begi eman 7432, gibel eman 7405, hatzeman 7169, hauteman 7309, 7327, hitz eman 7390, hats eman 7399, kontu eman 7152, konforme eman 7534, leku eman 7366, laztan eman 7449, musu eman 7248.

I.1.7. A-hartu: **su hartu**

- d) **itsaso**: Mediterraneo itsasoa 12085.
- e) **ibai**: Garona ibaia 12089.
- f) nolana hikoak: San Vicente lur-muturra 12087, Santa Isabel gaztelua 12127.
- g) Donibane Garazi, Pasai San Juan, Pasai Donibane 12124, Pasai San Pedro.

## X.2. Erakunde, enpresa, produktu eta elkarte-izenak

- a) On egin jantokia 12055.
- b) Bizkargi argitaletxea 12001, Itxaropena etxea 12029, Auspoa liburutegia 12030.
- c) **produktuak**: "syn ager" kaja 12012, 12014.
- d) **dendak**: agurital liburu-denda 12052.
- e) : "Herria" astekaria 12062, "Historia de Roncesvalles" liburua 12063, Jesusen Biotzaren Deya aldizkaria 12073, "Le Jour" egunkaria 12107.

## X.3. Pertsona-izenak

### X.3.1. Izen-deitura soilak

- a) **Isaac Lopez Mendizabal** modukoak: Juan Uriarte 12002, Mikel Zarate 12004.
- b) **Lopez-mendizabal'dar Ixaka** modukoak:

### X.3.2. jaun-andreen izendapenak

- a) **Altube jauna** modukoak: Altube jauna 12040, Urkixo jauna 12041, Ormaetxea jauna 12042, Lafitte jauna 12043, Labaien jauna 12044, Gavel jauna 12045, Zinkunegi jauna 12047, Krutwig jauna 12048, Graziano jauna 12036, Kesada eta Kanalejas jaunak 12027, Aberasturi jauna 12057, Karmelo Etxegaray jauna 12083, Idiakez jauna 12094.

b) **Andre Madalen, andereño Pili**, modukoak: andra Pantxika 12000, Andra Josepa 12017, 12018.

c) **Zulaika andere(ño)a** modukoak: Hallert anderea 12009.

### X.3.3. Bizibidezko izendapenak

a) **Retegi pelotaria** modukoak: Eusebio Azkue euskal idazlea 12051, Pedeluk nagusia 11994, Miller doktorea 12010, Rueger doktorea 12011, Preskott kondairatzailea 12025, Arkadio enperadorea 12054, Heli apaiz-nagusia 12058, Polit Kanonikuburua 12061, Bordele bertsolaria 12064, Satrustegi abadea 12065, Andima euskal idazlea 12074, Celestinus Aitasaindua 12077, Zubiaur Almirantea 12084, Bizargorri pirata 12086, Zubiair Jenerala 12091, Ojeda kapitana 12092, Chaho deputatu-gaia 12115.

b) **Olerkari Zubikarai** modukoak: Olerkari Zubikarai 12056, Kapitan Abendaño 12024, Comandante Trozo 11990, Errege Naas 12059.

c) **Aita Zavala** modukoak: aita Zabala 12031, anai Berriotxo.

### X.3.4. Jaun-andreen titulu- eta kargu-azalpenak

a) **mediku jauna** modukoak: mediku jauna, guardian jauna 12037, praile jauna 12033, euskaltzale jauna 12035, abade jauna 12066, juez jauna 12101.

b) **jaun mediku** modukoak: jaun mediku 12081.

c) **Bestelakoak**: Basile alarguna 12071.

### X.3.5. begirunezko adierazpenak

a) **Don**: Don Inazio 12020.

b) **Musde**:

c) **Jondone**:

d) **San(to), Santa**: Paulo santua 12053.

e) **Deun**:

f) **Done**:

g) **Birjina**: Birjina Maria 12036.

h) **osatuak**: Don Juan jauna 12021, Don Pedro maisua 11996, Aingeru San Gabriel 12019.

## X.3.6. Ahaidego loturen azalpena

- a) **aita:**
- b) **ama:**
- c) **osaba:**
- d) **izeba, izeko:**
- e) **aitona, aitaita, aitatxi:** Juan Manuel aitaita 11998.
- f) **amona, amama, amatxi:**
- g) **seme:** (bere) seme Leturia 12136.
- h) **alaba:**
- i) **iloba:** iloba Anjel 12026.
- j) **anaia/neba:** anaia Martin 12096.
- k) **arreba/ahizpa:** arreba Frantziska 12097.
- l) **auzo:** Jean Hegiaphal auzoa 12110.

X.4. Bestelako izendapenak

- a) "Gazte naiz" esperientzia 12050.
- b) sensorio hitza 12100, sofista izengoitia 12108.

X.5. Berrelkarketa edo garapena

Miller sendagile jauna 12015, Julius Pokorny irakasle jauna 12076, Saint-Blancard frantses baroia 12088, Pierre familiako azken haurra 12111.

## XI. JARLEKU ELKARTE-MOTA

Hitz elkartu hauek, osagaien kategoria gramatikalari dagokionez (aditz-erro) + (izen) modukoak dira. Era honetan banaturik emango dira hitz elkartu hauek.

- mugakizun arruntekoak
- mugakizuna **aldi**
- mugakizuna **bide**
- mugakizuna **leku, toki, gune**

Erizpide horren arabera, multzo bakoitza horrela eraturik dago.

### XI.1. Mugakizun arruntekoak

aterrune 5126, biltorri 5148, bizigiro 5162, bizimodu 5171, 5183, bizi-poz 5184, bizkorbelar 5189, borragoma 5190, edatetxe 5193, !edontzi 5194, egonarrri 5222, egongiro 5223, ehomakina 5228, idazmakina 5228, errauts 5243, errebelar 5248, idazlan 5347, 5353, idazmolde 5354, idaztankera 5357, 5361, ikastaro 5384, ikasturte , ikastetxe 5385, 5392, ikastola 5393, 5394, sorterrri 5613, ? jatordu 5719, !jostorratz 5722.

### XI.2. Mugakizuna **aldi** dutenak

agerraldi 5101, argitaraldi 5113, astinaldi 5118, 5119, 5120, 5121, ateraldi 5122, 5123, 5124, 5125, azterraldi 5133, bilaldi 5146, bizialdi 5151, edanaldi 5192, egonaldi 5215, 5221, erakusaldi 5234, esaldi 5250, 5252, ihesaldi 5365, 5367, ikustaldi 5404, 5406, ikastaldi 5580, 5581, ateraldi 5615, gertaldi 5730.

### XI.3. Mugakizuna **bide** dutenak

aribide 5115, asmapide 5117, bilabide 5144, bizibide 5155, 5160, eginbide 5204, 5212, erakuspide 5235, aberaspide 5090, igarobide 5089, pasabide 5088, adibide 5093, 5094, agerbide 5095, 5096, 5097, aginpide 5106, aurkibide 5129, aurrerapide 5130, 5131, azalpide 5132, eskabide 5262, 5266, ikasbide 5371, 5379, jokabide 5710.



XI.4. Mugakizuna leku, toki edo gune dutenak

abialeku 5091, agerleku 5099, 5100, agertoki 5104, 5105, amil-leku 5110, antzeztoki 5111, atsedentoki 5127, bazkaltoki 5136, beharleku 5137, bihurtune 5142, 5143, biltoki 5149, bizileku 5164, 5169, bizitoki 5186, 5188, egonleku 5225, egotoki 5226, eserleku 5258, 5259, esertoki 5260, jarleku 5705, 5708, ibil-leku 5718.

XII. ERDIASE ELKARTE-MOTA

Hitz elkartu hauen sailean ondoko atal hauek bereiz daitezke:

erdi + adjetiboa (XII.1.)	{	<b>erdi-itsu</b> modukoak (XII.1.a)
		<b>erdi-etorkin</b> modukoak (XII.1.b)
		? <b>erdi-logale</b> modukoak (XII.1.c)
erdi + adizkia (XII.2.)	{	aditz-forma bizietan (XII.2.a): <b>erdi-entzun</b>
		partizipiozkoak (XII.2.b): <b>erdi-egin</b>
		partitibozkoak (XII.2.c): <b>erdi-itxirik</b>
		<b>erdi-galduta</b> modukoak (XII.2.d)
		<b>erdi-jantziz, erdi-galduan</b> modukoak (XII.2.e)
		<b>erdi-ase</b> modukoak (XII.2.f)
erdi + adizlaguna (XII.3.)	{	<b>erdi-lotan</b> modukoak (XII.3.a)
		<b>erdi-negarrez</b> modukoak (XII.3.b)
		<b>erdi-irrintzika</b> modukoak (XII.3.c)
		<b>erdi-makinalki</b> modukoak (XII.3.d)
		<b>erdi-goseak</b> modukoak (XII.3.e)
		? <b>erdi-logale</b> modukoak (XII.3.f)
? erdi + izena (XII.4.):		<b>erdi-kaskoin</b>
Bestelakoak (XII.5.)	{	<b>erdi(z)purdi</b> modukoak (XII.5.a)
		<b>erdibitu</b> modukoak (XII.5.b)
		? <b>erdi-inguruko</b> modukoak (XII.5.c)
		<b>!egin erdi</b> modukoak (XII.5.d)

XII.1. erdi + adjetiboa

- a) erdi-itsu 10665, erdi-zuri 10668, erdi-murritu 10669, erdi-elbarri 10677, erdi-heze 10679, erdi-gaiso 10689, !erdi-hil 10706, erdi-zabal 10713.
- b) erdi-etorkin 10675, erdi-intelijente 10683, erdi-jokalari 10733, erdi-bertso-lari 10734, erdi-basati 10711, erdi-eskale 10714.
- c) ? erdi-logale 10719.

XII.2. erdi + adizkia

- a) erdi-entzun 10678, erdi-lagundu 10667, , erdi-ikasi 10695, erdi-iratzarri 10703.
- b) partizipiozkoak: erdi-egin 10666, erdi-gorritu 10671, erdi-beztu 10672, erdi-itxi 10684, erdi-sendatu 10692, erdi-ezagun 10698, !erdi-hil 10706, erdi-erantzi 10723, erdi-desjabetu 10731, erdi-edan 10732, erdi-izutu 10736, erdi-etsitu 10738.
- c) erdi-itxirik 10628, 10685, erdi-biluzik 10688, 10715, erdi-zapuzturik 10694, erdi-beztiturik 10718, erdi-edanik 10721.
- d) erdi-galduta 10690, erdi-hustuta 10696, erdi-ezkutatuta 10701, erdi-itxita 10720.
- e) erdi-jantziz 10693, erdi-galduan 10730.
- f) erdi-ase 10699.

XII.3. erdi + adizlaguna

- a) erdilo(tan) 10664, 10700, 10702, erdi-larrugorrian 10673, erdi-ilunean 10681, erdi-miserian 10686, erdi-negarrean 10705, erdi-pakean 10707.
- b) erdi-negarrez 10691, erdi-damuz 10674, erdi-tatarraz 10687, erdi-haserrez 10697, erdi-farrez 10724:
- c) erdi-irrintzika 10704, erdi-errenka 10709.

d) erdi-makinalki 10712.

e) erdi-goseak 10729.

f) ? erdi-logale 10719.

XII.4. ? erdi + izena (bikoizturik)

erdi-kaskoin, erdi-euskara 10716, erdi-emakume 1847, erdi-~~arrain~~ 1848, erdi-itza 2112.

XII.5. Bestelakoak

a) erdizpudi (adberbiala) 10680, 10722.

b) ? erdibitu 10670.

c) ? erdi-inguruko 676.

d) !eginerdi.



XIII. BIKOIZTAPENAK (AMREDITA)

Ondoko azpiatalak hartuko dira hemen kontutan<sup>1</sup>:

adjetibo-bikoiztapenak (XIII.1.) {  
 arruntak (XIII.1.a): **zikin-zikin**  
 gehienezkoak (XIII.1.b): **onen-onen**

adberbio-bikoiztapenak (XIII.2.): **lasai-lasai**

adizlagun-bikoiztapenak (XIII.3.): **huts-hutsean, barru-barrutik, bihotz-bihotzez**

**emeki-emeki** modukoak (XIII.4.): **emeki-emeki, astero-astero, ezarian-ezarian**

**etxez-etxe** modukoak (XIII.5.): **etxez, etxe, etxerik etxe, dendariz denda**

? adizki-bikoiztapenak (XIII.6.): **zaude, zaude; egiten-egiten**

? Bestelakoak (XIII.7): **jauna-jauna, tira-tira, ia-ia, berber(a)**

Ikus ditzagun azpiatalok, banan bana.

---

1: Sail honen formulazio birmoldatua ikus 115-147. or.

XIII.1. adjetibo-bikoiztapenak, arruntak eta gehienezkoaka) **zikin-zikin**

zikin-zikin, lohi-lohi 9149, gazte-gazte 9462, bero-bero 9467, isil-isil 9468, bete-bete 9485, gorri-gorri 9513, 9516, zuri-zuri 9515, zahar-zahar 9545, oso-osoa 9619.

b) **onen-onen**

onen-onen 9576, gehien-gehien 9579.

XIII.2. adberbio-bikoiztapenak: lasai-lasai

doi-doi(a) 9464, 9471, 9588, 9601, 9595, ? lerro-lerro 9470, ? bildu-bilduak 9474, lasai-lasai 9475, serio-serio 9476, !bezala-bezala 9484, zuzen-zuzen 9486, harro-harro 9497, bizi-bizi 9500, 9510, 9514, 9543, itsu-itsu 9501, bero-bero 9518, 9552, 9570, azkar-azkar 9534, luze-luze 9542, guri-guri 9538, lauso-lauso 9540, zapal-zapal 9545, 9548, beti-beti 9553, motz-motz 9563, zalu-zalu 9567, berdin-berdin(a) 9584, beltz-beltz(a) 9589, zalu-zalu(a) 9598, isil-isil(a) 9596, zabal-zabal(a) 9598, xehe-xehe(a) 9608, garbi-garbi 9625, bipil-bipil(a) 9626, erne-erne(a) 9627, !tinti-tinkia 9629.

XIII.3. adizlagun-bikoiztapenak: huts-hutsean, barru-barrutik, bihotz-bihotzeza) **huts-hutsean**

huts-hutsean 9473, haserre-haserrean 9480, bapatean, bat-batean, bet-betan 9600, 9482, 9521, 9535, 9560, 9564, 9573, 9602, 9604, bete-betean 9496, 9498, 9502, 9615, bost-bostetan 9504, pare-parean 9505, (h)ari-(h)arian 9530, aurre-aurrean 9554, mendi-mendian 9562.

b) **zut-zutik**

zut-zutik 9496, 9556, 9559, bakar-bakarrik 9472, 9479, 9583, isil-isilik 9477, 9483, 9536, 9586, 9587, oso-osorik 9508, 9526, zabal-zabalik 9531, soil-soilik 9557, 9611, 9612.

c) **barru-barrutik**

barru-barrutik 9512, 9574, barren-barrendik 9575, gain-gainetik 9605, hasiera-hasieratik 9606, huts-hutsetik 9613, 9614, aurren-aurrenetik 9616.

d) **moda-modako**

moda-modako 9509, aspaldi-aspaldiko 9609, gertu-gertuko 9610, barru-barruko 9621.

e) **bihotz-bihotzez:** bihotz-bihotzez 9578f) **maite-maiteka:** maite-maiteka 9568g) **zalu-zalukara,** 9581h) **bat-batera** 9577, **gain-gainera** 9597.XIII.4. **emeki-emeki** mota

a) emeki-emeki 9465, 9549, 9561, 9572, 9580, 9592, 9621, 9628, poliki-poliki 9490, 9520.

b) astero-astero 9623.

c) ezarian-ezarian 9617.

d) tarteka-tarteka 9582.

e) banan-banan 9537.

f) hala-hala 9461, 9603.

XIII.5. **etxez etxe** mota

a) etxez etxe, gainez gain 9463, mendiz mendi, aurrez aurre, herriz herri, egunez egun.





XIV. DVANDVA

Hitz elkartu hauen saila ondoko atalotan banatuko da<sup>1</sup>.

- izen-dvandvak
- adjetibo-dvandvak
- adberbio-dvandvak
- **harat-honatak** mota
- ? aditz-dvandvak
- zenbaki-dvandvak
- berrelkarketa

Hauk dira, banan bana, atal bakoitzaren xehetasunak.

XIV.1. izen-dvandvak

## XIV.1.1. izen arruntekoak

aita-amak 9635, 9636, 9637, 9638, 9639, 9640, 9641, 9642, 9643, 9644, 9645, 9646, 9647, 9648, 9649, 9650, 9651, 9652, 9653, 9654, 9655, aho-sabelak 9634, aita-semeak 9656, 9657, 9658, 9659, 9660, 9661, aiton(a)-amonak 9662, 9663, 9664, !aitzin-gibel (oro) 9665, 9666, aitzin-gibelak 9667, aldundi-udaletxeak 9668, ama-alabak 9670, 9671, 9672, ama-semeak 9673, 9674, !ama-semea 9675, amets-gogoetak 9677, !amets-irudipen 9678, amona-ilobak 9679, amore-nekeak 9680, !anai-arrebak 9681, 9682, 9683, 9684, 9685, 9686, ardi-bildotsak 9690, ate-leihoak 9696, ate-sarrailak 9697, !atsegin-kontentu 9699, atso-agureak 9700, aurpegi-gogoak 9702, !barru-sakon (bila) 9706, begi-bekokiak 9707, begi-belarriak 9708, belar-landareak 9710, beso-mihiak 9714, beso-zankoak 9715, bihotz-adimenak 9719, bihotz-begiak 9720, bihotz-erraiak 9721, 9722, !bihurrikeri-gaiztakeria 9724, bildots-ardiak 9725, buru-begiak 9727, buru-belarriak 9729, buru-besoak 9730, ? dote-arriok

---

1: Sail honen formulazio birmoldatua ikus 149-175. or.

9773, eltze-platerak 9738, emazte-alabak 9739, erraztasun-atseginak 9741, errege-erreginak 9742.

#### XIV.1.2. izen propiozkoak

##### a) leku-izenak:

Erronkari-Zaraitzuetako 9743, Gipuzko-Bizkaiak , Afrika-Asiak 9631, Anboto-Urkiolak 9687, Eguberri-Gabonak 9737.

##### b) pertsona-izenak: Axular-Etxepareak 9704.

#### XIV.2. adjetibo-dvandvak

beltz-nabar 9711, bero-kartsu 9712, berri-on 9713, abertzale-sozialista 9630, ager-gorde 9603, alfer-nagi 9669, arin-alai 9691, arlote-pobre 9693, arre-azkar 9694, bihurri-hezigaitz 9723, bizi-pitzatu 9726, busti-urdintsu 9732, eder-oso 9734, eder-ugari 9735, ezti-mingots 9751, galdu-galgarri 9756, erdi-ezker "centro-izquierda" 9740, frantses-euskaldun 9753.

#### XIV.3. adberbio-dvandvak

- a) lehen-orainak , bihar-etzi(etako) 9717, !bihar-etzitako 9718.
- b) luze-zabal 9947, 9948.
- c) buru-belarri 9728.
- d) ezker-eskuin 9748, 9749.
- e) atzera-aurrera 9701.
- f) buruz-buztanka 9731.
- g) behin-betiko 9709.

#### XIV.4. harat-honat(ak) mota

harat-honat(ak) 9481.

#### XIV.5. ? aditz-dvandvak

- a) ? esan-eginak 9744, 9745.
- b) eztabaida 9750.

XIV.6. Zenbaki-dvandvak

bi-hiru 9716, hamar-hamabost.

XIV.7. Berrelkarketa

a) adjetibozkoa: egoki-erraz-labur 9736, eskerdun-urrikalti-maitari 9746, gaiz-to-gogor-nekagarri 9755.

b) farre-ikaragarri 9752, nazka-izugarrikeriak.

c) aurre-atzelariak 9703.



XV. SINBOLISMO FONETIKOZ ETA HOTS-UZTARDURAZ SORTURIKO HITZ ELKARTUAK

Hitz-elkarketa multzo hau hiru ataletan banatuko da<sup>1</sup>.

- hots-errepikak
- errima-bikoteak
- Ablaut-taldeak

Banan banako azalpena ematen da ondoren.

XV.1. Hots-errepikak: marmar

(t)tapa-(t)tapa 10197, 10248, kuku 10198, gal-gal 10208, 10269, bris-bris 10213, kili-kili 10210, 10223, 10236, 10265, pir-pir 10218, fiut-fiut 10215, xirri-xirri 10224, dar-dar 10228, 10231, 10270, 10291, pil-pil 10229, 10266, 10279, 9492, traka-traka 10230, !bol-bol-bol 10233, tanka-tanka 10239, arra-arra 10242, mara-mara 10243, bala-bala 10244, raka-raka 10246, taka-taka 10247, 9495, 9541, marmar 10257, 10258, 10281, 10306, 10307, 9489, !tan-tan-tan 10260, 10296, ttunttun 10276, parra-parra 10280, klik-klik 10283, kaxk-kaxk 10284, 10294, dran-dran 10290, bar-bar 10293, kux-kux 10299, barra-barra 9478, 9622, purra-purra 9565, tafla-tafla 9569, dirdir 9598, dirdira 9607.

XV.2. Errima-bikoteak: duda-muda

a) duda-muda 10199, 10268, 10309, 10289, !aiko-maiko 10202, 10249, !silka-misilka 10203, 10253, 10283, !esames(ak) 10204, 10264, 10287, 10316, !txutxu-mutxu 10209, !zurru-murru 10214, 10274, 10297, 10315, 10317, 10318, puska-muska 10217, zoko-moko 10220, 10241, zehatz-mehatz 10221, zeharka-meharka 10226, aitzaki-maitzaki(a) 10245, !txurrute-murrute 10250, txirri-mirri 10251, harroska-marroska 10252, iritzi-miritzi 10254, !kiskili-maskili

---

1: Sail honen formulazio birmoldatua ikus 177-197. or.:

10255, inguru-minguru 10271, auzi-mauzi 10272, nahas-mahas 10273, 10327, uka-muka 10275, tot(t)el-motel 10277, izkutu-mizkutuka 10285, elur-melur 10288, bildur-mildur 10292, erran-merran 10298, kux-mux 10299, !eie eta mele 10300, zizka-mizka 10301, hizka-mizka 10304, surmur 10313.

b) txitean-pitean 10205, txutxu-putxu 10206.

c) jira-bira 10207, 10219, 10227, 10235, 10314.

d) saski-naski 10278.

e) nahaste-borraste.

### XV.3. Ablaut-taldeak: tirriki-tarraka

a) binbi-banba 10200, briu-brau 10237, zipirti-zaparta 10238, !tinki-tinka 10240, tilika-talaka 10256, zipli-zapla 10261, zis-zas 10262, kiliki-makala 10267, flix-flax 10302, krisk-krask 10303, zirt-zart 10305, ziri-zara 10308, binbilin-banbala 10320, zisti-zasta 10321, tinpiti-tanpa 10322, !hinka-hanka 10323, 10324, 10325, !tipust-tapast 10328, plisti-plasta.

b) kili-kolo , bilin-bolaun 10234.

## XVI. ASTAPUTZ ELKARTE-MOTA

Atal honetan ematen diren hitz elkartuak bahuvrîhién sailean sartu ohi ditu hainbat gramatikarik. Erizpide-txostenean esandakoaren ildotik, halaz ere, aparteko multzoan eskaintzen dira sailkapen honetan<sup>1</sup>. Hona adibideak:

### XVI.1. AB modukoak

astaputz 11543, 11544, 11548, 11559, astapistola 11540, astakirten 11541, babalore, kakananru 11542, !gezur-hitz 11549, txoriburu, zerri-buru 11550, pitxi-lore 11552, olio-ontzi 11553, hitzontzi 11555, haizeputz 11557, golde-mutur 11558, astapotro, astazakil, astaperra 11560, tipulaburu 11562, ogi-gazta 11563, artaburu 11564.

### XVI.2. Ab modukoak

oilo busti 11554, artabero 11565, 11568, astolerdo 11539.

### XVI.3. aB modukoak

harro putz 11545, 11547, handiputz 11556, eder-ispilu 11567.

### XVI.4. Berrelkarketa

a) **(aB)tu** modukoak: harropuztu 11546.

b) **Ab-C** modukoak: artabero-usain 11561.

---

1: Sail honen formulazio birmoldatua ikus 199-207. or.





## XVII. PERU ABARKA ELKARTE-MOTA

Ondoko atal hauek berezi behar dira, gutxienez, Peru Abarka moduko hitz elkartuen sailean:

### XVII.1. Peru Abarka modukoak

Peru Abarka 11602, Patxi Bakailo 11575, Patxiko Txerren 11577, Manu Txurrut 11582, Martin Kaiku 11583, Martin Txilibitu 11584, Mateo Txistu 11586, Praixka Mutur 11588, Pepa Negar 11590, Mari Urrika 11593, Mari-Puntta 11597, Pello Errota 11598, Joxe Errota 11599, ? Tomas Katxo 11570.

### XVII.2. Marizikin modukoak

Marizikin, Joxe Mari Haundi 11569, Joan Martin Motz 11571, Joanagorri 11572, Joan Manuel Haundi 11573, Pepakin Mozkor 11574, Manuel Za(ha)r 11578, Inazio Motz 11579, Joanito Zapparro 11580, Katalingorri 11581, Matxingorri, Marigorri 11585, Txomin Zatar 11589, Harry Azkar 11595, Mari-tente 11596, !Estoan Txikien 11603.

### XVII.3. Lazkao Txiki modukoak

Lazkao Txiki 11600, 11601.

### XVII.4. Mari-begibakar modukoak

Mari-begibakar 11592, Mikel eleder 11591.

### XVII.5. Arta Manuel modukoak

Arta Manuel 11587.

### XVII.6. Amantoni Toberako modukoak

Amantoni Toberako 11594.



XVIII. HITZ-ANDANA IHARTUAK

Ondoko era honetan azal daitezke, lehen hurbilpenezko sailkapen batean, hitz-andana ihartuen atal-alor nagusiak:

- . **Ab:** izen + adjetibo segidazkoak: Aste Santu, urregorri.
- . **BA:** menpekotasunezko izen-konposizio ihartuak: galeper, akelarre.
- . **Bko A:** izenlagun + izen segidazkoak: Gernikako Arbola, Erromako Zubia.

Atal nagusioz aparte aipagarriak dira, hain maiz agertzen ez diren arren, ondoko beste multzo hauek ere:

- . **A Bko:** behinolako eskuin-hedapenak: amaponteko, aingeru goardako.
- . **nA:** hatzamar.
- . zenbaki-elkarteak: hamabi, hamabost, hogeitamaika, hiruroigetamabost.
- . bestelako lexikalizazioak: ongi etorri.

Atal nagusiei dagozkien adibide-sailak eskaintzen dira, ondoren, ezta-baidarako lehengai moduan:

XVIII.1. Ab: izen + adjetibo segidazko hitz-andana ihartuak

Aranburu-Berri, Aurizperri, Aste Santu, Bentatxuri, betizu, Eguberri, Ekialde Hurbil, eleberri, elezahar, emagaldu, Errege Katolikoak, Errekabeltz, gizaixo (gizajo), gizatzar, Herbehere, herribildu, ilbeltz, hiriberri, Ibaibaltz, Ibaizabal, Ibizaza(ha)r, itsasestu, Jaun Zuria, kanposantu, katagorri, katamotz, lurzuri "porcelana", Mendizorro(t)z(a), mutilzahar, oilagor, opil, ortusantu, ostegun gizen, senar, txakurtxiki, udaberri, udagoien, udalehen, udazken, urregorri, urteberri, zapelatz, Ziaran-Za(ha)r, zilarzuri.



SAILKAPEN-SAIO OSATUAREN LABURBILDUMA

## I. ADITZ-ELKARTEAK

## I.1. Aditz-elkarte arruntak

I.1.1. A-etsi: **gaitzetsi**I.1.2. a-eritzi: **oneritzi**I.1.3. A-egin: **lan egin**I.1.4. A-eragin, x-eragin: **gogait eragin, eman eragin**I.1.5. x-erazi: **galerazi**I.1.6. A-eman: **amor(e)eman**I.1.7. A-hartu: **su hartu**

I.1.8. Bestelakoak

## I.2. Ergatibozko aditz-elkarteak

I.2.1. A (ergatiboaz) + aditza: **lo(a)kartu**I.2.2. A (isilpeko ergatiboaz) + aditza: **harjo**

## I.3. Aditz-elkarte bereziak

I.3.1. A-behar, x-behar, xtu-behar: **goganbehar, betebehar**I.3.2. A -izan: **beldur izan**I.3.3. Sintetikoak: **haurgin**

## I.4. Leku-denborazko mugatzailedunak

## I.5. Garapena (eta berrelkarketa)

I.5.1. a-a egin: **zapal-zapal egin**I.5.2. Aditz-bikoteak: **goazemak**I.5.3. Arruntak: **harri-lur egin**

## II. HITZ-ELKARTE SINTETIKOAK

## II.1. Egile-elkarte sintetikoak

II.1.1. Errokariak

II.1.2. Soilak

II.1.3. Osatuak

## II.2. Ekintza-elkarte sintetikoak

II.2.1. Errokariak

II.2.2. Soilak

II.2.3. Osatuak

## II.3. Jardun-elkarte sintetikoak

II.3.1. Soilak

II.3.2. Osatuak

## II.4. Exosintetikoak

II.4.1. Erdal mugatzaileaz: **teleikusle**II.4.2. Erdal-mugakizunaz: **jainkofago**

## II.5. Berrelkarketa

II.5.1. Arruntak

II.5.2. (Ab)-dun, (AB)-dun, (nA)-dun, (nAb)-dun, (Bko Ac)-dun

II.5.3. A-b-x-(tzai)le: **babatxigor-jale**II.5.4. (Ab)gintza: **hizneurgintza**

II.5.5. Bestelakoak

## III. ASMO-ELKARTEAK

III.1. **Handinahi** elkarteaIII.2. **Logura** elkarteaIII.3. **Goragale** elkarteaIII.4. **Dirugose** elkarteaIII.5. **On-uste** elkarteaIII.6. **Jakin-min** elkarteaIII.7. **Herio-behar** elkarteaIII.8. **Andre-beldur** elkarteaIII.9. **Asko-jakin** elkartea

III.10. Bestelakoak

## IV. IZAKERA-ELKARTEAK

- IV.1. **Ulerterraz** elkarteak
- IV.2. **Minbera** elkarteak
- IV.3. **Kontentagaitz** elkarteak
- IV.4. **Ase-ezin** elkarteak
- IV.5. Bestelakoak

## V. EZKONBERRI ELKARTEA

- V.1. **Ezkonberri** elkarteak
- V.2. **Janzahar** elkarteak
- V.3. **Hilurren** elkarteak
- V.4. **Beroarin** elkarteak
- V.5. Bestelakoak

## VI. BAHUVRIHI ELKARTEAK

- VI.1. Ab: **Sudurluze** elkarteak
- VI.2. **Hankutsik, eskuzabalki, larrugorrian, esku-huska, eskuzabal**
  - VI.2.1. Ab-(r)ik: **hankutsik** elkarteak
  - VI.2.2. Ab-ki: **eskuzabalki** elkarteak
  - VI.2.3. Ab(e)an: **larrugorrian** elkarteak
  - VI.2.4. Ab-ka: **esku-huska** elkarteak
  - VI.2.5. Ab-O: **eskuzabal** (+ aditza) elkarteak
- VI.3. Ab-ago: **burumakurtuago** elkarteak
- VI.4. nA: **hiruhortz** elkarteak
- VI.5. A + partizipioa: **zinegotzi** elkarteak
- VI.6. "extended bahuvrihi"
  - VI.6.1. Ab-ko: **hots-urriko** elkarteak
  - VI.6.2. nA-ko: **milaurteko** elkarteak
- VI.7. Berrelkarketa
  - VI.7.1. bahuvrihi-tiko berrelkarketa
    - VI.7.1.a. Ab-tasun: **gogozabaltasun**
    - VI.7.1.b. Ab-keria: **buruberokeria**
    - VI.7.1.c. Ab-aldi: **buruzoroaldi**
    - VI.7.1.d. Ab-tu: **itxuratxartu**
  - VI.7.2. bahuvrihi-ranzko berrelkarketa

## VII. LOTSAGABE ELKARTEA

- VII.1. **Lotsagabe** multzoak
  - VII.1.1. A-gabe
  - VII.1.2. x-gabe: **ezkongabe**
  - VII.1.3. xtu-gabe: **hezigabe**
  - VII.1.4. forma deklinatuak: **ohargabea, ohargabea**
  - VII.1.5. Garapena
- VII.2. **Lo-falta** modukoak

## VIII. EGUZKI-LORE: MENPEKOTASUNEZKO IZEN-ELKARKETA

- VIII.1. **Eguzki-lore** moduko A-B arruntak
- VIII.2. Multzo-elkarteak
  - VIII.2.a. A-multzo
  - VIII.2.b. A-talde
  - VIII.2.c. A-pila
  - VIII.2.d. A-sail
  - VIII.2.e. A-aldra
  - VIII.2.f. A-errenkada
  - VIII.2.g. A-parrastada
  - VIII.2.h. A-mordo(ska)
  - VIII.2.i. A-tropel
  - VIII.2.j. A-andana
  - VIII.2.k. A-sorta
  - VIII.2.l. Bestelakoak (A + -arte, -saldo, -tanda)

- VIII.3. Zati-elkarteak
- VIII.3.a. A-zati
- VIII.3.b. A-puska
- VIII.3.c. A-apur
- VIII.3.d. A-tanta, A-tanto
- VIII.3.e. A-izpi
- VIII.3.f. A-koskor
- VIII.3.g. A-mutur
- VIII.3.h. A-tontor
- VIII.3.i. A-piska
- VIII.3.j. Bestelakoak (A + -hondar, -xorta, etab.)
- VIII.4. "Sumpsumtive compounds"
- VIII.5. Leku-denborazko mugakizunezkoak: **hitzaurre**
- VIII.5.a. A-aurre
- VIII.5.b. A-ondo, A-oste
- VIII.5.c. A-gain
- VIII.5.d. A-atze
- VIII.5.e. -pe
- VIII.5.f. A-azpi
- VIII.5.g. A-alde
- VIII.5.h. A-orde
- VIII.5.i. A-barne
- VIII.5.j. A-tarte
- VIII.6. Leku-denborazko mugakizuna + -ko: **betaurreko**
- VIII.6.a. A-aurreko
- VIII.6.b. A-ondoko
- VIII.6.c. A-gaineko
- VIII.6.d. A-atzeko
- VIII.6.e. A-peko
- VIII.6.f. A-azpiko
- VIII.6.g. A-arteko
- VIII.6.h. A-ordeko
- VIII.7. Leku-denborazko mugatzailedunak: **azpilan**
- VIII.7.a. barne-A
- VIII.7.b. goi-A
- VIII.7.c. azpi-A
- VIII.7.d. kanpo-A
- VIII.7.e. gain-A
- VIII.7.f. aurre-A
- VIII.7.g. aitzin-A
- VIII.7.h. zehar-A
- VIII.7.i. atze-A
- VIII.7.j. behe-A
- VIII.7.k. gora-A
- VIII.7.l. Bestelakoak (alde-, albo- + A)
- VIII.8. sasi-, basa-, asta-, gezur-, . + A: **sasi-maisu**
- VIII.8.a. sasi-A
- VIII.8.b. basa-A
- VIII.8.c. asta-A
- VIII.8.d. gezur-A
- VIII.8.e. Bestelakoak (larra-, suge-, zapo-, . + A)
- VIII.9. A-mota, -molde, -modu,
- VIII.9.a. A-mota
- VIII.9.b. A-molde
- VIII.9.c. A-modu
- VIII.9.d. A-suerte
- VIII.9.e. A-tailu
- VIII.9.f. A-klase
- VIII.10. **Zikin-usain** modukoak
- VIII.10.1. a-usain, A-usain modukoak: **erre-usain**
- VIII.10.2. a-fama, A-fama: **liberal-fama**



VIII.10.3. a-kutsu, A-kutsu: **erdal kutsu**

VIII.10.4. Bestelakoak

VIII.10.5. Berrelkarketa

VIII.11. **Plazagizon** modukoak

VIII.11.1. A-gizon mota

VIII.11.2. A-lagun mota

VIII.11.3. A-mutil mota

VIII.12. **Egunerdi** modukoak

VIII.12.a. A-erdi

VIII.12.b. A-laurden

VIII.13. Izen-elkarte bereziak

VIII.13.1. A-bide

VIII.13.2. A-gai

VIII.13.3. A-aldi

VIII.13.4. A-(k)ume

VIII.13.5. A-jende

VIII.13.6. A-lan

VIII.13.7. euskal-A

VIII.13.8. ipar-A

VIII.13.9. A-egun

VIII.13.10. elkar-A

VIII.13.11. giza-A

VIII.13.12. A-kontu

VIII.13.13. Berrelkarketa

VIII.14. Bestelakoak

VIII.15. Berrelkarketa

IX. ATRIBUTU EDO KOORDINAZIOZKO ELKARTEAK

IX.1. Atributuzko AB izen-elkarteak

IX.1.1. A den B

IX.1.2. B den A

IX.1.3. A nolako B da

IX.2. Koordinaziozko elkarteak

IX.2.1. Izenak: gauza bat A da eta B da

IX.2.2. Adjetiboak: gauza bat a eta b da

IX.3. Bestelakoak

X. APOSIZIOAK

X.1. Leku-izenak

X.1.1. **Aralar mendia** modukoak

X.1.2. **Lauaxeta kalea** modukoak

X.1.3. **X plaza** modukoak

X.1.4. **Garazi(ko) herria** modukoak

X.1.5. **San Bizente(ko) eliza** modukoak

X.1.6. Bestelakoak (X auzo, baserri, itsaso, ibai, etab.)

X.2. Erakunde, enpresa, produktu eta elkarte-izenak

X.3. Pertsona-izenak

X.3.1. Izen-deitura soilak

X.3.2. Jaun-andreen izendapenak

X.3.3. Bizibidezko izendapenak

X.3.4. Jaun-andreen titulu- eta kargu-azalpenak

X.3.5. Begirunezko adierazpenak

X.3.6. Ahaidego-loturen azalpena

X.4. Bestelako izendapenak

X.5. Berrelkarketa

XI. **JARLEKU** ELKARTEA

XI.1. Mugakizun arruntekoak

XI.2. Mugakizuna **aldi** dutenak

XI.3. Mugakizuna **bide** dutenak

XI.4. Mugakizuna **leku, toki** edo **gune** dutenak

## XII. ERDIASE ELKARTE-MOTA

- XII.1. erdi + adjetiboa
- XII.2. erdi + adizkia
- XII.3. erdi + adizlaguna
- XII.4. erdi + izena (bikoizturik)
- XII.5. Bestelakoak

## XIII. BIKOIZTAPENAK

- XIII.1. adjetibo-bikoiztapenak
  - XIII.1.a. **zikin-zikin**
  - XIII.1.b. **onen-onen**
- XIII.2. adberbio-bikoiztapenak: **lasai-lasai**
- XIII.3. adizlagun-bikoiztapenak: **huts-hutsean, barru-barrutik, bihotz-bihotzez**
- XIII.4. **emeki-emeki** mota
- XIII.5. **etxez etxe** mota
- XIII.6. adizki-bikoiztapenak (?)
- XIII.7. Bestelakoak (?)

## XIV. DVANDVA

- XIV.1. izen-dvandvak
  - XIV.1.1. izen arruntekoak
  - XIV.1.2. izen propiozkoak
- XIV.2. adjetibo-dvandvak
- XIV.3. adberbio-dvandvak
- XIV.4. **harat-honat(ak)** mota
- XIV.5. aditz-dvandvak (?)
- XIV.6. zenbaki-dvandvak
- XIV.7. Berrelkarketa

## XV. SINBOLISMO FONETIKO ETA HOTS-UZTARDURAK

- XV.1. Onomatopeiazkoak: **marmar**
- XV.2. Errima-bikoteak: **duda-muda**
- XV.3. Ablaut-taldeak: **tirriki-tarraka**

## XVI. ASTAPUTZ ELKARTEA

- XVI.1. AB modukoak
- XVI.2. Ab modukoak
- XVI.3. aB modukoak
- XVI.4. Berrelkarketa
  - XVI.4.a. (aB)-tu modukoak: **harropuztu**
  - XVI.4.b. Ab-C modukoak: **artobero-usain**

## XVII. PERU ABARKA ELKARTEA

- XVII.1. Peru Abarka modukoak
- XVII.2. Marizikin modukoak
- XVII.3. Lazkao Txiki modukoak
- XVII.4. Mari-begibakar modukoak
- XVII.5. Arta Manuel modukoak
- XVII.6. Amantoni Toberako modukoak

## XVIII. HITZ-ANDANA IHARTUAK

- XVIII.1. Ab segidazkoak: **Aste Santu**
- XVIII.2. BA menpeketasunezko izen-konposizioak: **baserri**
- XVIII.3. Bko A segidazkoak: **etxeoandre**



**LEXIKOLOGI ERIZPIDEAK FINKATZEKO V. JARDUNALDIA**

**Hitz-elkarketari buruzko 2. ekinaldia**

**Plentzia, 1987.01.30-31**

**Bikoiztapenak**

**Dvandva-elkarteak**

**Sinbolismo fonetiko eta hots-uztarduraz sorturiko hitzarteak**

**Astaputz moduko hitz-elkarteak**

**Peru Abarka elkarte-mota**



SARRERA

Gorago esan denez ondoko ekinaldietarako aurrelana izan zen, nagusiki, Belōkeko jardunaldian aurkeztu eta landuriko materiala. Elkartemota bakoitzaren zer-nolakoez ez zen ekinaldi hartan, asmoa ere besterik zenez, aipamen zehatz handirik egin.

Alde horretatik Plentziako jardunaldietan eman dio LEF Batzordeak, ondoko bizpahiru urtetan egin gogo duenaren erakuskari, hitz elkartuen banan banako azterketari hasiera. Belokeko erizpide-sortan eta sailkapen-saioan oinarrituz, eta adibidetegiak eskaintzen duen informazioa kontuan izanik, 18 elkarte-motetarik bost landu dira bertan: Beloken erabaki bezala ustez erosoena gerta zitezkeen bostak, hain zuzen; hots, sailkapen-zerrendako XIII, XIV, XV, XVI eta XVII.ak.

Elkartemota horietariko bakoitzaz atal bana eskaintzen da ondoren. Plentziako jardunaldietara talde eragileak gai horietaz aurkezturiko txostenak dira, funtsean, hemengo material hauek<sup>1</sup>: bertan jasotako beste hainbat ohar, ahozko zein idatzizko<sup>2</sup>, kontuan hartu da noski azken idazkuntza hau prestatzera-koan. Talde eragileak osorik bere gain hartzen du halere, kargak arintzearren inoren lepotik jardun gabe, ohar-onarpen eta birmoldaketa horretan legokioken erantzukizun-ardura.

---

1: Salbuespen bakarra XIII. elkarte-motaren (bikoiztapenen) bigarren zatia da: Plentzian ezin aurkeztu izan zen material hori; eta ondoren, bertako hainbat erizpide Talde eragilean galbahetu ondoren, prestatu da bikoiztapenaren atala osorik eman ahal izateko.

2: idatzizkoetan bereziki aipatzea merezi dute, alde horretatik, ondoko txosten hauek:

- . A. Irigoienek "hitz elkarketaz" izenburukoa: geminatu semantikoak (hemengo terminologian tautologiazko dvandvak) eta Peru Abarka elkartemota lantzen dira, batez ere, txosten horretan. Bigarren idazkuntza osatu eta egina ere du, Plentziaz geroztik, egileak.
- . T. Uribe-etxebarriaren idazkia, sinbolismo fonetiko eta hots-uztarduraz.
- . L. Otaegik Astaputz moduko hitz-elkarteez aurkeztutakoa.



### XIII. BIKOIZTAPENAK





**Bikoiztapen** hitzarekin alemanezko **Doppelung**, **Reduplikation**<sup>1</sup>, frantsezko **redoublement**<sup>2</sup>, edota zenbaiten<sup>3</sup> **repeated words** eraikuntza-mota adierazi nahi da hemen.

Ez dira gramatikari guztiak eritzi bereko, bikoiztapenak hitz elkartu diren ala ez direneko auzian. Adibide-pare bat baizik ez aipatzearren, horrela, Whitney-k konposatu (kopulatibo)tzat hartzen dituen artean konposizioaz kanpoko erabide moduan lantzen ditu Brugmann-ek. Aurrerago ikusiko da, bikoiztapen-mota desberdinak aztertzerakoan, kanpokoan artean ezezik etxeko gramatikarien artean ere noraino dirauen auzigai horrek erabakizun. Eztabaida hori alde batera utziaz, bikoiztapenezko hitz-eraikuntzak aztertu nahi dira, atal honetan, halako xehetasun batez.

#### BIKOIZTAPENEZKO ERAIKUNTZEN SAILKAPENA

Belokeko jardunaldian bestelako azpisailkapena proposatu bazen ere, bidezkoago dirudi, ondoren eskainiko diren ezaugarri-markak kontuan izanik, euskal bikoiztapenak atal nagusi bitan banatzea:

- **Ānredita-elkartek:** **etxez etxe, herririk herri, menderen mende, emeki-emeki, astiro-astiro, bazterka-bazterka.**
- **Indargarriak:** **zikin-zikin, gazte-gazte, lasai-lasai; huts-hutsean, barru-barrutik, oso-osorik, bihotz-bihotzez, doi-doi(a); den-dena; berbera.**

Ondoren ikusiko denez, badira atal nagusi biotan ozta-ozta sar daitezkeen kasu berezi batzuk; eta atal bakoitzak azpiatal ugariak ditu, gainera.

Guztiarekin ere, arrazoi sendoak daudela uste izan da atalbiketa hori hasieratik beretik egiteko.

---

1: FLEISCHER, W.: **Wortbildung der deutschen Gegenwartssprache**, Niemeyer, Tübingen, 1975, 250. or.

2: BRUGMANN, K.: **Abrégé de Grammaire Comparée des Langues Indo-européennes**, 1905, 303. or.

3: WHITNEY, W. D.: **Sanskrit Grammar**, 488. or.

ERDAL ERABIDEEKIKO AHAIDETASUNA

Esan berri dena kontuan izanik, banan bana aztertuko da euskal bikoiztapen-mota bakoitzaren erdal erabideekiko ahaidetasuna.

a) Euskal amredita-elkartek badute indiera zaharrea ahaiderik<sup>4</sup>: **kulam-kula**, **dāme-dame** "etxez etxe"; **divé-dive**, **dyávi-dyavi** "egunez egun"; **ékayāi-kayā** "banan bana"; **úttarām-uttarām** "urtez urte" **paraḥ-paraḥ** "hurrenez hurren"?

Baita, hain ugariak ez izan arren, gaur eguneko alemanean<sup>5</sup> ere: **tagtäglich** "egunero-egunero", **wortwörtlich** "hitzez hitz".

Pentsatzekoa litzateke orobat, normalean hitz-elkartearen eremutik kanpora aztertzen badira ere, gaztelaniazko **día a día**, **semana a semana**, **año a año**, **casa por casa**, **ojo por ojo**, **diente por dientes**,... moduko eraikuntzak amredita-elkar-teotatik aski hurbil daudekeela.

b) Indargarrizko elkarteak ere erdal ahaideez aski horniturik daude. Bai lehengo adibideetara joanaz<sup>4</sup> (cf. indiera zaharreko **mahā-mahā** "handi-handi(a)", **eṣaiṣī-**, **eṣaiṣā-** "arin-arin", **alpālpa** "txiki-txiki(a)", **acchāccha** "argi-argi(a)", **dina-dina** "oso zorigaitzez", **nava-nava** "berri-berri(a)", goi-aleman zaharreko **sēlpsēlpo**, **selbselbo** "lat. **ipsipse**" "berbera",...), eta bai hainbat hizkuntza handiren gaur eguneko jokamoldea aztertuz (alemanezko<sup>5</sup> **tief-tief** "sakon-sakon", **grau-grau** "gris-gris", **golden-golden** "urrezko-urrezko",...), ikusten da hori. **Bero-bero** moduko hitz elkartuen arabera euskarak eta Kaukasoko hizkuntzek izan dezaketen ahaidetasunaz ikus, besteren artean, RIEV, III, 522. or.

---

4: Ikus, erreferentzi gisa, ondoko iturriok:

- WACKERNAGEL, J.: **Altindische Grammatik**, 1905, 140-148. orr.
- WHITNEY, W.D.: **Sanskrit Grammar**, 488. or.
- BRUGMANN, K.: **Abrégé de Grammaire Comparée des Langues Indo-européennes**, 1905, 303. or.
- UHLENBECK, C.C.: RIEV XIII, 489-490 orr.

5: Ikus FLEISCHER, W.: **Wortbildung der deutschen Gegenwartssprache**, 250. or.

### XIII.1. ĀMREDITA-ELKARTEAK

Hitz bera, lehenengo aldian bederen hitzarteko morfema batez horniturik, errepikatzen delarik eraturiko hitz-bikoteek osatzen dute, oinarriz, āmredita-elkarteen multzoa: **etxez etxe, tantoka-tantoka.**

#### XIII.1.1. SAILKAPENA

Beren osagaiak nola bikoizten diren kontuan izanik, hiru atal nagusitan bana daitezke āmredita-elkartek:

- āmredita arruntak: **etxez etxe, aurrez aurre, hitzez hitz; behinik behin, kalerik kale; lehenbait lehen; esan(ak) esan;**
- sasi-āmreditak: **apurka-apurka, txandaka-txandaka; emeki-emeki, poliki-poliki; egunean-egunean;**
- āmredita nahasiak: **onez onean; pozaren pozez; egunetik egunera.**

Hiru atal nagusien ondoan aipagarriak dira orobat, itxura osoz bikoiztapen-elkarteetatik kanpora gelditzen badira ere, beste esanbide hauek:

- **zer edo zer, non edo non, noiz edo noiz, behin edo behin; arren eta arren, baietz eta baietz, haize eta haize, keinu eta keinu; zein baino zein, hobeto baino hobeto, ondo baino hobeto.**

Goiko hiru atal nagusien azalpenari ekingo zaio ondoren.

#### ADIBIDEAK:

Ondoren A bidez emango dira hitz-enbor guztiak. Gehienak izenak diren arren, badaude tartean beste kategoria gramatikaletako elementuak ere. Zehaztasunean irabaz zitekeena adinbat gal zitekeela uste izan da bestelako notazioak (**a, n, c,...**) ere sartuz, eta dagoen-dagoenean uztea erabaki da, horregatik, āmrediten atal hau.

- a) āmredita arruntak: **AURREZ AURRE, HITZEZ HITZ, ETXEZ ETXE, MENDEZ MENDE, BEHINIPEHIN, BATIPAT, HERRIRIK HERRI, KALERIK KALE, GOIZEAN GOIZ, LEHENBAIT LEHEN.**

**A(e)z A modukoak:**

- adarrez adar, ahoz aho, airez aire, aldaskaz aldaska, arriskuz arrisku, atez ate, aurpegiz aurpegi, aurrez aurre, auzoz auzo,
- basoz baso, begiz begi, bekoz beko, bidez bide, buruz buru,
- erdiz erdi, erreka erreka, eskuz esku, etxez etxe,
- gainez gain, gauez gau, gizaldiz gizaldi, Gobernuz Gobernu,
- harriz harri, herriz herri, hitzez hitz, hurrenez hurren,
- kalez kale, kaskoz kasko, komertzioz komertzio; landaz landa, larrez larre, lekuz leku,
- mailaz maila, mendez mende, mendiz mendi, momentuz momentu, munduz mundu,
- orpoz orpo, orriz orri; parez pare, pagotegiz pagotegi, puntuz puntu, parez pare, pausoz pauso,
- soroz soro, sukaldez sukalde; tartez tarte, topez tope; zokoz zoko

**A(r)ik A modukoak:**

- adarrik adar; bailerik baile, batik bat (batipat), bazterrik bazter, behinik behin (behinipehin), belaunik belaun, besorik beso
- eskurik esku, etxerik etxe; famarik fama; gizaldirik gizaldi, gizonik gizon; herririk herri, historik hosto; kalerik kale, ordurik ordu; sasirik sasi

**Aren A modukoak:** alderen alde(ra), baten bat?, bienbi(tartean)?, bururen buru, menderen mende, punturen puntu

**Atik A modukoak:** oraindik orain

**A(e)an A modukoak:** goizean goiz, bisean bis

**Abait A modukoak:** lehenbait lehen?

**Aak A modukoak:** arinak arin, besteak beste, eritziak eritzi, joanak joan, entzuna entzun, esanak esan, galduak galdu

b) sasi-āmreditak: APURKA-APURKA, ARRASTAKA-ARRASTAKA, BAZTERKA-BAZTERKA, TARTEKA-TARTEKA, EMEKI-EMEKI, POLIKI-POLIKI, BANAN-BANAN

**Aka-Aka modukoak:** apurka-apurka, arrastaka-arrastaka; barrezka-barrezka, bazterka-bazterka; bueltaka-bueltaka; eiraka-eiraka; geldika-geldika, gutxika-gutxika; lauzurika-lauzurika; saiheska-saiheska; tantoka-tantoka, tarteka-tarteka; txandaka-txandaka; zirika-zirika

**Aki-Aki** modukoak: ederki-ederki, emeki-emeki; poliki-poliki; tinki-tinki

**Ato-Ato** modukoak: polito-polito, ondo-ondo

**A(e)an-A(e)an** modukoak: arian-arian, berban-berban, egunean-egunean, ekinean-ekinean, ezarian-ezarian; herrian-herrian; hilean-hilean; ikusian-ikusian, jaian-jaian; lekuan-lekuan; olgetan-olgetan; tartean-tartean; txandan-txandan; unean-unean, urtean-urtean

**A(e)ra-A(e)ra** modukoak: aurrera-aurrera, (urrutira-urrutira)

**Aero-Aero** modukoak: egunero-egunero, gauero-gauero, jaiero-jaiero, urte(o)ro-urte(o)ro

**A(e)z-A(e)z** modukoak: aldiz-aldiz, berez-berez, egonez-egonez, luzaz-luzaz

**Ana(n)-Ana(n)** modukoak: banan-banan, binan-binan, piskana-piskana

**Anaka-Anaka** modukoak: launaka-launaka, piskanaka-piskanaka, puskanaka-puskanaka

**Aro - Aro** modukoak: astiro-astiro, eztiro-eztiro, emaro-emaro

c) āmredita nahasiak: EKINAREN EKINAZ, ONEZ ONEAN

**A(ar)en A(az)** modukoak: barrearen barreaz, ekinaren ekinaz, esana(re)n esanaz, ibiliaren ibiliz, pozaren pozez (pozagaz), ustelduaren ustelduz

**A(e)z A(e)an** modukoak: onez onean

Bestelakoak: **doian doika**

### XIII.1.2. ĀMREDITAK, KOORDINAZIO- ALA SUBORDINAZIO-ELKARTE?

a) subordinazio edo menpekotasunezko hedapena duen sintagma ororen ezaugarria muinaren burujabetasuna dela esan ohi da. Hori dela eta:

- "Orioko alkateak ongi-etorria eman digu", edo
- "erbi-zakur honekin ez dugu gauza onik"

esaldietan, **Orioko alkateak** sintagmaren muina **alkate** delarik eta **erbi-zakur** elkartearena **zakur**, batean nahiz bestean menpeko elementuak ezabatzen badira (batean **Orioko** eta bestean **erbi-**), esaldia ez da elbarritzen: informazioz urritu egiten da, jakina, Orioko alkatea gauza zehatzagoa bait da edozein alkate baino, eta erbi-zakurra zakur-mota berezi bat; baina informazio zuzena ematen jarraitzen da. Informazio gutxiago, baina zuzena. Sintagma horietako muinaren burujabetasunari esker gertatzen da hori.

b) koordinazio-sintagma batean, aitzitik, muin burujabe bi (edo gehiago), eta ez bat, daudela esan ohi da. Eta, beraz, muin horietako edozein ezabatu arren, besteak, berdin-berdin eusten diola sintagma osoaren izaerari. Horrela:

- "**trenak eta hegazkinak** geldirik daude gaur", edo
- "**neska-mutilen** zalaparta hemendik ere entzuten da"

esaldietan, koordinaziozko sintagma horien osagai bietariko bat (lehenengoa zein bigarrena, berdin du) ezabatu arren, esaldiak zutik dirau: lehen baino informazio gutxiago emango du; baina zuzena. Parez pare daude, kasu honetan, osagai biak: biak dira izen-sintagmaren muin; edota, bestela esanik, muinbiko sintagma osatzen dute.

c) Erizpide horietan oinartuz, **āmredita** elkarteak ere menpekotasunezkoak direla esan al daiteke? Edota koordinaziozkoak? Egin dezagun proba.

#### āmredita arruntak:

- "Sinagogetan judu irakasleek **ahoz aho** irakasten zituzten dotrinak"
- "horrelako gauzak **atez ate** erabiltzearekin hirutatik bat galtzen du"
- "etimologiaren eta erabileraren erizpideak **aurrez aurre** gertatzen direnean"
- "han egiten zen mutilen axeri-dantza, **etxez etxe** arraultze-ebaska eguna bota ondoan"
- "**herririk herri** egia sendoak esanez, puskarik ezin kendu horiei bertsolariz eta gizonez"
- "Holaxe ibili ziren **kalerik kale**, eguerdiarte guztian"

Esaldiotako **āmredita**-elkarteei lehen (edota bigarren) osagaia ezabatzen bazaie, esaldia apurtu egiten da: azken adibideari helduz, adibidez, zer zentzu dauka "Holaxe ibili ziren **kale**, eguerdiarte guztian" perpausak? Bistan dago,

beraz, āmredita arruntak ez direla menpekotasunezko elkarteak. Koordinaziozkoak ote dira, hortaz? Ezta hori ere.

Goian koordinazioaz eta subordinazioaz emandako definizioen arabera, muingabeko eraikuntzak lirатеke hauek. Elkarte osoak, buru-buztan, batasun trinko bat osatzen du, sintagma barneko subordinazio- edo koordinazio-loturaz nekez esplika daitekeena.

#### sasi-āmreditak

- . "gero, **apurka-apurka** den-denak zer eta nola ziren gogoratu nintzen"
- . "hor hasi gara biok **txandaka-txandaka** botila horretatik edaten"
- . "han ikusi nuen Txirrita hori, tabernatik **poliki-poliki** ateratzen"
- . "bai, bai; nik **egunero-egunero** errezatzen dut"
- . "bihotzera sartzen zait **eztiro-eztiro**"

Āmredita-elkarteok koordinaziozkoak dira: osagai bat ezabatzearekin, esanahi aldetiko modifikazioa jasaten du esaldiak, hori bistan dago; baina esaldiak zutik dirau, oinarritz eta funtsean. Goiko bost adibideotan hirugarrenak du, itxuraz, esanahiaren aldetiko aldaketa gogorrena: horrek ere funtsean bere bi-deari eusten dio, ordea.

#### āmredita nahasiak

- "bat baino gehiago zeuden saihetsari oratuta, **barrearen barreaz** arnasa hartu ezinik"
- "**pozaren pozez** bidea arina egiten zitzaien gizonari"
- "**onez onean** konponduko ote ziren alegia"

Itxuraz āmredita arrunten pare-parekoak dira, koordinazio-subordinazio auziari dagokionez, nahasizko elkarteok: muingabeko batasuna osatzen dute, sintagma barneko elkar-harremanak nekez defini daitezkeelarik.

### XIII.1.3. SEMANTIKAZKO ZERTZELADAK

Erdal āmrediten azalpena egiterakoan, nahikoa bat datoz gramatikari gehienak elkarte-moduok berekin omen daramaten esanahi-arrasto nagusiaz: gauza bat behin eta berriro gertatzen (ari) dela adierazteko erabiltzen omen dira



āmreditak, J. Wackernagel-ek dioenez<sup>6</sup>. W.D. Whitney-ren esanetan, indar-ematea eta banakatzea omen da, behin eta berriro-ko giro-agertzeaz gainera, āmrediten semantikazko ardatz nagusia. Brugmann-en eritzia, bestalde, aurrekoenekin zeharo aldendu gabe ere, aski berariazkoa da: gauza edo ekintza baten aniztasuna, jarraipena eta etengabeko aurrerabidea adierazteko erabiltzen omen dira bikoiztapenak.

Zertzelada horiek eta gehiago posible da euskal āmrediten artean aurkitzea: baita horiez gainerako beste batzuk ere, itxuraz. Hiru āmredita-sail nagusiak banan bana aztertuko dira, ondoren, ahal den neurrian bakoitzaren berezitasunak azpimarratuz.

#### A. Āmredita arrunten semantikazko zertzeladak

a) banan bana, batetik bestera dabilen zerbait dakarkigute āmredita arruntek gogora: **adarrez adar** dabilen txoria adar batetik bestera dabil, banan bana, beraz. Berdin **atez ate** diru-eskean datozen neska-mutilak, **bidez bide** doan txorroskileroa, **herriz herri** dabiltzan antzerkilariak, **orpoz orpo** darraion azeria, **pagotegiz-pagotegi** ipinitako langak, **bazterrik bazter** lagunei aurrerabidea ematen dabilena.

b) etengabeko edo, hobe, mugagabeko jarduna adierazten dute esamolde hauek: **larrez larre** dabilen ganadu-jendeak ez du, hartan dabilen artean, jomuga eta pausagune finkorik. Berdin **kalez kale** dabilen turista-taldeak edo **ordurik ordu** zintzarria jotzen duen erloju zaharrak.

c) bada āmredita hauetan, ezaugarri bi horiez gainera, hirugarren marka-seinale nabarmen bat ere: leku-denborazko adierazgaietan mamitzen dira nagusiki, horietan bakarrik ez bada ere, āmredita-elkarteok. Leku batetik besterako jarduna da, itxuraz, ugariena agertzen dena: **herriz herri, etxez etxe, kalez kale, mendiz mendi, adarrez adar, auzoz auzo, erreka erreka, lekuz leku, bazterrik bazter, sasirik sasi, hostorik hosto, sukaldez sukalde,...** Denboraren harian luzatuz doan jarduna ere, bakantxoago agertu arren, maiz isladatzen da,

---

6: Ikus *Altindische Grammatik*, 143. or.

ordea, era honetan: **gau**ez **gau**, **gizaldiz** **gizaldi**, **mendez** **mende**, **ordurik** **ordu**, **urtez** **urte**,...

d) ibili, joan, (-ra) jo, etorri, jarraiki, heldu, igo, eraman, jarri, aurkitu, ikusi aditzen lagungarri gisa agertu ohi dira, beti ez bada ere askotan behintzat, āmredita arrunt horiek.

e) aurreko lau pasarteetan adierazitako ezaugarriak ez dituzte, ordea, āmredita arrunt guztiek betetzen, goiko sailkapeneko lehen bi multzoek baizik. Hots, **A(e)z A** eta **A(r)ik A** modukoek. Badirudi **Aren A** modukoetan ere halako joera antzeko bat edo badagoela. Bestelakoak arras desberdinak dira, ordea, semantikazko zertzelada horien aldetik. Gero ikusiko denez, ez da hori itxuraz inolako kasualitate. Beste āmredita-modu horiek, izan ere, askoz gutxiago izateaz gainera gramatikazko hainbat zertzeladaz (osagaien kategoria, mugatu singularreko lotura-morfema,...) aski bestelakoak dira. Eta āmredita arrunten oinarria eta muina, ondorioz, goiko hiru ezaugarriez adieraziriko elkarte-moduek osatzen dute.

#### B. Sasi-āmrediten semantikazko zertzeladak

a) etengabeko jarduna adierazten dute āmredita-elkarteok ere, aski era nabarmenean: **apurka-apurka** ari denak, **bueltaka-bueltaka** diharduenak ez du zirt edo zarteko ekintza behindabetikorik burutzen, behin eta berrizko saioan aurrera jarraitzen baizik.

b) alde horretatik badute sasi-āmreditok arruntek ez bezalako marka berekin: progresio edo aurrerabide lazo-sotil bat nabaritzen da elkarte hauetariko askotan, pausoz pauso xede bat betetzen ari bailira: **apurka-apurka, gutxika-gutxika, tantoka-tantoka, emeki-emeki, poliki-poliki, arian-arian, astiro-astiro**. Litekeena da, ordea, marka-seinale hau, ondo erreparatzen bada, elkarte-mota honen egiturazko ezaugarriari ez baina kasu jakin horietako hitzen berezko esanahiari zor izatea.

c) edozein kasutan ere, sasi-āmreditok ez dute arruntek bezala, edota ez haien neurrian bederen, banan banako, batetik besterako izaera azpimarratzen. Distribuzio-kutsua haietan baino dezentez gesalduagoa edo ageri da hauetan.

d) leku-denborazko seinale-markak ez dira āmredita hauetan aurrekoetan bezain sendoak. Ez halakorik ez dagoelako, dena dela; aitzitik,

- denbora-kutsu ezin garbiagokoak dira **-ero (-oro)** bukaeradun guztiak: **egunero-egunero, jaiero-jaiero, gauero-gauero.**
- bada **-(e)an** bukaeradunetan ere hartarako joera: **txandan-txandan, egu-  
nean-egunean, hilean-hilean,...**

Egia da ordea, halaz guztiz ere, askoz eremu zabalagoa estaltzen dutela sasi-āmreditek leku-denborazko erreferentzi alorra baino.

#### XIII.1.4. GRAMATIKAZKO IZAERA

Beste hitz elkartuen azalpen-txostenetan bezala, alde bitatik ikuskatu nahi dira, kategoria gramatikalari dagokionez, āmredita-elkartek: osagaien azterketa, batetik, eta elkarte osoarena, bestetik.

##### A. āmredita-elkarteen gramatikazko izaera

a) Terminologiazko nahaspiletan sartzeko arriskua begien bistatik ezin galdurik gabiltzalarik ere, adizlagunak edo adberbio-moduko eraikuntzak direla esan daiteke, oro har eta salbuespen gutxirekin, āmredita-elkartek: bai arruntak eta bai besteak ere.

b) Salbuespenak aipatzerakoan, aski era sendoan idiomatizaturik dauden eraikuntzak dira nagusi: **behinik behin, batik bat.**

##### B. Osagaien gramatikazko izaera

a) Osagaien kategoria gramatikalari dagokionez honako ohar hauek egin daitezke, besteak beste:

- osagai biek hitz-enbor berbera duten kasu guztietan, osagai bien kategoria gramatikala ere beti batekoa izaten da.

- osagai gehienak izenak dira: horrelakoak dira, besteak beste, bai āmredita arrunten oinarria osatzen duten **A(e)z A** eta **A(r)ik A** elkarte-modu guztiak eta bai beste asko ere; āmredita errepikatuetako **A(e)an -A(e)an** moduko guztiak eta **Aka Aka** moduko gehienak, bereziki.

- badira ordea, halaz guztiz ere, adjetiboz (**emeki-emeki** modukoak,...) edo adizkiz (**esanak esan, entzunak entzun**,...) eraturakoak; bai eta --askoz bakanagoak izan arren-- hiru kategoria horietatik kanpora gelditzen direnak ere.

b) Osagaien arteko lotura-bideari dagokionez, badirudi mugagabeko formak direla askogatik nagusi. Horrela:

- **etxez etxe, herriz herri** beti, ez **etxeaz etxe, herriez herri**
- partitibozkoena nahitanahiezkoa da: **kalerik kale**
- orobat deklinabideaz kanpoko atzizkiaz hornituriko guztiak: **apurka-apurka, eztiro-etztiro, binan-binan**,...

Badira, halere, mugatu singular eta pluraleko morfema-marka berekin duten eraikuntzak ere (ikus hasierako adibide-zerrenda).

#### XIII.1.5. BERRELKARKETA EDO GARAPENA

Izenburuak berak aditzera ematen duenez, atal biko hitzak dira, nagusiki, bikoiztapenak. Eta salbuespen nabariak izan ohi dira normalean, horrexegatik, amrediten arteko berrelkarketak.

Berrelkarketa- eta garapen-kasu bakan horietariko adibide batzuk ematen dira ondoren:

- "ura beti **erreka-zuloz zulo** sasi eta hosto tartean zebilek"
- "**etxez-gibelez etxe-gibel**, gatu zehatu bat bezala sartu ninduan etxera"
- "**txilar-tartez tarte** hor beheko zabal horretara joan behar diagu"
- "**ustez ustegabean**, Pottajek sekulako ukabilkada eman zion aurpegian"
- "**kalerik kalerik kale** Tolosa gurean zoraturikan pozez gabiltza lanean"

#### XIII.1.6. HITZ-JUNTURAKO HOTS-ALDAKETAK

Menpekotasunezko beste hainbat hitz-elkartetan ez bezala, ia inolako hots-aldaketarik gabeko hitz-junturak dituzte euskal amredita-elkarteeak. Arau zabal eta zehatza da hau, alor honetako hitz elkartuentzat.

Salbuespenak aipatzekotan, honako hauek aipa daitezke: **behinipehin (behinik behin)**, **batipat (batik bat)** eta, agian (ez bait dago seguru amrediten artekoak direnik), **bizkitartean (biz-bi-tartean)** eta **bi(e)nbitartean**.

### XIII.1.7. EMANKORTASUNA

a) Elkarte-modu emankorra da, oro har, amreditena. Inork ezin debekurik sumatuko du bere baitan, euskararen sena itxuratxarki galdua ez badu behintzat, **kiroldegiz kiroldegi** edo **semafororik semaforo** modukoak sortzeko. Sortu ere sortzen direla esan daiteke, hanka sartzeko arriskurik gabe, han-hemenka entzuten (bakanago, ordea, irakurtzen) denaren arabera.

b) Sortzen diren guztiak edo ia guztiak multzo jakin-jakinetakoak dira, ordea: **A(e)z A** eta, bakanago, **A(r)ik A** modukoak. Hortik gainerakoetan oso zaila da adibide sorberri bakarrik aurkitzea, eta askotan (**goizean goiz, oraindik orain, onez onean,...**) itxuraz ezinezkoa: ez hizkuntzak hartarako egiturazko debekua jartzen duelako, gaur egungo euskaldunen gogo-muinetan erabide horrek eredu- eta erna-indarrik ez duelako baizik.

### XIII.1.8. IDAZKERA

Beste hainbat hitz elkartutan bezala, ez dago, hauetan ere, idaztohitura bateraturik. Euskaltzaindiak ez zuen, gainera, 1971ko bere idaztarauak finkatzerakoan, elkarre-mota honi buruz azalpen espresurik eskaini.

Ohar bi egitea komeni da, halaz ere, arestian esandakoak zuzen jasotzeko:

a) amredita-elkarreak erabiltzerakoan ez da esan nahi idazleen joerak erabat zorizkoak direnik: eskueran erabili den adibideteak lekukotasun sendorik eman dezakeen neurrian, badirudi hainbat puntutan joera jakin batzuk nagusi direla. Ondoren aipatuko da puntu hau xeheago.

b) amredita-elkarreen mantupean eraikuntza-mota aski desberdinak daude, gainera: ez da harritzekoa, ondorioz, sail edo azpisail batean idazkera-mota bat eta bestean beste bat gailen agertzea.

Adibideetan<sup>7</sup> eta, bigarren hau neurtzen askoz zailagoa bada ere, egungo idazlanetan ustez nagusi agertzen diren joerak kontuan hartuz, ondoko proposamen-zerrenda eskaintzen da hemen:

### XIII.1.8.1. Ānredita arruntak

- a) A(e)z A modukoak bereiz idatzi: **etxez etxe, ahoz aho, herriz herri, hitzez hitz, orpoz orpo, parez pare, erdiz erdi, kalez kale.**
- b) A(r)ik A modukoak bereiz idatzi: **bazterrik bazter, sasirik sasi, etxerik etxe.** Salbuespen gisa, **behinipehin** eta **batipat** ere ontzat eman.
- c) A(r)en A bereiz idatzi: **menderen mende, punturen puntu.**
- d) Gainerako ānredita arruntak ere bereiz idatzi: **oraindik orain, goizean goiz, esanak esan; lehenbait lehen** (?) loturik ematea hobe ote?

Arau erraz eta zabala eman daitekeela dirudi, beraz, elkarte-moduontzat.

### XIII.1.8.2. Sasi-ānreditak

Joera nagusia<sup>8</sup> dela dirudi, anredita errepikatuen artean, osagai biak marraz loturik ematea. Hau da, beraz, proposamena:

7: Egia esan, ez da adibideetatik argitasun handiegirik atera. Zoriz egindako laginketa batetik, honako emaitza hauek jaso dira:

- bereiz idatzitako formak: % 54
- marraz idatzitako formak: % 42
- bat eginik idatzitako formak: % 4

Bereiz idatzitako formak nagusi agertu badira ere tarte ez da, berez, handiegia.

8: Sasiānrediten adibideekin egindako laginketan, honako emaitza hauek jaso dira:

- marraz idatziak: % 66
- bereiz idatziak: % 32
- komaz tartekatuak: % 2

- **apurka-apurka, arrastaka-arrastaka, bazterka-bazterka, tarteka-tarteka, emeki-emeki, poliki-poliki, astiro-astiro, banan-banan.**

### XIII.1.8.3. Āmredita nahasiak

Bereiz idazten dira normalean: **ekinaren ekinaz, ibiliaren ibiliz, poza-ren pozez; onez onean; doian doika.**

### XIII.2. INDARGARRIAK

Hitz bat behin edo gehiagotan errepika daiteke, tartean inolako kasu-marka edo hitzarteko beste morfemarik izan gabe: alkondara **zikin-zikina**, ogi **berri-berria**; **zuzen-zuzen** etorri, **lasai-lasai** ibili; **bat-batean** agertu, **isil-isilik** egon, **bakar-bakarrik** jardun, **doi-doi(a)** iritsi, **den-denak** etorri,...

Tarteko morfemarik gabe eraturiko hitz-bikote hauei (berdin hitz-eneko-teei) bikoiztapen indargarriak esaten zaie.

Azaleko erabideari dagokionez, hain elkarren antzekoak izanik ere alde bat dago āmreditetatik indargarrietara: āmreditetan, hitzarteko morfema batez edo bestez jantzia ageri ohi da beti lehen osagaia (**etxeZ etxe, herriRIK herri, menderEN mende; goizEAN goiz, orainDIK orain**); indargarrietan, aldiz, biluzik ageri ohi da beti, lehenengo aldian, hitz bikoiztua (**zuzen-zuzen, oso-osorik; bihotz-bihotzetik, aspaldi-aspaldiko, txiki-txiki** egin).

Indargarritzko bikoiztapen osoa, gainera, kasu-marka edo hitzarteko morfemarik gabe (hots, biluzik) txertatu ohi da batzutan perpausean (**gorri-gorri** jarri zen, **ia-ia** ahaztuta nengoen, Jose ere **hortxe-hortxe** ibiliko da); beste batzutan, aldiz, ohizko kasu-markez edo beste edozein hitzarteko morfemez horniturik (hots, jantzirik) txertatzen dira bikoiztapenok perpausean (**bihotz-bihotzEZ** eskertzen dizut, **mendi-mendiAN** bizi da, **oso-osorIK** nahi luke).

#### XIII.2.1. BIKOIZTAPEN INDARGARRIAK, HITZ ELKARTU?

Bikoiztapenei buruzko atal honen hasieran adierazi denez (ikus 117. or.), kontrako eritziak agertu izan dira, hizkuntzalarien artean, eraikuntza-

-moldeok hitz-elkarketaren alorrean sartzekoak diren ala ez erabakitzerakoan. Bikoiztapen indargarriei dagokienez, hitz elkartuez luze-zabaleko azalpenak emanak dituzten kanpoko gramatikarien artean honako erizpideok plazaratu izan dira, besteak beste, goian aipaturikoez gainera:

- J. Wackernagel-ek (op. cit., 147-148. orr., § 61.) hitz-elkarketaren barnean sartzen ditu, "Adjektivstamm gedoppelt"en atalean.
- W. Fleischer-ek ere (op. cit., 250. or.) hitz elkartutzat hartzen ditu, gaur egungo alemanaren zenbait adibide eskainiz.
- H. Marchand-ek, aldiz, ez die eraikuntza-moldeoi, bere azalpen ugarietan, elkarketa-izaerarik aitortu izan.

Kanpokoetatik etxeoetara aldatuz, bestetik, honako erizpide kontra-jarririk aipa daitezke beste gehiagoren artean:

- R.M. Azkuek ez die eraikuntza hauei, hitz-elkarketaz Morfología Vasca-n emandako azalpenetan bereziki, konposizio-eiterik aurkitu.
- P. Lafittek, aldiz, bai: ikus, besteak beste, bere Grammaire Basque-ko 39. eta 142. orr. Egia da, halere, beste hainbat pasartetan ez duela elkarte-izaera hori espreski adierazten (ikus 86, 91, 154, 417 eta 465. orr.).
- L. Villasantek ez ditu bikoiztapen indargarriak hitz-elkarketaren sailkapen-zerrendan sartzten. Baina ondoren, (PVCD, 43. or.) "orientaciones ortográficas sobre las voces compuestas" izeneko atalean, gainerako hitz elkartuen ondoan ematen ditu bai bikoiztapen indargarriak eta bai amreditak.
- L.M. Mujikak, azkenik, bete-betean hitz-elkarketaren alorrean sartzen ditu bikoiztapen indargarriak: ikus bere Hitz Konposatuak eta Eratorrien Morfofonetika, 42, 43 eta 68. orr.

Kontrako eritzi eta duda-mudazko jarrera horiek ez dira, gehienetan, axalgaineko zertzelada hutsak: hitz-elkarketak sintaxiaren aurrez aurre duen edo behar lukeen status-az hizkuntzalariek dituzten oinarritzko eritzi-desberdintasunak izan ohi dira aitzitik, maiz asko, jokamolde horien iturburu.

Hemen ez goaz ordea, hasieran adierazi zenez, neurri horretako auzi-garbiketara sartzera. Hitz elkartuen alorrean aztertuko dira bikoiztapen indargarriak, nonbait behar eta. Zabalik uzten da halere atea, aztergune egokiagorik aurkituko balitzaie, beste alor batean txertatzeko.



XIII.2.2. SAILKAPENA

Erdara askoren ondoan badu euskarak, aspaldidanik antzeman izan denez, ezaugarri nabarmena: euskal bikoiztapen indargarriak ez dira, haietan bezala, adjetibo (eta, neurri apalagoan, adverbio eta izenordain)etara soilik hedatzen, beste kategoria gramatikal askotara ere baizik. Altzo<sup>9</sup> zenaren hitzetan esateko, "el superlativo absoluto euskérico (de palabra repetida) (...) es propio no sólo del adjetivo o adverbio, sino de todas las partes de la oración y hasta de las mismas oraciones".

Indargarritzko bikoiztapenak perpausaren barnean zer-nolako klase gramatikaletan mamitzen diren kontuan izanik, sei atal nagusitan eman daiteke beraien sailkapena:

- izenondoko adjetiboen eta aditzondo biluzien bikoiztapen indargarriak
- adizlagun, izenlagun eta aditzondo jantzien bikoiztapen indargarriak
- izen-bikoiztapen indargarriak
- adizki-bikoiztapen indargarriak
- zenbatzaile- eta graduatzaile-bikoiztapen indargarriak
- erakusle- eta izenordain-bikoiztapen indargarriak

Sail nagusion ondoan aipagarriak dira orobat, itxura osoz bikoiztapen indargarrien alorretik kanpora gelditzen badira ere, beste esamoldeak:

- perpaus-hasierako bokatibo bikoitzak<sup>10</sup>: **motel, motel; gizona, gizona; ama, ama; A Txomin, Txomin.**

Goiko sei atal nagusien, eta beraien azpiatalen, azalpenari ekingo zaio ondoren.

---

9: ALZO, Fr. Diego J. de: **Estudio sobre el Euskera Hablado**, Graf. Izarra, Donostia, 1961.

10: Ikus WACKERNAGEL, J.: op. cit., 144. or.

ADIBIDEAK

**XIII.2.2.1. Izenondoko adjetiboen eta aditzondo biluzien bikoiztapen indargarriak:** BEHAR-BEHAR, BEL(TZ)-BELTZ (BEZ-BELTZ), BERRI-BERRI, BIZI-BIZI, ON-ON; BERDIN-BERDIN, DOI-DOI, GARBI-GARBI, LASAI-LASAI, ZUZEN-ZUZEN.

a) **Izenondoko adjetiboen bikoiztapena:** agiri-agiri, alfer-alfer, apal-apal, argi-argi, arin-arin, barren-barren, behar-behar, bel(tz)-beltz, berde-berde, berdin-berdin, berezi-berezi, bero-bero, berri-berri, bete-bete, bigun-bigun, bizi-bizi, doi-doi, eder-eder, egoki-egoki?, erne-erne, erraz-erraz, estu-estu, ezti-ezti, fin-fin, flako-flako, garbi-garbi, gazte-gazte, gehien-gehien, gordin-gordin, gori-gori, gorri-gorri, gozo-gozo, handi-handi, harro-harro, heldu-heldu, hil-hil, hilkor-hilkor, hori-hori, huts-huts, ilun-ilun, isil-isil, itsusi-itsusi, itxi-itxi, jator-jator, kamuts-kamuts, kaskar-kaskar, kiskur-kiskur, lagun-lagun, larri-larri, lehor-lehor, leun-leun, lodi-lodi, luze-luze, maite-maite, mami-mami, mantso-mantso, medar-medar, mehe-mehe, mikatz-mikatz, motz-motz, oker-oker, on-on, ondu-ondu, oso-oso, pisu-pisu, polit-polit, puru-puru, sakon-sakon, santu-santu, soil-soil, sutsu-sutsu, triste-triste, txiki-txiki, urdin-urdin, ugari-ugari, zabal-zabal, zahar-zahar, zail-zail, zintzo-zintzo, zoli-zoli, zuri-zuri, zuzen-zuzen.

b) **aditzondo biluzien bikoiztapena:** adi-adi, alai-alai, alde-alde, antzina-antzina(n), apain-apain, apal-apal, arin-arin, artez-artez?, aurki-aurki?, baju-baju, baratxe-baratxe, bare-bare, berde-berde, berdin-berdin, bero-bero, bete-bete, beti-beti, bigun-bigun, bizi-bizi, busti-busti, doi-doi, egoki-egoki?, erne-erne, erraz-erraz, estu-estu, garbi-garbi, geldi-geldi, gora-gora?, gordin-gordin, gorri-gorri, gozo-gozo, haia-haia, harro-harro, heze-heze, hola-hola, hortxe-hortxe, hotz-hotz, hurbil-hurbil, ia-ia, jator-jator, justu-justu, kartsu-kartsu, kontra-kontra, labur-labur, larri-larri, lasai-lasai, lehenen-lehenen, lerdin-lerdin, lerro-lerro, luze-luze, makur-makur, maltzur-maltzur, mantso-mantso, naro-naro, oker-oker, ozta-ozta, piko-piko?, samur-samur, seguru-seguru, triste-triste, txukun-txukun, urdin-urdin, xehe-xehe, zabal-zabal, zain-zain, zehar-zehar?, zelai-zelai, zintzo-zintzo, ziur-ziur, zomorro-zomorro?, zoro-zoro, zuzen-zuzen, zuri-zuri.

**XIII.2.2.2. adizlagun, izenlagun eta aditzondo jantzien bikoiztapen indargarriak:** ALDE-ALDEAN, BAT-BATEAN (BAPATEAN), BETE-BETEAN, ERDI-ERDIAN, BI-

HOTZ-BIHOTZEZ, HASIERA-HASIERATIK; BETI-BETIKO, EDADE-EDADEKO, BARRU-BARRUKO; BAKAR-BAKARRIK, HUTS-HUTSIK, ISIL-ISILIK, OSO-OSORIK, DOI-DOIA, BANA(N)-BANAKA.

Azalpenari ekin aurretik, terminologiazko ohar txiki bat egin nahi da. Azken urteotan gorpuztuz doazen erizpideak<sup>11</sup> kontuan hartuz, eta eskuartean ditugun aztergai konkretuak gogoan izanik, ondoko era honetan bereizten dira adizlagunak aditzondoetatik, eta azken biok izenlagunetatik:

- **adizlaguna:** kasu-marka hauetariko batez hornituriko izen-sintagma:  
**(e)(t)AN, (e)(ta)TIK, (e)(ta)Z, (e)(ta)RA(ino);**
- **aditzondo jantzia:** kasu-marka edo hitzarteko morfema hauetariko batez hornituriko izen-sintagma: **(r)IK, (e)TA, A, AK, KA, KARA, KI, RO;**
- **izenlaguna:** adizlaguna edo aditzondoa, **KO** morfemaz osatua.

#### a) adizlagun-bikoiztapenak

a.1. **bikoiztapena + (e)(t)AN:** ageri-agerian (agiri-agirian), aho-ahoan, albo-alboan, aldapa-aldapan, alde-aldean, aldratxo-aldratxoetan, amezkil-amezkiletan, atari-atarian, aukera-aukeran, aurre-aurrean, aurren-aurrenean, axal-axalean, azal-azalean, azken-azkenean, azpi-azpian, bake-bakean (pake-pakean), bat-batean (bapatean), bet-betan, barren-barrenean, barru-barruan, bazter-bazterrean, behar-beharrean, behe-behean, behingo-behingoan?, belarri-belarrietan, bene-benetan (cf. ben-benaz), berrri-berritan, bete-betea, bihotz-bihotzean, bista-bistan, buru-buruan, erdi-erdian, epel-epeletan, ero-eroan, erre-errean, estu-estuan, ete-etea?, etsi-etsian, gain-gainea, galda-galdan, garbi-garbian, garerdi-garerdian, gau-gauean, gihar-giharrean, goi-goian, goiz-goizean, goren-gorenean, gutxi-gutxitan, haserre-haserrean, haur-haurrean, hein-heinean, hotz-hotzean, hur(re)-hurrean, huts-hutsean, isil-isilean, ito-itoan, itsu-itsuan, izkina-izkinan, justu-justuan, kantoi-kantoiari, kasko-kaskoan, larre-larrean, lehen-lehenean?, lore-lorean, men-menean, mendi-mendian, min-minean, multzo-multzoan, ondo-ondoan, oso-osoan, pake-pakean (cf. bake-bakean), pare-parean, patxada-patxadan, punta-pun-

---

11: Ikus EUSKALTZAINDIA (Gramatika Batzordea): **Euskal gramatika: Lehen urratsak**, Euskaltzaindia, Bilbo, 1985.

tan, sakon-sakonean, senti-sentian, txoko-txokoan, ume-umetan, une-  
-unean, urrun-urrunean, zori-zorian, zuzen-zuzenean.

a.2. **bikoiztapena + (e)(ta)TIK**: alde-aldetik, altzo-altzotik, antzina-antzina-  
tik, arima-arimatik, aurre-aurretik, aurren-aurrenetik, azal-azaletik,  
barne-barnetik, barren-barrenetik (barren-barrendik), barru-barrutik,  
bero-berotik, berta-bertatik, beso-besotik, bihotz-bihotzetik, erdi-er-  
ditik, erro-errotik, gain-gainetik, gazte-gaztetatik (gazte-gaztetan-  
dik), goi-goitik, goiz-goizetik, hasiera-hasieratik, haste-hastetik,  
hurbil-hurbiletik, hurbil-hurbildik, huts-hutsetik, inguru-ingurutik,  
kerizpe-kerizpetatik, lehen-lehenetik, lepo-lepotik, orpo-orpotik, txi-  
ki-txikitatik (txiki-txikitandik).

a.3. **bikoiztapena + (e)(ta)Z**: amorru-amorruz, bat-batez (bapatez), ben-benaz  
(cf. bene-benetan), bihotz-bihotzez, poz-pozez, zin-zinez.

a.4. **bikoiztapena + (e)(ta)RA(ino)**: alde-aldera, bat-batera (bapatera), etxe-  
-etxeraino, gain-gainera, goi-go(i)ra, goi-goietara, goren-gorenera,  
itsu-itsura, men-menera, moda-modara, ondo-ondoraino, zoko-zokoetarai-  
no.

#### b) aditzondo jantzien bikoiztapenak

b.1. **bikoiztapena + (r)IK**: alfer-alferrik, apal-apalik, aurren-aurrenik, bakar-  
-bakarrik, barau-baraurik, batu-baturik, bete-beterik, bigun-bigunik,  
bildu-bildurik, bizi-bizirik, etsi-etsirik, estu-esturik, garbi-garbi-  
rik, gazte-gazterik, geldi-geldirik, goiz-goizik, gozo-gozorik, hotz-ho-  
tzik, huts-hutsik, ilun-ilunik, isil-isilik, itsu-itsurik, lehen-lehe-  
nik, leun-leunik, motz-motzik, oso-osorik, poz-pozik, puztu-puzturik,  
soil-soilik, umil-umilik, zabal-zabalik, zimel-zimelik, zoro-zororik,  
zorrotz-zorrotzik, zut-zutik (zutin-zutinik), zuzen-zuzenik.

b.2. **bikoiztapena + (e)TA**: bete-beteta (cf. bete-beterik).

b.3. **bikoiztapena + A**: aurren-aurrena, bero-beroa, bizi-bizia, busti-bustia??,  
doi-doia, ezti-eztia, mehe-mehea, gehien-gehiena, geldi-geldia, gori-go-  
ria, gorri-gorria??, isil-isila, kexu-kexua, luze-luzea, oso-oso, pres-  
t(u)-prest(u)a, trankil-trankila, umil-umila, usu-usua, zabal-zabala,  
zalu-zalua, zuri-zuria, zut-zuta.

- b.4. **bikoiztapena + AK:** beldur-beldurrak (nago).
- b.5. **bikoiztapena + KA:** arin-arinka, bana(n)-banaka, bat-banaka, bilo-biloka<sup>12</sup>, bira-biraka, geldi-geldika, gora-goraka, laster-lasterka, magal-magalka, maite-maiteka, tiro-tiroka, txalo-txaloka, txingo-txingoka, zaunk-zaunka.
- b.6. **bikoiztapena + KARA:** zalu-zalukara.
- b.7. **bikoiztapena + KI:** leun-leunki, malgu-malguki, mehe-meheki, soil-soilki, umil-umilki, xehe-xeheki, zin-zinki.
- b.8. **bikoiztapena + RO:** geldi-geldiro.
- c) **izenlagun-bikoiztapenak:** albo-alboko, agiri-agiriko, alfer-alferriko, antz-antzeko, antzina-antzinako, aspaldi-aspaldiko, aurre-aurreko, auzo-auzoko, azken-azkeneko, bat-bateko (bapateko), barru-barruko, begi-begiko, behar-beharreko, behar-beharreneko, behar-beharrezko, bene-benetako, berdin-berdineko, bete-beteko, beti-betiko, bihotz-bihotzeko, erdi-erdiko, edade-edadeko, egi-egitazko, gain-gaineko, gau-gaueko, gaur-gaurko, gertu-gertuko, gogo-gogoko, mami-mamiko, mendi-mendiko, moda-modako, neurri-neurriko, orain-oraingo (orai-oraiko).

#### XIII.2.2.3. Izen-bikoiztapen indargarriak: EGI-EGIA, AITON-AITONA.

egi-egia, herri-herri, aiton-aitona, ale-ale (batzuk), erdi-erdi, flore-flore, gezur-gezur, marinel-marinel.

#### XIII.2.2.4. Adizki-bikoiztapen indargarriak

ASPER-ASPER EGIN, ASTIN-ASTIN EGIN, ZAIN-ZAIN EGON, BEGIRA-BEGIRA JARRI; DAGOEN-DAGOENEAN.

---

12: Euskal bikoiztapen-molde honek sanskritoko **keçākeçi**, **kacākaci**, **dantādanti** eta antzeko formekin omen duen antzekotasun psikologikoaz ikus UHLENBECK, C.C.: RIEV XIII, 489-490 orr.

asper-asper egin, astin-astin egin, neka-neka egin, basa-basa egin, apur-  
apur egin, txiki-txiki egin, txalo-txalo? egin, lo-lo? egin, zapal-zapal  
egin, zati-zati egin, zuri-zuri egin, garbi-garbi egin, harro-harro egin;  
zain-zain egon, zirin-zirin egon, giro-giro dago; adi-adi jarri, begira-be-  
gira jarri, begira-begira gelditu, maite-maite izan, bildur-bildur izan,  
lohi-lohi utzi.

#### **XIII.2.2.5. Zenbatzaile- eta graduatzaile-bikoiztapen indargarriak:**

DEN-DEN(A)(K), BATZU-BATZU(EK), BI-BIAK, ASKI-ASKI.

a) Zenbatzaileen artean orokorrak, zehaztugabeak eta zehaztuak banan  
bana aztertuz, ondoko multzo hauek dira, batez ere, aipatu beharrekoak:

**zenbatzaile orokorren bikoiztapenak:** den-den(a)(k), guzti-guzti(a)(k), gehien-  
-gehien(ak).

**zenbatzaile zehaztugabeen bikoiztapenak:** asko (eta) asko, asko-askotan, batzu-  
-batzu(ek), gutxi-gutxi.

**zenbatzaile zehaztuen bikoiztapenak:** bat-bat, bi-biak (bi-biok), bost-bost(e-  
tan), hamar-hamar(retan), hamabi-hamabi(e)(tan).

b) Graduatzaleei dagokienez, azkenik, adibideak are urriago izanik  
ere, ondokoak gogora ekar daitezke:

**graduatzale-bikoiztapenak:** arras-arras, aski-aski, oso-oso.

#### **XIII.2.2.6. Erakusle- eta izenordain-bikoiztapen indargarriak**

BERBER(A), GEURE-GEURE.

bere-bere, geure-geure, gure-gure, berber(a).

#### **XIII.2.3. INDARGARRIAK, KOORDINAZIO-ELKARTE?**

Goian (ikus XIII.1.2. puntua) adierazitakoaren arabera, nekez esan li-  
teke indargarrizko bikoiztapenek subordinazio-elkartek sortzen dituztenik: are

gehiago, ezker-hedapenezko eraikuntzak direnik ere arras zalantzazkoa da, gutxienez.

Duda-muda gehiago sortzen da aldiz, koordinazio-elkarteei emandako definioaren arabera, indargarrizko bikoiztapenak koordinaziozko eraikuntzak diren ala ez argitzerakoan. Bistan dago, alde batetik, osagai nagusi eta menpeko hedapenik apenas dagoela indargarrizko elkarteotan: koordinazio-elkarte baten eitea dute beraz, alde horretatik, bikoiztapen hauek.

Badirudi ordea, halaz guztiz ere, "koordinazio" kontzeptuak bere baitan daramala, barren-barreneko bere gibel-erraietan itsatsirik eraman ere, indargarrizko bikoiztapenetan inondik ageri ez den marka-arrastoa: koordinazio-bideak unitate (gehienetan hitz) desberdin bi uztartzen ditu. Ez du, alegia, unitate (hitz) bera bikoizten.

Hortik datorke, beraz, eraikuntza-molde honi ere, sasi-āmreditei bezala, hedapen-osaera aldetiko status berezia aitortu beharra: koordinazio-elkarteen antza dute bikoiztapen indargarriek, ezer baino gehiago; baina ohi ez bezalako koordinazio-bidea da, halere, eraikuntza hauena.

#### XIII.2.4. SEMANTIKAZKO ZERTZELADAK

Indargarrizko bikoiztapena hitz baten forma superlatiboa adierazteko modu bat dela esan ohi da. I. Lopez Mendizabalen<sup>13</sup> hitzetan esateko, 'muy se forma también repitiendo el adjetivo: **zuri-zuria** da, es muy blanco. (...). El castellano **-ísimo** se traduce por esa repetición: **garbi-garbia**, limpiísimo". Are gehiago ere dio Azkuek<sup>14</sup>, bikoiztapen hauezaz ari delarik: "por **buenísimo** o **muy bueno** decimos **txit ona, txito ona, latz ona, agitz ona, ezinago huna, guztiz ona, oso ona, on-ona...** De estos superlativos, el más en boga es, por lo general, el último, habiendo muchas personas que repiten varias veces la palabra".

13: LOPEZ MENDIZABAL, I.: **La Lengua Vasca**, Ekin, Buenos Aires, 1943. Hemen erabili den argitalpena Auñamendiren 1977koa da. Ikus 80. or.

14: AZKUE, R.M. de: "Morfoloía Vasca", in: **Euskera**, 1923-25, 219. or.

Behin eta berriro adierazia digute euskal gramatikariek superlatibo-sorkuntzarako baliabide honen nondik norakoa: XIX. mendeko L. Gèze<sup>15</sup> eta Ithurry-ren<sup>16</sup> argibideez gainera funtsezkoak dira, alde horretatik, P. Lafitte<sup>17</sup> eta, batez ere, D. Alzoren<sup>18</sup> idazlanak.

Azken hiruron definizioaz baliatuz, superlatibo absolutuak sortzen dira euskarazko bikoiztapenez. Erabateko superlatibook hiru maila edo gradu izan omen ditzakete, gainera, Alzok<sup>19</sup> dioenaren arabera: **muy elevado, elevadísimo** eta **extraordinariamente elevado**. Horrela, bikoiztapenei dagokienez:

muy elevado: on-ona, bizi-bizia

elevadísimo: on-on-ona, bizi-bizi-bizia

extraord. elevado: on-on-on-ona, bizi-bizi-bizi-bizia

Mailaketa hirukoitz horren punttuz punttuko balio-indarra norainokoa den alde batera utziaz badirudi aski egokia dela, hainbat kasutan behintzat, indargarrizko bikoiztapenei egotzi ohi zaien superlatibo-tasun hori. Demagun, horrela, honako adibide-sail hau:

- aurpegia, paparra eta eskuak bel-beltzak zeuzkan
- arto-jorrara noa lur berri-berrira
- batzuk bagenituen fin-finak, eskatutakoa txintxo egiten zutenak
- badira guraso batzuek alfer huts-hutsak
- ezpainak durdo-durdo, haginak zuri-zuri eta kiskur-kiskur ilea
- jan sendo neure maite-maiteak, errukia da galtzea
- geroztik probatu dut eta mikatz-mikatz da
- on-onak, esan nahi nuke, ale-ale batzuk daude orain ere...

---

15: GÈZE, L.: **Eléments de Grammaire Basque**, Baiona, 1873, 41. or.

16: ITHURRY: **Grammaire Basque**, Baiona, 1895, 36 eta 424. orr.

17: LAFITTE, P.: **Grammaire Basque**, Donostia, 1979<sup>2</sup>: ikus 39, 86, 91, 142, 154, 417 eta 465. orr.

18: ALZO, D.: "El superlativo absoluto en el Euskera Hablado", in: **BRSVAP**, 8, 239-257. orr.

-- **Estudio sobre el euskera hablado**, Donostia, Izarra, 1961, 181-194 orr.

19: ALZO, D.: **Estudio sobre el euskera hablado**, Donostia, Izarra, 1961, 181. orr.



- papera bastante haundia. Letra txiki-txikia
- gure bide-zanja hura, mendi-hegalean, zuzen-zuzena zen
- bitartean, egia esan, ni adi-adi egoten nintzaion
- guardia egiten geunden, erne-erne noski, punta-puntan bait ginen
- nik erbiarena jator-jator esan nion
- Ermitaren barruan bazeuden hamar bat lagun, lasai-lasai etzanda
- Ez dakit seguru-seguru Arranbide edo Añarbe esan zidan
- Etxean zain-zain zeuden
- Zuzen-zuzen bere jomugara doa eta amore eman baino hautsi nahiago du
- Pake-pakean bere bidean utzi genuen
- Ez jolasean, baizik bene-benetan diot
- Ezari-ezarian, halere, Orixeren maitasuna epeldu egin zen gudan
- Itsasoaren ondo-ondoan Artzu errota da
- Gosari hori egin ondoren, bakar-bakarrik igo nintzen
- Nahi duzuen egin nerekin, gaur behinpehin sabela bete-beterik zeukat eta
- Isil-isilik dago, kaia bazterrean
- Sarigan mendia oso-osorik gure eskuetan geratu zen
- Gehien-gehiena egiten zutena hori zen
- Etxeberriak erdi-erditik asmatu zuen
- Zoazte isil-isilik ondo-ondoraino
- Menu hauetako bazkari-afariak ez dira, batzuek behinpehin, gain-gainekoak
- Den-denak airean lehertzen ziren; rompedoras izena zuten
- Guk, guzti-guztia ikusten genuen
- Liburu honek ere bilduma horri zor dio gehien-gehiena
- Hango euskaltzaleengandik oso-oso urruti zegoen.

Zaila gertatzen da, ordea, kasu guztietan halako superlatibo-zentzurik aurkitzea. Ondoko adibideotan, horrela, badirudi zehaztasuna edo benetakotasuna dela, superlatibo-kutsua baino areago, indargarrizko bikoiztapenek pizten duten esanahia:

- nere amona Xenpelarren edade-edadekoa zen eta auzo-auzokoa gainera
- gauaren mendean bat bihurtzen dira ezin bakanduaz: orduan naiz bat-bat ni
- esan beharrik ez pozez gainezka irakurri ditudala bi-biok
- gure-gureak ditugu, Euskal herriko baserrietatik mundura jalgiak
- horixe berbera gertatu zitzaigun egun hartan
- hobe izango dugu dagoen-dagoenean uztea
- dauden-daudenean ematerik ez dago

H. Urtel-ek<sup>20</sup> egin zuen bere aldetik, euskal bikoiztapenez ari zelarik, superlatibozko eta zehaztasun-benetazko formen arteko mugarriztapen-saioa. Ez dirudi, ordea, C.C. Uhlenbeck-en erantzuna<sup>21</sup> lekuko harturik, saio horrek garai-ko espezialisten artean onarpen zabalik jaso zuenik. Bien artean muga zehatzak jartzeko zailtasuna da, itxuraz, jarrera ezezkorraren eragile nagusia. Uhlenbeck-en beraren hitzetan<sup>22</sup> esateko, "sobre la distinción de reduplicación superlativa y "Doppelsetzung zur Bezeichnung der Genauigkeit, der Gründlichkeit, der Güte einer Sache oder eines Tuens" podemos observar que es imposible trazar entre ellas una línea divisoria decisiva". Egokiago dirudi, guzti horregatik, superlatiboaren edo zehaztasunaren arteko auzi-garbiketarak alde batera utziaz, erdal bikoiztapen-moduoz jarduterakoan kanpoko hainbat gramatikan erabiltzen duen Verstärkung<sup>23</sup> edo indargintza-z hitz egitea. Horregatik esan ere zaie indargarriak, Echaidek adierazitako supra-intensivo<sup>24</sup> hartara hurbilduz, atal honetako bikoiztapenei.

Badago, azkenik, bikoiztapen hauen semantikazko zertzeladak azaltzerakoan aipatzea komeni den beste muga-arazo bat ere: bikoiztapen indargarrien eta sasi-ämrediten artekoa. Gorago esan denez, ämrediten eta indargarrien artean, erdibidean edo, daude hainbat kontutan sasi-ämreditak. Esanahiaren aldetik ere

---

20: URTEL, H.: "Zur baskischen Onomatopoesis", in: **Sitzungsberichte der preussischen Akademie der Wissenschaften**, 1919, XIII.

21: UHLENBECK, C.C.: **RIEV**, XIII. 489-490. orr.

22: id., *ibid.*

23: Ikus honetaz, besteren artean, ondoko jakiniturriok:

a) GRIMM, J., **Deutsche Grammatik**. 2.t. Neuer Vermehrter Abdruck, 1878, 657. or.

b) WACKERNAGEL, J.: **Altindische Grammatik. II. 1. Einleitung zur Wortlehre**, Göttingen, 1905, 147. or., § 61, a). Hona zer dioten pasarte horretan: "Unabhängig vom Ämreditatypus und in Bedeutung und Akzent davon abweichend ist die Verdopplung eines Adjektivstamms um dessen Begriff zu **verstärken**".

c) FLEISCHER, W.: **Wortbildung der deutschen Gegenwartssprache**, Niemeyer, Tübingen, 1975, 250. or. Honela dio berak: "Doppelsetzung des gleichen Adjektivs zum Zwecke der expressiven **Verstärkung**".

24: ECHAIDE, I.M. de: **Tratado de sufijación, prefijación y composición en el idioma euskaro**, 1931<sup>2</sup>. "Pronombre personal supra-intensivo" deitzen dio bertan (23. or.), Echaidek, "berbera"ri.

bada elkarren pegante egote horren oihartzunik; non eta nola jarri, izan ere, balio semantikoari dagokionean, ondoko elkarte-bikoteon arteko mugarriak?:

- "~~dauden-daudenean~~ utzi gauzak eta goazen", baina "~~dabiltzala-dabiltzala~~ ordubata hor jo die"
- ~~txalo-txaloka~~, baina txaloka-txaloka
- ~~eme-eme~~, baina emeki-emekiki.

Zailtasunak zailtasun, bidezkoa dirudi oro har indargarrien semantikazko giltzarria intentsitatean, eta *ām*reditena behin eta berriro-tasunean, dagoela esatea. Eta ondorioz, segun esanahi bat ala beste gailendu, horrela sailkatu ere daitezke elkarte-moduok, hutsegite larririk gabe gehienetan, bikoiztapenen atal batean edo bestean.

#### XIII.2.5. GRAMATIKAZKO IZAERA

Hemen ere berez bere aztertuko dira bikoiztapenaren osagai-atalen kategoria gramatikalak, batetik, eta, bestetik, bikoiztapenok bere osotasunean izan ohi dutena.

##### XIII.2.5.1. Osagaien gramatikazko izaera

Erdarazko bikoiztapen indargarriez jarduterakoan, osagai bikoiztua adjetibo dela esan ohi dute, gehien-gehienetan, haien berri demaiguten gramatikariek: "Verdopplung eines Adjektivstamms" dio Wackernagel-ek, eta Fleischer-ek "Doppelsetzung des gleichen Adjektivs". Adberbio-bikoiztapenez aipamen gutxiago egin ohi da, eta gainerakorik ez da ia aipatu ere egiten.

Euskaraz ez dago halako muga esturik: kategoria gramatikal askotara zabaltzen da gure artean indargarritzko bikoiztapena, eta ez adjetiboetara bakarrik. Altzoren<sup>25</sup> esanean, "el superlativo euskérico (de palabra repetida) es propio no sólo del adjetivo o adverbio, (...) sino de todas las partes de la oración y hasta de las mismas oraciones".

---

25: "El superlativo absoluto...", 239. or.

Erizpide hori burutik burura onartzeak eragozpen bat baino gehiago sor badezake ere, arrazoi du funtsean Altzok, indargarrizko bikoiztapenak aski kategoria gramatikal desberdineko osagaiez egiten direla esatean. Txosten honen XIII.2.2. puntuan, indargarrien sailkapena egiterakoan, emandako zerrenda bera aski argigarria da, kategoria gramatikal horien ugaritasunaz jabetzeko: izenak, izendoko adjetiboak, aditzondoak ("biluzi" zein "jantziak"), adizlagunak, izenlagunak<sup>26</sup>, zenbatzaileak, graduatzaileak, erakusleak eta izenordainak.

Ohar batzuk egin beharrekoak dira, dena dela, ugaritasun-kontu horri bere goi-beheak hartzeko.

a) hitz-enbor (edo, gutxiagotan, hitz-erro) berbera da, normalean, errepikatzen dena: **zuri-zuri(a), arin-arin, ia-ia, astin-astin (egin), gehien-gehien(ak)**. Lehenengo osagaia adjetiboa bada, adjetiboa (eta adjetibo berbera) da beraz bigarrena ere, lehenengoa zenbatzailea bada zenbatzailea (eta zenbatzaile berbera) bigarrena, eta abar. Delako hitz-enbor bikoiztu hori biluzik ageri ohi da batzutan, bukaeran kasu-markarik gabe, alegia: **on-on(a), egi-egia, adi-adi (jarri), den-den(ak)**. Beste batzutan jantzirik agertu ohi da aldiz; hots, kasu-marka edo hitz-osatzaile batez horniturik bukaeran: **pake-pakeAN, barru-barruTIK, alfer-alferrIK, aspaldi-aspaldIKO**.

Bada, dena dela, arau nagusi horietara ere nekez biltzen den formarik: **dauden-daudenean, banan-banaka, bat-banaka,...**

b) Euskarari dagokionez hainbat aldiz aipatu izan den zailtasuna<sup>27</sup>, adjetiboen eta substantiboen artean bereizketa garbia egiteko, aski nabarmeha da

---

26: Oso zentzu zabalean erabiltzen da hemen, bistan denez, kategoria gramatikalararen esanahia. Bestela nekez sartu ahal izango bait lirateke, beste gehien pare-parean bederen, berez bestelako unitate gramatikalak diren izenlagun-adizlagunak "kategorien" zakuan.

27: Substantibotik adjetibora eta adjetibotik substantiborako euskal transfer bereziaz ikus, besteak beste, L. Mitxelena in *FLV*, 2. zkia, 68. or., eta P. Lafitte, *Grammaire Basque*, 41. or., "derivation impropre"az diharduelarik: "beaucoup de mots sont difficiles à classer: ainsi gose (...), egarri (...), nahi (...), argi (...), ezti (...), behar (...)". Askia adierazgarria da, bestalde, erdal ereduena bila abiatzekotan, Wackernagel-ek (*AG*, 1. or.)

bikoiztapen-kasuotan ere. Zenbait kasutan ez da erraza bikoizturiko hitza izena ala adjetiboa den esatea. Hori baino gehiagotan gertatzen da, halere, bikoizturiko hitzak, izen-izena izanik ere, halako adjetibo-kutsu bat jasotzea. Horrela, goiko sailkapenean izen-bikoiztapen moduan eman diren adibide bakanak<sup>28</sup> beren testuinguru zehatzean kokatuz,

- bera aiton-aitona ezagutu nuen nik
- Hasieratik honainokoa, guztia da egi-egia
- Marinel-marinela ez ziren, hortik bizi zirenak
- OLERKI herri-herriarentzat ez delako
- legez eta bidez nereak dira horien erdi-erdiak
- aldrebeskeria edo gezurra ez, baina egi-egia esan zuen

bikoiztapen horietariko gehienak atributu- (bakanago predikatibo-) lanean ari direla ikusten da. Eta horrek demaioke, ezerk ematekotan, delako kutsu hori.

c) Adjetiboen eta substantiboen muga-arazo horiek baino zabal-ugaria-  
goak dira, halere, adjetiboen eta adverbioen artekoak. Zehatzago esanez, adjeti-  
boen eta aditzondo biluzien artekoak. Lexema berbera da, gehienetan, atal batean  
eta bestean ageri dena. Horrela, batetik "berde-berdea izaten zuen kolorea" eta  
bestetik "gari-soro galantak badaude berde-berde, lurra justu-justu tapatzen  
dutela" perpausak aurrez aurre ditugula, edota batetik "bere beso luze-luzeak  
honaino iristen ziren" eta bestetik "korrika joan eta bere ondoan luze-luze  
etzanda jarri nintzen" konparatzean, erraz antzematen da bien arteko aldearen  
lausoia. Perpausean funtzio-lan desberdinean ari direlako gehiago da zatibiketa  
hori, beraien funtsezko ezein berezitasunengatik baino.

---

indiera zaharraz dioena: "Die Kategorien Substantiv und Adjektiv stehen ei-  
nander nicht so scharf gegenüber wie im Deutschen, sondern das Verhältnis  
ist ähnlich wie in den klassischen Sprachen".

28: Inoiz bestelakorik iradoki bada ere, aitaita eta amama ez dira bikoiztapen  
indargarritzat hartu. Badirudi halakoetan aleman zaharreko Sunssun, Tochter-  
tochter edo orainagoko Helfershelfer, Kindeskind, Zinseszins modukoetatik  
hurbilago gaudekeela. Eta, kasu honetan (Fleischer, 236. or.), zuzenago li-  
rudike eraikuntzok **Eguzki-lore** sailean sartzea.

d) Ia edozein kategoria gramatikal eta perpaus-zatitan indargarrizko bikoiztapenak eratzen badira ere, ez dira denetan ugaritasun berdinez sortzen. Ugarienak, askogatik ere, ondoko bi multzo nagusiotakoak dira:

- izenondoko adjetiboak eta aditzondo biluziak
- adizlagun eta aditzondo jantziak.

### XIII.2.5.2. Eraikuntza osoaren gramatikazko izaera

Osagaien pare-pareko kategoria gramatikala izan ohi dute, askotan, indargarrizko bikoiztapenek. Horrela:

a) izenez osaturikoak izen dira, XIII.2.5.1.eko b) atalean esandako muga-baldintzen barnean

b) izenondoko adjetiboz osaturikoak adjetibo izaten dira, bestalde, hainbat kasutan: alkondara **zikin-zikina**, tximini zulo **bel-beltza**, mutiko **zintzo-zintzoa**,... Ez beti, ordea. Izen bihurturikoak (**arin-arin?**) alde batera utziaz, izan ere, asko dira aditzondo biluzi moduan dihardutenak (cf. XIII.2.51. puntuko c) pasartean esan berri dena), eta ez gutxi adizlagun, izenlagun edo aditzondo jantzi gisa ari direnak.

c) zenbatzailez, graduatzailez, erakusleez eta izenordainez osaturikoe-tan aski ondo errespetatzen da goian adierazitako arau hori.

Adizkietan ezin esan liteke, ordea, beste horrenbestekorik.

### XIII.2.6. BERRELKARKETA ETA GARAPENA

Bere-berea du indargarrizko bikoiztapenak, inork gutxik bezainbateko neurrian, berrelkartzeko ahalmena. Esan ere egin da gorago, semantikazko zertzeladak ematerakoan, berariazko eginkizuna dutela hitz beraren hirukoiztapen (**bizi-bizi-bizia**,...) zein lauukoiztapenek (**on-on-on-ona**,...): kasuan kasuko elementuari perpausaren barnean are indar gehiago ematea.

Ohar batzuk egitea komeni da, dena dela, berrelkarketa-kontu honi bere goi-beheak hartzeko.

a) hitz bera da normalean, gainerako elkarte-mota gehienetan ez bezala, berrelkartzen dena.

b) Ezinbesteko mugarik ez badago ere, nekez aurki daiteke laukoiztapenetik gorako eraikuntzarik.

c) Berezko ezintasunik ez egon arren, badirudi izenondo-aditzondoetan agertzen direla era horretako berrelkartze ugarienak.

### XIII.2.7. EMANKORTASUNA

Hitz-enbor "berri"ekin bikoiztaperen indargarririk sortzen den, edota ohizko hitz-enborrekin indargarrizko bikoiztaperen "berri"rik egiten, aztertu nahi da atal honetan. Horri ekin aurretik ohar-pare bat egingo da, halere, ohizko bikoiztaperen indargarrien erabileraz.

Ahoz jarduterakoan maiz erabiltzen dituzte egungo egunean ere, euskaldun petoek, bikoiztaperen indargarriak. Badirudi, literatur lanek mintzajardunaren oihartzun zuzena eskain dezaketen neurrian, bikoiztaperen-molde hau Bizkai-Gipuzkoetan erabiliagoa dela ipar-ekialdeko euskalkietan baino: denetan erabiltzen da ordea, gutxi edo asko, eta herriko hizkeratik hurbilago mantentzen diren idazleen lanetan inoiz baino joriago apika.

Hori bezain egia da, ordea, euskaldunberrien eta, oro har, azken 10-20 urteotan euskaraz eskolaturiko gazte-jendearen artean lehen baino bizi-indar eskasagoa ageri duela indargarrizko bikoiztaperen-formulak: "txiki-txikitatik" edota "asper-asper eginda gaude" ordez errazagoa dela, alegia, horien ezpain-lumetatik "oso txikia nintzenetik" edo "asko aspertu gara" modukoak jasotzea. Euskarak lau saihetsetatik pairatzen duen auzo-erdaren erasanak honetan ere duen eraginaz gainera, litekeena da indar-galtze horrek emendiozko (eta konponbidea gure eskuanago dagokeen) arrazoirik izatea: horietako bat, itxuraz, ikasliburu eta irakasleek baliabide honi berez izan duen (eta aurrerantzean ere izan dezakeen) garrantzia eta "lekua" aitortu ez izana.

Ez da harritzekoa, horregatik, oso + adjetibo, oso + adberbio eraikuntzek sorkari berrietan bikoiztaperen indargarriak geroz eta zokoratuago uztea.

Emankorrek dira halere, traba-ahuldade guzti horiek gorabehera, bikoiztaperen indargarriak. Ez agian kategoria gramatikal guzti-guztietan, eta ez edozein testuingurutan ere, baina adjetiboetan bederen bai: "postura neutro-neutroa hartu du", "musika rokerorokeroa egiten dute", "ikastaro praktikopraktiko bat nahi luke",...

### XIII.2.8. HITZ-JUNTURAKO HOTS-ALDAKETAK

Adibideetan eman diren noizean behingo salbuespenak (**bel-beltz, bez-beltz, bapatean,...**) alde batera utziaz indargarrizko bikoiztapenek ez dute hitz-junturako hots-aldaketa handirik ageri. Horrela, esate baterako, **aho-ahoan, albo-alboan, erdi-erdian, lepo-lepotik, luze-luze (etzan), zabal-zabalik, soil-soilik, ziur-ziur, argi-argi,...** formak erabiltzen dira bikoiztapenotan, eta ez **aha-ahoan (aha(h)oan), alba-alboan, erterdian, lepa-lepotik, luza-luze (etzan), zabaltzabalik, soiltsoilik, ziurtziur, artargi,...** modukoak.

Joera nagusia hori izanik ere balegoke seguruenik, muga-kasuetara jo orduko, zalantza bat baino gehiago: nola ebakitzen dira, izan ere, idatziz **bi-hotz-bihotzez, mikatz-mikatz** edo **kamuts-kamuts** ematen diren bikoiztapenak?

### XIII.2.9. IDAZKERA

Euskaltzaindiaren 1971ko erabakietan ez da indargarrizko bikoiztapenez arau zehatzik ageri. L. Villasantek (PVCD, 43. or.), puntu horretaz ari delarik eta "explanaciones nuestras, que no se hallan en las normas académicas" direla abisatuz, marra erabiltzea gomendatzen du "en las perífrasis o locuciones que se forman repitiendo dos veces la misma palabra, ya sea que en las dos veces la palabra figure en el mismo caso o ya en caso distinto: zuri-zuri, mokoz-moko, mendirik-mendi".

Gomendioetatik egunoroko praktikara pasatuz, bestalde, bikoiztapen indargarriak marraz idazteko joera nagusi dela ikus daiteke. Adibidetegitik zoriz jasotako lagin batetik, horrela, emaitza hau atera da

- . marraz idatzirik, % 71,2
- . bereiz idatzirik, % 26,3
- . bat eginik, % 2,5

Badirudi, beraz, bide bat aukeratzekotan marrarena dela, hemen, arrazoizkoena. Beraz **sakon-sakona, isil-isilik, bene-benetan, astin-astin egin, den-denak, gure-gurea, dagoen-dagoenean,**

Salbuespenak egin beharko dira, jakina, zenbait kasu konkretutan: **berbera** nahi eta nahiez, eta aukeran **bapatean, bapateko,...**





#### XIV. DVANDVA-ELKARTEAK



Sanskrit-gramatikariak **dvandva** "bikote" izendaturiko hitz-elkarketa konposizio-bide zabalduenatarikoa da euskararen alorrean. Uhlenbeck-ek dvandva-elkarteon izaera azaldu zuenetik, eta batez ere Azkuek (**kopulatibo** izenez baitaiaturik) berauen zertzelada nagusiak definituz geroztik, leku nagusia aitortzen zaie eraikuntza hauei euskal hitz-elkarketaren alorrean: lau elkarte-mota nagusietariko bat dvandva konposatuek osatzen dutela esan ohi da eskuarki.

#### DVANDVA-HITZEN SAILKAPENA

Honako sei sailotan bana daitezke, nagusiki, euskal dvandva-hitzak:

- izen-dvandvak: **aita-amak, senar-emazteak, zeru-lurrak, Gipuzko-Bizkaiak.**
- izenondoko adjetibo-dvandvak<sup>1</sup>: **zuri-gorri, txuri-urdin, gazi-geza, latz-gogor, ahur-ganbil, nafar-euskaldun.**
- adizlagun- eta aditzondo-dvandvak: **ezker-eskuin, laztan-musuka, han-hemen, gaur-biharretan.**
- adizki-dvandvak: **esan-egin(ak), harreman(ak), itaun-erantzunak, jan-edan, sal-erosketa.**
- zenbatzaile-dvandvak: **gutxi-asko, zortzi-hamar, hirurehun-laurehun, bizpa-hiru.**
- galdekari-dvandvak: **noiz-nongo, zer-nolako.**

Bost sailotan nekez sar daitezkeen lehendikako kasu bakanak lekuan-lekuan aipatuko dira. Gaur eguneko sorkari berriak ere, neurri batean sailkapen horrekin bat ez etorri arren, zein bere hurbileneko atalean landuko dira.

#### ERDAL ERABIDEEKIKO AHAIDETASUNA

Adjetibo-dvandven kasua alde batera utzirik, ez da gauza erraza espainolez, frantsesez, ingelesez edo alemanez euskal dvandven hurbileko kideak aur-

---

1: Adjetibo-elkarteok ere dvandva direnaz ez da, halaz ere, ahobatezko adostasunik. Hindu-gramatikariak beraiek ez zuten, itxuraz, adjetibo-dvandvarik konputuan hartzen (Ikus WHITNEY, W.D.: **Sanskrit Grammar**, Harvard University Press, Cambridge, 1964, 485. or.).

kitzea. Zailtasun hori izen-dvandvetan da, itxuraz, nabarmenena: euskal **ardo-ogiak, gogo-bihotzak, buru-buztanak, errege-erreginak, gose-egarriak, on-gaitzak** edo **Sakana-Burundak** nekez pareka litezke, ugaritasunez nahiz morfologiako eramoldeaz, erdal hizkuntza horietako adibideekin. Gainerako elkarte-moldeetan gugandik gertuago ageri den alemanak berak ere ozta-ozta ageri ditu<sup>2</sup>, mende joanetan iltzaturik, izen-dvandven arrasto bakan batzuk (Hildebrand-en kantuko **sunufatarungo** edota pareko **gisunfader** "aita- semeak"). Ingelesezko **King-emperor** modukoak, bestalde, dvandvetan baino zuzenago sailka daitezke gure **afari-merienda** batura-elkartearen multzoan.

Gaur egungo auzo-hizkuntza nagusietatik urrunsko egoteak ez du esan nahi, ordea, kiderik gabeko eramolde isolatua denik euskal dvandva. Izan ere<sup>3</sup>:

- a) errusiera zaharreko **otec-mat'** "aita-amak", **zlato-serebro** "urre-zilarrak", **medū-vino** "Meth"-ardoak", edo eslabo zaharreko **bratu-sestra** "anai-arrebak";
- b) grekozkò **ἀρό-κρεας** "ogi-haragiak", **νυχθ-ήμερον** "gau (e)ta egun",... eta, batez ere,
- c) indiera zaharreko **matārā-pitāra** "aita-amak", **pitā-putrāh**, **pitā-putrāu** "aita-semeak", **kanyā-kumārau** "neska-mutilak", **dyāvā-prthivī(h)** "zeru-lurrak", **diva-nāktam** "gau (e)ta egun", **cittā-kūtām** "uste-aburuak", **bhadrapāpa**, **bhadrapāpām** "on-gaitz(ak)", **dakṣiṇa-sayvā** "ezker-eskuin", **triṅcad-viṅca** "hogei-hogeitamar" (azken biak izen-dvandvez haranzkoak)

adibideak aski eta sobera dira euskal hitz-elkarbide hau erdal ahaide (zahar) gabea ez dela konturatzeko.

2: Ikus PAUL, H.: **Deutsche Grammatik**, Niemeyer, Tübingen, 1920, 5. liburukia, 7. or.

3: Ikus BRUGMANN, K.: **Abrégé de Grammaire Comparée des Langues Indo-européennes**, Libr. Klincksieck, Paris, 1905, 318 or.

DELBRÜCK, **Vergl. Synt.** 3, 188 hurr.

WHITNEY, W.D.: **Sanskrit Grammar**, Harvard University Press, Cambridge, 1964, 485. or.

WACKERNAGEL, J.: **Altindische Grammatik. II.1. Einleitung zur Wortlehre. Nominalkomposition**, Vandenhoeck & Ruprecht, Göttingen, 1905, 149. or.

Ahaidetasun hori areagotu egiten da, izen-dvandvetan (gaur egun) antzu den hainbat erdara bestelako dvandva-moduetan, adjetibozkoetan bereziki, aski emankorra dela gogoan izanik.

Banan bana aztertuko dira ondoren, halako xehetasun batez, euskal dvandva-mota desberdinak: mota bakoitzeko adibide-sorta bana eskaini ondoren beraien zertzelada nagusiak azalduko dira segidan, Belokeko jardunaldian adierazitako ihardupideari eutsiz ahal den neurrian.

#### XIV.1. IZEN-DVANDVAK

Osagai biak izenak direneko dvandva-elkarteak biltzen ditu, logikoa denez, multzo honek.

Bere azpisailkapenari dagokionez, lau atal nagusitan bana daitezke euskal-izen dvandvak, ondoren aditzera emango diren ezaugarrien arabera.

- izen-dvandva arruntak: **aita-amak, senar-emazteak, zeru-lurrak, ogi-ardoak**
- tautologiazko izen-dvandvak: **atsegin-kontentu, agur-honra, bildots-(h)umerri, sermoi-prediku**
- leku-izen dvandvak: **Bilbo-Iruñeak, Sakana-Burundak**
- pertsona-izen dvandvak: **Axular-Etxepareak**

Lau atal nagusiotatik kanpora gelditzen direnak ere berariaz aztertuko dira.

#### ADIBIDEAK:

##### a) Izen-dvandva arruntak: AITA-AMAK, SEME-ALABAK, ZERU-LURRAK, OGI-ARDOAK

- aita-amak, aiton-amonak, aita-semeak, ama-alabak, ama-semeak, anai-arrebak (neba-arrebak), atso-agureak, andre-gizonak, ama-umeak, andre-neskatilak, atso-neskak, amona-ilobak, ate-leihoak, ate-sarrailak, ardo-ogiak, aza-porruak, arto-babarrunak, aran-muxikak, atabal-danbolinak, aurpegitzar-aurpegitxoak, aitzin-gibel(ak), aldundi-udaletxeak, amets-gogoetak, amore-nekeak, ardi-bildotsak, aurpegi-gogoak;
- bazter-inguruak, begi-bekokiak, begi-belarriak, begi-bihotzak, bihotz-adi-menak, bihotz-erraiak, bihotz-gogoak, bihotz-muinak, beso-mihiak, beso-

- zankoak, buru-ahoak, buru-buztanak, buru-begiak, buru-belarriak, buru-besoak, buru-oinak, bildots-ardiak, belar-landareak;
- dama-galaiak, danbolin-txistuak, dantza-jauziak, doinu-hotsak, duke-dukesak;
- elisio-sinalefak, emazte-alabak, enara-kirkirrak, erantzun-galderak, errege-erreginak, eltze-platerak, esker-mesedeak, esku-oinak, esku-mihiak, ezpain-masailak;
- frantses-alemanak;
- gatz-ozpin(ak), Gabon-Eguerriak, galde-erantzunak, galtza-jakak, gibel-erraiak, gizon-emakumeak, gogo-bihotzak, goi-beheak, goi-gailurrak, goiz-arratsak, goiz-arratsaldeak, gorotz-pixak, gose-egarriak, guraso-umeak;
- hamarren-primiziak, hanka-besoak, hanka-lepoak, haragi-hezurak, hoben-kulpak, hotz-beroak;
- ibar-mendiak, idi-behiak, ikasle-irakasleak, ipuin-kontuak, irribarre?, itsas-lehorrak, itsas-mendiak, izeba-osabak, izen-abizenak, izen-deiturak;
- jaun-andreak, janari-edariak;
- kanta-soinuak, kafe-edariak, kapa-sonbreroak, kezka-nekeak;
- lan-neke(ak), lan-beharrak?, landa-baratzak, lepo-belarriak;
- maisu-maistrak, mingain-begiak, marinela-merkatariak, markes-dukeak, mendi-zelaiak;
- nagusi-etxeakoandreak, nagusi-morroiak, nahi-gurak, nekapen-tormentuak, neke-gurutzeak, neke-kezkak, neke-oinazeak, neska-mutilak, neska-mutikoak;
- on-gaitzak, ogi-ardoak, oin-eskuak, orro-soinuak, osaba-ilobak, paper-agi-riak, patata-ilarrak, porru-patatak, praka-jakak, poz-atsegin(ak);
- seme-alabak, senar-emazteak;

- Uztail-Abuztuak;

- zeru-lurrak, zoko-bazterrak, zain-haragiak, zelai-alorrak, zozo-birigarrak.

b) Tautologiazko izen-dvandvak: ABERE-ANIMALIAK, ATSEGIN-KONTENTU(AK), SERMOI-PREDIKU

abere-animaliak, agiri-paperak, agur-honra, atsegin-kontentuak, atsegin-poz, alor-zelai, bildots-(h)umerri, katadera-sila, gogorantz-oroitza, estanpa-koadro, antzirudi (edo) imajina, sasoi-edade, lan-neke, irrifarre (irribarre)?, sermoi-prediku, zurluze-mastak, santutasun-santantza, gorro-txapela.

Bestelako izenez ere ezaguna da elkarte-modu hau. Alfonso Irigoienek berrikitan adierazia<sup>4</sup> duenez, A. Tovar-ek<sup>5</sup> **geminatu semantikoak** esaten zien honelako hitz-bikoteei, eta Yu. Vl. Zytsar-ek<sup>6</sup> ere badu, hain aspaldi ez dela, geminatu direlakoon auzia gogora ekarria. Ohar bi dira hemen, dena dela, gerora gabe egin beharrekoak:

a) Tautologiazko elkarte edo geminatu semantikook ez dira, noraezean, izenezkoak: hor bait daude, beste gehiagoren artean, A. Irigoienek bere txostenean aipaturiko **Galbarriartu (galbar 'calvo' gehi i(h)artu), ikusmira(tu), salmenta,...**

b) Sailkapen-saioko IX. atalarekin, atributu edo koordinaziozko elkarrekin alegia, ahaidetasun nabarmenegia dute eraikuntzok antz-itxura horren ez-ikusia egiteko.

Arrazoi bi hauegatik jadanik aski dudazkoa da tautologiazko elkarreko dvandva-elkartean sarturik eman daitezkeenik. Aurrerago (cf. XIV. 1.1.4.) iku-

4: IRIGOIEN, A.: **Hitz elkarketaz**, 1987, 2-4. orr.

5: TOVAR, A.: **Geminados semánticos en vascuence**, Università degli studi di Napoli, Istituto di glottologia, Napoli, 1959, 365-371. orr.

6: ZYTSAR, Yu Vl.: "Sobre los geminados semánticos de A. Tovar", in: **Euskera**, XXX (1985-1), 439-444. orr.



siko denez badaude, gainera, elkarte-moduok dvandva-elkarteetatik kanpora tratatzeko emendiozko arrazoiak.

c) Leku-izen dvandvak: BILBO-IRUÑEAK, SAKANA-BURUNDAK

Bilbo-Iruñeak, Sakana-Burundak, Gipuzko-Bizkaiak, Azpeiti-Azkoitiak, Munda-Bermio(etan), Alzola-Mendaro(etan), Erronkari-Zaraitzu(etako).

d) Pertsona-izen dvandvak: AXULAR-ETXEPAREAK

Axular-Etxepareak, Unamuno-Barojak.

XIV.1.1. EZAUGARRI NAGUSIAK

XIV.1.1.1. Dvandvak, koordinazio-elkarte

a) Koordinazio mailako harremana<sup>7</sup> dute izen-dvandvetako osagaiek, ez menpekotasunezkoa. Eraikuntza hauen izaera koordinatuak osagaiek mugatzaile/mugakizun harremanik ez izatea dakar berekin. Horrela:

- menpekotasunezko hitz-elkarteetan mugatzaile/mugakizun harreman argia izan ohi da osagai bien artean. Eta, ondorioz, osagai bietariko bat (mugakizuna) eraikuntza osoaren semantikazko ordezkari izan ohi da: gurdi-bidea da, txori-kaiola kaiola eta goarda-etxea etxea. Horrekin batera, beste osagaia (mugatzailea) ezin da, normalean, eraikuntza osoaren semantikazko ordezkari izan. Guzti horregatik, erbi-zakurra zakurra da eta ez erbia, zaldi-lapurra lapurra da eta ez zaldia, behi-esnea esnea da eta ez behia edota, alderantziz, esne-behia behia da eta ez esnea<sup>8</sup>.
- izen-dvandva elkarteetan, aitzitik, ez da halakorik gertatzen. Ondorioz, ezin esan daiteke seme-alabak alaba direnik eta ez seme (edota seme dire-

7: Itxuraz Azkue izan da, gure artean, marka-ezaugarri honetaz jabetzen lehena. Ikus "Morfología Vasca", in: *Euskera*, 1923-25, 397-398. orr. (LGEV, Bilbo, 1969.

8: Ikus FLEISCHER, W.: *Wortbildung der deutschen Gegenwartssprache*, Niemeyer, Tübingen, 1975<sup>4</sup>, 109. orr.

nik eta ez alaba); orobat, ezin esan **begi-belarriak** belarri direnik eta ez begi, **Gipuzko-Bizkaiak** Bizkaia direnik eta ez Gipuzkoa, etab. Aurrerago ikusiko denez, dvandva guztien ezaugarria da hau, eta ez izen-dvandvena bakarrik.

b) Koordinazio-bide hori kopulatiboa izaten da gehienetan. Hortik etorri ere dator, noski, gramatikariek dvandva-elkarteei konposatu kopulatiboak deitzeko ohitura: euskal alorrean behin eta berriz errepikaturiko definizio eza-gun batez<sup>9</sup> esateko, "la composición copulativa consiste en unir dos o más nombres substantivos o adjetivos, suprimiendo la conjunción copulativa **eta**".

Aurrerago azalduko denez, ez da juntagailu-"galera" izen-dvandvetan ageri den gertaera bakarra. Eta ez dirudi, gainera, "galdu" beharreko juntagailua **eta** denik beti: askotan hurbilago sentitzen da, oinarriko perpaus-eskeman, **edo** (agian **ala**) juntagailua. Egia da ordea, guztiarekin ere, euskal dvandva-elkarte gehienetako osagaiak era kopulatiboan koordinaturik ageri direla. Salbuespenak (tautologiazko elkarbideari datxezkionak batez ere) gutxi izateaz gainera, aski sorkari berankor eta idatzizko zereginetara mugatuak dira itxura osoz. Aurrerago hitzegingo da horietaz. **eta** juntagailuaren bidezko koordinazio-bide horren nagusitasuna ere ez da soil-soilik izen-dvandven alorrekoa, dvandva-elkarte guztien batezbesteko joera nagusia baizik. Horrela, eta adibide banaka batzuk baizik ez aipatzearren, ondoko esaldietan agertuko diren dvandva-elkar-teak posible da hurrenez hurren **senarra eta emaztea**, **bihotzean eta muinetan**, **anai(ok) eta arreba(-ok)**, **leuna eta arina**, **ezkerrera eta eskuinera**, **harantz eta honantz** eraikuntzez ordezkatzea:

- nola San Martinak baitziren, Mattinek **senar-emazteak** gonbidatu zituen bazkaltzera.
- betidanik neraman erdaldun izanaren ezpata **bihotz-muinetan** sarturik.
- poztu, alaitu, **anai-arrebok**, ordu hau heldu delako.
- hartzen dutenentzat guztiz **leun-arina** da, eta guztiz ondragarria.
- Manex jalgi zen zut-zuta **ezker-eskuin** deusi behatu gabe.
- goxo-kozko bat erakutsi besterik gabe **harantz-honantz** erabil zitekeen.

---

9: Ikus ZATARAIN, A.: "Zubittoa noiz?" in: **Euskera**, XXIII (1978-2), 667-670. orr.

#### XIV.1.1.2. Izen-dvandven pluraltasun-auzia

Behin eta berriro esan izan da<sup>10</sup> euskarazko izen-dvandvak (eta are euskal dvandva guztiak) pluralean bakarrik jokatzen direla. Kasuan kasuko eskakizunen arabera bere dvandvak singular neutroan, dualean edo pluralean joka omen ditzakeen sanskritoaren aldean araua zorrotz mugatua dagoke, beraz, gure elkarte-moduontzat.

Esana ere dago<sup>11</sup>, ordea, euskal dvandven bigarren osagaiak "muchas veces adopta el número plural, pero no siempre". Plural-marka hori noiz ezinbestean hartzen duen eta noiz ez argitzea izango da, izen-dvandvei dagokienez, atal honen asmoa. Honako ohar hauek egin daitezke horretarako:

- a) tautologiazko izen-dvandvek ez dute arau hori betetzen: singularrean zein pluralean ager daitezke, txertaturik dauden izen-sintagmak perpaus barnean dituen betekizunen arabera.
- b) leku-izen eta pertsona-izen dvandvek bete-betean errespetatzen dute, itxuraz, nahitanahiezko pluraltasun-araua.
- c) izen-dvandva arruntei dagokienez, puntu bat baino gehiago hartu behar da kontuan.

- egia da kasu gehien-gehienak, eskuartean erabilitako adibideak oinarri, pluralean ematen direla eta, gainera, ezin singularrean emango genituzkeela: "**aita-ama** ikusi dugu", "**zeru-lurra** lehertuko da oraingoan" edo "**ate leihoa** zabalik utzi du" moduko esanbideak ezin irentsizkoak ditu euskaldunak (edota, irestekotan, beste esanahiren batez golkoratuko lituzke apika).

---

10: Ikus VILLASANTE, L.: **Palabras Vascas Compuestas y Derivadas**, EFA, Oñati, 1974, 17. or..

11: Mende honetako adibide ezagun batzuk baizik ez aipatzearren ikus:

- UHLENBECK, C.C.: "Caractère de la Grammaire Basque", **RIEV**, II (1908), 517. or.

- LAFITTE, P.: **Grammaire Basque**, Elkar, Donostia, 1979<sup>2</sup>, 70. or.

- Badirudi, halere, debeku-arau hori deklinabide-kasu batzutan zorrotzagoa dela bestetan baino. Beste era batera esanaz, dvandva-elkartea bere baitan daraman izen-sintagmak segun perpausean zein funtzio bete, halakoa ere da, itxuraz, arauzko mugapen horren indar-balioa. Era grafiko batez esanik NOR, NORK eta NORI kasuetan da, itxuraz, plural-marka beharrezkoen. Ez beste zenbaitetan, ordea: instrumentalean, esate baterako; azken honetan badirudi mugagabea dela formarik erabiliena. Horrela:

"benetazko pertsona bat, **hezur-haragizko** gizon bat"

"Jesus hori **hezur-haragizko** gizon bat zen"

- Inesiboan ere sarritan ageri da mugagabeko izen-dvandva arruntik:

"barbantzuak **aza-oliotan**, bakoitzarentzat lukainka-puxka banarekin"

"Jaingo bakar, gorena, **aho-mihitan** hartu ezin zitekeena"

"ez **hezur-mamitan** oratua"

- Eta mugagabeen ematen ere dira, ezinbestean noski, partitibozkoak:

"nekez aurkituko duzu haiek bezalako **senar-emazterik**"

"**seme-alabarik** izan ote zuten ez dakigu"

"inork ez dit haren **izen-deiturarik** eman"

"ez **aita-amarik**, ez nagusirik"

- Beste hainbat esan daiteke, azkenik, sintagma barneko erabideak ezinbesteko araua ezartzen duen kasuistikaz:

"**atso-agure** banakaren batzuk ere noizean-noizean bai"

"hor dauzkazu ugari **atso-agure artean**"

"ezkon-berriak eta zenbait **dama-galai**"

"**atso-agureren** batek baino ez daki zuzia zer zen"

#### XIV.1.1.3. Osagaien arteko harreman-lotura

a) Tautologiazko izen-dvandvak alde batera utziaz, harreman-loturaren aldetik beti-bateko balioa antzematen edo zaie gainerako izen-dvandva guztiei: izaera propio eta elkarrengandik berezia duten izaki (banako edo taldekako) bi uztarri berera lotzen dituzte. Izaki bi dira, berriro esan, uztarturik ageri direnak: **aita-amak** pertsona bi dira, **zozo-birigarroak** txori (edo txori-mota) bi,

eta **porru-patatak** barazki-mota bi. Zer esanik ez **Bilbo-Iruñeak** edo **Oxalde-Etchaun aipatuak** modukoak. Era berean, ondoko adibidean: "1870. garren urtean, **frantses-alemanen** arteko gerratean ibili zen", batetik frantsesak ageri dira, eta alemanak bestetik. Gizajende-sail berezi bi beraz: ez, alegia, **frantses-euskaldun** edo **nafar-euskaldun** moduko elkarteetan bezala, aldi berean ezaugarri desberdin bi dituen izaki-multzo bakarra. Desberdintasun hori funtsezkoa da, aurre-rago ikusiko denez, izen-dvandvak adjetibo-dvandvetatik bereizteko.

b) Besterik da, dena dela, goian esan denez, tautologiazko<sup>12</sup> izen-dvandven kasua. Elkarte-modutan ez dira izaki desberdin bi uztarri berera biltzen, gainerako izen-dvandvetan bezala, baizik eta izaki bakar bat sinonimo biz izendatzen da. Esanahi beretsuko hitz bi elkarri josiz eratzen dira tautologiazko elkarteok. Ez dirudi euskal tautologiazko izen-dvandvak oso zaharrak direnik<sup>13</sup>. Jasotako adibideen arabera, XVIII. mendetik honanzkoak dira gehienak. Idazle banakoen eskua inon baino nabarmenago ageri da elkarte-modutan. Mendiburu ezin izango da, nolana ere, horren lekukorik hutsalena: bere idazkien edozein zoko-bazterretan agertzen diren **gogorantz-oroitza**, **sermoi-prediku**, **poz-atsegin(tza)**, **neke-tormentu**, **atsegin-kontentu**, **neke-oinazeak**, **katader(a)-sila** (berdin adjetibozko **oso-prestu**, **lohi-desonesto**,... modukoak) eta abarrekoak begi-mingarri izatera ere iristen dira, ugariaren ugariaz, behin baino gehiagotan.

Elkarte hauen jatorriaren bila abiatuz gero honako hau izan daiteke, agian, hurbileneko maratila: esanahi beretsuko hitz bietarik bat, bestea baino hagitz ezagunagoa izan arren, maileguzkoa izateagatik edo beste zenbait arrazoi-rengatik, sinonimo "jatorrago" edo "egokiago" batez plazaratu nahi izaten da maiz. Euskalki arteko osin-estalgarritarako ere erabil daiteke elkarte-modu hori, eta inoiz baino gehiagotan hartarako erabili ere dela dirudi. Inolako juntagailu-"galera"z hitzegitekotan, **edo** juntagailua galtzen dela hemen esan behar-ko litzateke, ez **eta**.

12: VILLASANTE, L.: **Palabras Vascas Compuestas y Derivadas**, EFA, Oñati, 1974, 17. or..

13: Tautologiazko izendapena, hitz "sinonimoen" elkarte adierazteko, honako iturri honetatik jaso da azal eta mami: KOZIOL, H.: **Handbuch der englischen Wortbildungslehre**, Carl Winter, Heidelberg, 1972<sup>2</sup>, 53. or. (82. pasarte).

#### XIV.1.1.4. Semantikazko zertzeladak

Marka-ezaugarri nabarmena dute semantikaren aldetik, tautologiazko formak alde batera utziaz, dvandva-elkarteek: osagai biek bateragarriak izan behar dute, esanahiaren aldetik, elkartu ahal izateko<sup>14</sup>. Hori dela eta, ez da posible, ohiz kanpoko baldintzaren bat tartean suertatzen ez bada behintzat, **seme-patat**, **gizon-porruak**, **itxi-erosi**, **joan-ezkondu**, **gaur-han**, **hark-nik**, edo **jantzi-etorri** moduko dvandvak sortzea. Are gutxiago, jakina, lege-debeku horrezaz gain kategori kidetasuna ere apurtuz **hau-atzo** modukoak eratzea.

Dvandva guztientzat, eta ez izen-dvandventzat bakarrik, da arau hori baliozkoa. Zailagoa da, halaz ere, semantikazko bateragarritasun horren funtsa puntuz puntu azaltzen. Badirudi, Azkuek esandakoaren haritik, erizpideok direla puntu honi dagozkionetan balio-indarrrik bizieneoak:

- a) Izenetan esanahi-kidetasuna da, sarrienik, dvandva-iturriari hitz-jarioa indartzen diona;
- b) bestelakoetan antonimiazko harremana indartsuago da, itxuraz. Hurrengo ataletan, kategoria desberdinetako dvandvak aztertzerakoan, ematen da nolana ere horri buruzko argibide zabalagoa.

Izen-dvandvei dagokienez, berriz, emendiozko ohar hauek egin behar dira:

a) Izen-dvandva arrunten multzo ohargarria osatzen dute pertsona arteko (eta, bereziki, famili barneko) bikote-azalpenek: **aita-amak**, **aiton-amonak**, **aita-semeak**, **ama-alabak**, **seme-alabak**, **senar-emazteak**, **osaba-ilobak**, **izeba-osabak**,...; **jaun-andreak**, **neska-mutilak**,...

b) Gorputz-atalen adierazgarri dira, bestalde, izen-dvandva asko: **begi-belarriak**, **buru-buztanak**, **beso-zangoak**, **buru-oinak**, **begi-bekokiak**,...

---

14: Ingeles zaharreko **wuduholt** "oihan", **beornwiga** "gudari" apenas gure adibideen oso parekoak direnik; bai, ordea, **campwig** "gudu" eta beranduagoko **cite-toun** "hiri" modukoak.

c) Animali bikoteen azalpenak ere ugari samarrak dira: **bildots-ardiak, zakur-katuak, behi-idiak,...**

Hiru multzo hauen arabera badirudi, berriro ere, erdal erduekiko ahai-detasunik<sup>15</sup> ez zaiela euskal izen-dvandvei falta.

Atal horietatik aparte esanahi-eremu dezentez zabalagoa eratzen dute, dena dela, tautologiazko elkarteak alde batera utziaz, euskal izen-dvandvek.

Honetan ere bereziak dira tautologiazko formak. Eta, beraz, osagaien arteko harreman-loturaz gain beraien semantikazko balioa gainerako izen-dvandvetatik hain desberdina izanik, eta sintagma barneko joko-arauak ere aski bestelakoak dituztenez, balegoke arrazoi sendorik tautologiazko elkarteok izen-dvandven (eta are dvandven) sailetik kanpora ateratzeko.

#### XIV.1.1.5. Kategoria gramatikala

Alde horretatik, aski multzo bateratua osatzen dute izen-dvandva guztiek. Izan ere:

a) osagaien kategoria gramatikalari dagokionez, izen + izen segidaz osatzen dira guztiak: izen arruntez osatuak izaten dira lehenengo bi elkarte-motak (**aita-amak, gogorantz-oroitza**), eta beste biak izen propioz (**Sakana-Burundak, Axular-Etxepareak**),

b) dvandva-elkarteak ere izen-balioa du, kasu guztietan.

---

15: Sanskritoarekin alderatzeko ikus WACKERNAGEL, J.: op.cit., 162-164. or. Leku- eta pertsona-izen dvandven alorrean daudekeen parekotasun eta desberdintasunez, ikus:

- WACKERNAGEL, J.: op. cit., 149. or. (c pasartea), 150. or. (63a pasartea), 162. or.

- BRUGMANN, K., 318. or.

XIV.1.2. BERRELKARKETA EDO GARAPENA

Bestek<sup>16</sup> adinbateko oparotasunez ez bada ere, izaten da berrelkarketa eta, oro har, garapenik euskal izen-dvanden alorrean. Hauek dira, itxura osoz, garapen-molde usuenak:

a) berrelkarketa, izen-dvandva hitz-elkarte berriaren mugatzaile delarik. Horrela:

"orduko erdi zorituak aurkitzen ziren **garagar-gari sortak**, balak edo multzoak"

"Nafarroako **Sakana-Burunda haranetan** gorde da ondoen uraren sineskera honen aztarna"

b) berrelkarketa, izen-dvandva hitz-elkarte berriaren mugakizun delarik. Horrela:

"bere hegalez ibiltzeko on direneraino, **eper aita-amak** ez dituk umeatarik urruntzen"

"Bixintxo-haizeak bere **marrajo hortz-haginez** ziztatzen gaituenean ez dugu izaten giro, arraiotan"

c) dvandva hutseko berrelkarketa:

"**neke-trabaju-penaz** beterik alabak munduan hazi, gurasoei esker gaiztoa horra nik adierazi"

"geldi bitez nere **hezur-haragi-muinak** materia eta usteltasuna dariela"

"honenbestez joan ziren gora **ama-seme-alabak**: Kosepa Koipe, ume biei beso banatatik oratuta"

d) bestelako garapen-bideei dagokienez, sarritan ikusten dira, orobat, dvandva-izenak eratorpen-oinarri bihurtuak. Horrela, Prai Bartolomeren **gatz-ozpindu**-aren bide beretsutik, hor daude:

---

16: Indiera zaharrerako ikus WACKERNAGEL, J. op. cit., 159. or.: "Die Zahl der Glieder ist unbeschränkt"



"eta beste gabe **senar-emaztetzen** al dira?

"aita-amek, **aitamatu** direnetik, ez dakite gehiago zer den amodioa"

"entzuten dituztenak entzunda, **izu-ikaraturik**, anitz lagun gelditu dira atzerrian"

"hango eta hemengo eskilak ditugu elkarren **poz-negarraldi** adierazle"

e) atzizki bakar batez biren lana egitea ere ikusten da inoiz edo behin. Horrela:

"**senar-emaztegaiak** zineten"

"pozarren goaz, Ama aintzaturik, **seme-alabatxo** maiteok"

#### XIV.1.3. HITZ-JUNTURAKO HOTS-ALDAKETAK

a) Izen-dvandvek ez dute normalean, osagai bien junturan, berariazko hots-aldaketarik ageri. Ez dute, alegia, menpekotasunezko izen-elkarte zaharrek eta hainbat hitz-andana ihartuk hain berea duten hots-aldaketarik izaten. Horrela:

. bokal-aldaketari dagokionez:

- **arto** hitzetik **arta-** mugatzailea, baina **arto-babarrunak**; berdin **beso-zankoak, atso-neskak,...**
- **katu** hitzetik **kata-** mugatzailea, baina **katu-saguak**; berdin **buru-buztanak, doinu-hotsak,...**
- **arte** hitzetik **arta-**, baina **arte-pagoak**; berdin **ate-leihoak, neke-oinazeak,...**

. bokal-galerari dagokionez, bestalde:

- **idi, ardi, ogi**, hitzetatik **it-, art-, ot-** mugatzaileak (**iteuli, artile, otordu,...**), baina **idi-behiak, ardi-bildotsak, ogi-ardoak**; berdin **haragi-hezurak, begi-belarriak,...**
- orobat **abere-animaliak, amore-nekeak; enara-kirkirrak; janari-edarriak,...**

. kontsonante-aldaketez denaz bezainbatean, azkenik:

- **jaun** hitzetik **jaur-**, baina **jaun-andreak,...**
- **-ts + g- → -sk-**, baina **amets-gogoetak,...**
- **-tz + g- → -zk-**, baina **bihotz-gogoak,...**
- **-tz + p- → -zp-**, baina **gorotz-pixak,...**

b) zenbait kasutan badirudi, halere, aldaketa-moduren bat gertatzen dela. Ezagunenak, jasotako adibideen arabera, honako hauek dirateke:

- aita-amak       → aitamak
- aitona-amonak → aitona-amonak
- anaia-arrebak → anai-arrebak<sup>17</sup>

Kasu bakanak dira ordea adibideok, arau nagusia ezer gutxi ahultzen dutenak.

#### XIV.1.4. EMANKORTASUNA

a) Elkarre-modu emankorra da izen-dvandvena. Gaztelaniazko **daños y perjuicios** esateko azkenaldi honetan erabilitako **kalte-galerak** edota **oferta y demanda**-ren ordaineko **eskari-eskaintzak**, komunikabideetan behin baino gehiagotan entzundako **udal-aldundiak** edota eskola-giroko **Oria-Bidasoak**, **elisio-sinalefak** nahiz **maximo-minimoetako termometroa**, gorago aipaturiko **Filosofi-Letren Fakultatea** bezala, erabide hau aski bizirik dagoelako seinale argiak dira.

b) Ez hori bakarrik: itxuraz orain arte erabili gabeko lotura-modurik ere hasi da, erdal ereduaren eraginez agertzen:

- **gas-likido** kromatografia, **izar-triangulu** konexioa,... Badirudi honelakoetan behialako **leon-kastillo** (egin) esaldiaren antzeko bidea erabiltzen dela.

c) Azkenik, **Vitoria-Gasteiz**, **Donostia-San Sebastián**, **Arrasate-Mondragon**,... moduko eraikuntzek badirudi tautologiazko izen-dvandvetan luketela, inon izatekotan, hurbileneko ereduak. Beraien emankortasuna hizkuntzaz kanpoko baldintza estuek mugatua dago, halere.

---

17: Badirudi orain sortzen ari diren **Filosofi-Letren Fakultatea** modukoak bide beretsutik doazela.

XIV.1.5. IDAZKERA

Euskaltzaindiak arau zehatza emana dauka izen-dvandvak nola idatzi behar direnaz: marratxoa erabili behar da, 1971ko arauak<sup>18</sup> diotenez, "bikotea osatzen duten esaldietan. Adibidez: senar-emazteak, seme-alabak, nagusi-langileak".

XIV.1.6. OSAGAIEN HURRENKERA

Dvandva-elkartee mugatzaile/mugakizun harremanik bere baitan ez dutenez (ikus XIV.1.1.1. puntuko a) pasartea) ez dago hain garbi mugatua zein osagaik aurrean eta zeinek atzean joan behar duen. Ez eta ezinbestean batak aurrean eta besteak atzean joan behar duenik ere: **ogi-ardoak** zein **ardo-ogiak**, biak entzuten edo irakurtzen dira. Badirudi, oro har, honako arauok kontuan hartzekoak direla<sup>19</sup>:

a) osagaien luzerari dagokionez, badirudi silaba gutxienekoa aurrean joan ohi dela maizenik.

b) jenero kontuan, har/emeen ordena erabiliago bide da (**jaun-andreak**, **senar-emazteak**, **errege-erreginak**, **seme-alabak**, **aitona-amonak**, **aita-amak**,...), salbuespenik falta ez bada ere: **neska-mutilak**, **ama-semeak**, **izeba-osabak**.

c) ez dirudi bokal-hasierako osagaiak aurrean joatearen araua euskararen kasuan balio-indar handikoa denik. Hautabideko erdietan baino gehiagotan hala gertatzen dela dirudi, halere, eskueran erabilitako adibideen arabera.

---

18: Ikus **Euskera** 1971, 150-153 orr.

19: Sanskritoari dagokionez ikus WACKERNAGEL, J. op.cit., 166. or.; WITHNEY, W.D.: **Sanskrit Grammar** 1254 c pasartea (486. or.)

Alemanari dagokionez ikus FLEISCHER, W.: op.cit., 109. or.

Euskarari dagokionez ikus batetik AZKUE, R.M.: "Composición Vasca", eta bestetik MUJICA, L.M.: **Hitz konposatu eta eratorrien morfo-fonetika**, Ed. Vascas, Donostia, 1982, 44-45. or.

## XIV.2. ADJETIBO-DVANDVAK

Osagai biak adjetiboak direneko dvandva-elkartek biltzen ditu multzo honek.

Adibideak: ZURI-GORRI, TXURI-URDIN; GAZI-GEZA, AHUR-GANBIL, NAFAR-EUSKALDUN

argi-ilun, beltz-urdin, bero-indartsu, busti-palatal, estu-mehar, elkor-aspergarri, eder-garbi, eder-galant, galdu-gaizto, garratz-min, gozo-mindun, gor-mutu, gorri-beltz, gazi-geza, geza-min, gazte-eder, gorde-estali, gozo-mikatz, galdu-galgarri, hotz-gogor, huts-garbi, isil-izkutu, luze-zabal, leun-arin, latz-gogor, latz-min, minkor-minbera, nagiepel, oso-bete, samur-bigun, txiki-mehar, txuri-urdin, zehatz-garbi, zuri-beltz, zuri-gorri.

Oso erraza litzateke atal honetan, izen-dvandvanean baino agitz errazagoa nolana ere, erdarazko pareko eraikuntzak eskaintzea: auzo-uzoko erdaretatik hasita, gainera, urutiagoko adibideetara jo beharrik gabe.

### XIV.2.1. EZAUGARRI NAGUSIAK

#### XIV.2.1.1. Koordinazio-izaera

a) Izen-dvandvez hitzegiterakoan (ikus XIV.1.1.1. a) pasartea) esanenez, koordinazio mailako harremana dute adjetibo-dvandvetako osagaiak ere.

b) Koordinazio-bide hori kopulatiboa da askotan: **zuri-gorri, txiki-mehar** edo **zehatz-garbi** elkarteen ordez **zuri eta gorri, txiki eta mehar, zehatz eta garbi** esan daiteke, horrela, joskera sintaktiko librean. Halakoetan **eta** juntagailua "galdu" dela esan ohi da. Osagarritzko edo aldibereko adjetibo-dvandvak dira, nolabait esan, era honetako eraikuntzak. Bada bestelakorik ere, ordea. Horrela,

c) Batzutan alternantziatzko, buruz buruko eraikuntzak erabiltzen dira izan ere, eta ez osagarritzkoak: **gazi-geza, gozo-mikatz, argi-ilun,...** Halakoetan badirudi **edo** (agian **ala**) juntagailua dela oinarriko perpaus-eskeman sumatzen edo dena. Edota hobe litzateke, agian, juntagailu-kontua alde batera utziaz, antonimiazko adjetibo-dvandvez hitzegitea.

d) Badirudi, azkenik, hirugarren talde bat ere bereiz daitekeela adjetibo-dvandven artean: tautologiazkoa, izen-dvandvetakoen pare: kontsonante **bus-ti-palatalak**, edota Mendibururen **lohi-desonesto**. Sinonimia dateke hauetan, itxuraz, koordinazio-lokarria.

#### XIV.2.1.2. Adjetibo-dvanduen numeroa

Hainbat izen-dvandvatan gertatzen den nahitanahiezko plural-beharrik ez dute adjetibo-dvandvek: mugagabeen, mugatu singularrean edo pluralean ager daitezke berezko muga-baldintzarik gabe, beraiek biltzen dituen izen-sintagmak duen eramoldearen eta perpausean betetzen duen eginkizunaren arabera.

#### XIV.2.1.3. Osagaien arteko lotura

Gorago adierazi denez (ikus XIV.1.1.3. a) pasartea), alde handia dago, honetan, batetik izen-dvandven eta bestetik adjetibo-dvandven artean. Haiek ez bezala, eta tautologiazko formak berriro alde batera utziaz, izaki bakar baten osagarrizko edo buruz buruko nortasun-ezaugarri bi (edo gehiago) adierazten dituzte adjetibo-dvandvek. Argazki **zuri-beltz** bat argazki bat da, izaki bakarra hortaz, "kolorez" zuria eta beltza bada ere. Jaun-andreek, zakur-katuek edo ezpain-lumek izaki (banakako edo taldekako) bi adierazten dituzte, aldiz, ezinbestean. Beste era batera esanik, muinbiko izen-sintagmak osatzen dira izen-dvandvekin. Adjetibo-dvandvek, aldiz, hartarako debeku-iturri ez diren arren<sup>20</sup>, ez dute berez muin-bikoiztapenik sortzen.

#### XIV.2.1.4. Semantikazko zertzeladak

a) Badirudi euskararen alorrean ere<sup>21</sup> atal berezia osatzen dutela kolore-dvandvek (txuri-urdin, gorri-beltz, zuri-gorri,...). Osagai biek bereiz adie-

20: Gauzak azken burura eramanez posible bait litzateke, izan ere, **neska-mutil eder-galantak** moduko izen-sintagmak eratzea.

21: Sanskritoaren kasurako ikus: WACKERNAGEL, J. op.cit., 171. or.

Alemanaren kasurako, ikus: FLEISCHER, W. op.cit., 249. or.; PAUL, H.: op.cit., 8. or.

raziko lituzketen koloreen elkarren ondoko segida edo/eta erdi-bideko nahas-for-  
mak edo izendatzen dira horrela.

b) Antonimiazkoetan multzo kunplitu osatzen dute, orobat, zapore-das-  
tamenari buruzkoek: gazi-geza, gozo-mikatz, garratz-min, gozo-mindun,

c) Esanahi-eremu ondotoz zabalagoa estaltzen dute, halere, aspaldida-  
nik, euskal adjetibo-dvandvek: azpimarratzekoak dira horrela, beste gehiagoren  
artean, neurri-, prezio- edo pisu-esanahiaz horniturikoak.

#### XIV.2.1.5. Kategoria gramatikala

Beti-bateko arauak errespetatzen dira, oro har eta puntu honi dagokio-  
nez, adjetibo-dvandven artean. Horrela:

a) izenondoko adjetiboak izan ohi dira, normalean, osagai biak; eta  
adjetibo-balioa izan ohi dute, berebat, dvandva-elkarte horiek. Badaude, halaz  
ere, gutxi edo asko arau nagusi honetatik aldentzen diren eraikuntzak ere.  
Horrela,

b) multzo berezia osatzen dute, neurri batean, **nafar-euskaldun, fran-  
tses-euskaldun** moduko elkarteek. Pentsatu ere egin daiteke dvandva-elkarteak  
baino areago menpekotasunezko elkarte-modu (bereziren) bat ez ote diren.

c) multzorik esanguratsuena, dena dela, mailegu bidez geroz eta etxeko-  
tuago dauzkagun adjetibo erreferentziazko bikoteek osatzen dute: egoera **poli-  
tiko-soziala**, alderdi **sozialdemokrata**, adierazpide **teoriko-praktikoa**,...

#### XIV.2.2. BERRELKARKETA EDO GARAPENA

a) Adjetibo-dvandven artean posible da osagai hiruko berrelkarketak egitea. Ho-  
rrela:

"aita, zinta **txuri-berde-gorri** horiek zer dute, goardazibilek kargu  
hartzeko?"

"kontu **gogor-estu-ziurra** hartuko didate nere egite guztiena"

b) Bestelako garapen-biderik ere ez da falta. Horrela:

"hogeitabi orrialde utzi ditu **zuri-beztu** gabe"

"gerta liteke gure **jale-edale ospe** gaizto honek irozgarriren batzuk  
izatea"

c) Adjetibo-dvandvek morfologiazko batasun-maila eskuratua dutenaren beste adibide on bat graduazio-morfemen erabileran dago. Horrela:

"Portugalgo urrerik **garbi-ederrena** baino ere garbiago eta ederragoa"

#### XIV.2.3. HITZ-JUNTURAKO HOTS-ALDAKETAK

Era honetako dvandva-elkartek ez dute hitz-junturako hots-aldaketarik ageri: osagai biak bere hartan ematen dira, inolako aldaerarik gabe.

#### XIV.2.4. EMANKORTASUNA

a) Elkarte-modu emankorra da euskal adjetibo-dvandvena. Adibide apur batzuk baizik ez aipatzearren, horrela, orain gutxi eraturiko hauek har ditzagun:

- **ahur-ganbil**, gaztelaniazko "cóncavo-convexo" formaren ordaina. Orobat,
- **laun-ahur, laun-ganbil** ("plano-cóncavo", "plano-convexo").
- medikuntza alorrean, "**ambidextro**" esateko **ezker-eskuin** erabili da.
- politikaren alorrean, **kristau-demokrata, abertzale-sozialista** eta antzekoak ere maiz ageri dira.

b) Gorago esanenez geroz eta sarbide zabalagoa ageri dute, gainera, egungo euskal idaztietan (orobat ahozko zein ikus-entzunezko komunikabideetan), erdal adjetibo erreferentziazko bikoteek: arazo **politiko-erlijiosoak**, oinarri **etno-kulturala**, prozedura **fisiko-kimikoak**, etab.

Adjetibo-dvandven sailean ematen badira ere, bekoki-bekokian daramate maileguzko elkartek, euskal izen-dvandva arruntekiko lotura. Izaki desberdin bi adierazten dituzte maiz-sarri, gure **zeru-lurrek** bezala; eta euskal izen-dvandven bidez eman ezinik ere ez legoke, berez, hainbat kasutan: **fisika-kimikazko** prozedura, **erlijio-politiken** alorreko arazoak,... Beti ez dirudi, halere, horrelakorik egin daitekeenik (nola itzuli, euskal izen-dvandvez, gaztelaniazko "**base etno-cultural**"?); eta, gainera, egin daitekeen kasuetan ere, apenas askok egiten duen.

#### XIV.2.5. IDAZKERA

Adibide konkretuak izen-dvandvazkoak ematen baditu ere nagusiki (erdi-bidean gelditzen edo bait da **nagusi-langileak** delakoa), badirudi Euskaltzaindiaren 1971ko arauak, bikote-elkarteak marraz lotzea gomendatzen dutenak, balio-indar zuzenekoak direla adjetibo-dvandven alorrean ere. Araua ondo jaso bada, **zuri-gorri, nafar-euskaldun, oso-bete, argi-ilun, nagi-epel** idazkera da, hortaz, zuzena.

#### XIV.2.6. OSAGAIEN HURRENKERA

Badirudi **gorri-beltz**, edo **argi-ilun**, bezain onargarria litzatekeela, gramatikaren aldetik, **beltz-gorri**, edo **ilun-argi** moduko joskera. Ohiturak makurtuko luke halakoetan, erabilera, alde batera edo bestera.

#### XIV.3. ADIZLAGUN- ETA ADITZONDO-DVANDVAK

Aurreko dvandva-motak bezain mugatzen errazak ez badira ere, diogun, izen-sintagmaren arauzko ihardupideetatik kanpora jokatzu aditzaren jira-biran dabiltzan bikote-eraikuntzek osatzen dutela, sailkapen honetan, adizlagun- eta aditzondo-dvandven multzoa.

Adibideak: HAN-HEMEN, GAUR-EGUN, EZKER-ESKUIN, HARAT-HONAT.

- han-hemen, han-hor, hor-hemen; han-hemenka; hala-ho(ne)la;
- gaur-egun, gaur-gero, gau-egun, gau (e)ta egun; gaur-biharretan, bihar-etzietan;
- uda eta negu, su eta gar, jo eta ke (cf. Sturm und Drang); buru-belarri, ezur eta mami;
- luze-laburrean, sarri-askotan; goien-behean, goien-barren;
- ezker-eskuin(era), gora-behera (gutxi gora-behera), goiti-beheiti, gainbehera, harat-honat;
- (laztan-musuka, irri-barreka, negar-zotinka);

#### XIV.3.1. EZAUGARRI NAGUSIAK

a) Koordinazio-harremana dute osagai bien artean, ez menpekotasunezkoa.



- b) Leku-denborazko adierazpideak nagusi badira ere, ez dira horregatik esana-hi-eremu lazoagoko adibideak falta (**buru-belarri, hala-hola**).
- c) Katēgoria gramatikalaren aldetik zail da taxonomia zehatzik ematea: bai osagaien kategoriaz denaz bezainbatean eta bai, batez ere, elkarte osoarenari buruz.
- d) Berrelkarketa- eta garapen-bide murrizak dituzte, adibideen arabera: **han-hor-hemen** izango da, agian, horrelako berrelkarketarik ezagunena.
- e) Hitz-junturan ez dute berariazko hots-aldaketarik ageri.
- f) Emankortasunari dagokionez, ez dirudi elkarte-mota honek bizi-indar handirik daukanik.
- g) Idazkera dela-eta, adjetibo-dvandvetan erabilitako erizpidea argi-iturri gerta daitekeen neurrian, marra bidezko lotura dateke, hemen ere, jokamolde zuzenena.
- h) Osagaien hurrenkera, forma ihartuak direlako agian, estu mugatua dago itxuraz: apenas **hemen-hanka, gar eta su, egun-gaur, honat-harat** edo **behera-gora** inongo euskaldun petok ontzat emango lukeen.
- i) Semantikaren aldetik antonimiazko harremanak dira, hemen ere, nagusi: **han-hemen, ezker-eskuin,...**

#### XIV.4. ADIZKI-DVANDVAK

Aditz-izenkiz osaturiko dvandva-elkarteak dira, nagusiki, sail honetan biltzen direnak. Horrexegatik sortzen da zenbait zalantza, beraien eta izen-dvandven arteko zatibiketa egiterakoan. Ezaugarri bat baino gehiago dvandva-mota biek berdina badute ere, badago funtsik, ustez, bereizketa honi eusteko.

Adibideak: HARREMAN, SAL-EROSI, JOAN-ETORRI; ESAN-EGIN(AK), GALDE-ERANTZUNAK; IKUS-ENTZUN(EZKO)

aurki-idorontza, bildur-ikaraturik, esan-egin(ak), esan-egiteak, eskari-eskainak, eraman-ekarki, galde-erantzunak, galdu-gorde(ko), harreman(ak), hartu-eman(ak), ikus-entzun(ezko), itaun-erantzunak, itxi-ireki, jan-edan, jan-

tzi-erantzi, joan-etorri, joan-jin, kendu-ipini(ak), larri-izutu(rik), neka-tu-tristatu, onetsi-maitatu, ordain-kitatu, sal-erosi, sal-erosketa, sar-jalgi, sartu-atera.

#### XIV.4.1. EZAUGARRI NAGUSIAK

a) gainerako dvandva-elkarteek bezala koordinazio-harremana dute osagaiak, eta ez menpekotasunezkoa.

b) badirudi koordinazio-mota zenbait bereiz daitekeela. Horrela:

- osagarritzakoak: **jan-edan, galdu-gorde(ko), esan-egin(ak), ikus-entzun(ezko)**
- antonimiazkoak: **harreman, sal-erosi, sartu-atera, joan-etorri, galde-erantzunak, eraman-ekarki, eskari-eskainak, kendu-ipini(ak), jantzi-erantzi, itxi-ireki,...**
- tautologiazkoak: **aurki-idorontza, bildur-ikaraturik, larri-izuturik, onetsi-maitatu, ordain-kitatu**

Antonimiazko adizki-dvandvak dira beraz, itxuraz, ugarietak.

c) osagaien kategoria gramatikalaz, goian esan bezala, zalantza-bide ugari sortzen da. Badirudi, guztiarekin ere, izen-kategoria dela adizki-dvandvetan gailen. Ez ezinbestekoa, baina bai maizenik agertzen dena. Inguramendu sintagmatikoa kontuan hartzen bada, izan ere, zera ikusten da: normalean "oraingaino-ko esan-eginak" moduko inguramenduak agertzen direla, edota "atzo-ko joan-etorria oso nekosoia izan zen", eta ez "oraingaino esan-eginak" (hori ere posible da, beste esanahi batez, baina bakanago agertzen da) edota "atzo joan-etorria oso nekosoia izan zen".

d) berrelkarketa- eta garapen-biderik apenas, aditz-dvandven sailean, gaur egun erabiltzen den: **joan-jinka, har-emanka** modukoa dateke, itxuraz, garabide bizienera<sup>22</sup>.

---

22: Ikus LAFITTE, P.: **Grammaire Basque**, 156. or.

- e) hitz-junturako aldaera nabarmenena batetik **harreman, salerosi,...** eta bestetik **hartu-eman, saldu-erosi,...** formen artekoa da<sup>23</sup>.
- f) emankortasun-maila apalekoa da, itxura osoz, elkarte-modu hau. **Ikus-entzun(ezko)** da, dirudienez, azken urteotako sorkari ezagunena; eta, hori ere, arauzko erabidetik ondotxo aldentzen da.
- g) idazkeraz badirudi adjetibo-dvandven eta adizlagun- zein adberbio-dvandven alorrean esandakoak berdintsu balio izan dezakeela hemen ere: **sartu-irten, itxi-ireki, esan-egin(ak), joan-etorri, eraman-ekarki**.
- Salbuespen ageriena **harreman**-ek osatuko luke, itxuraz.
- h) osagaien hurrenkera arras lotua ageri da hemen ere, forma ihartuak direlako seguru asko.

#### XIV.5. ZENBATZAILE-DVANDVAK

Aurreko atalekoak bezain ugariak ez badira ere, euskal zenbatzaileek badute beren dvandva-elkarkera propioa.

Adibideak: SEI-ZAZPI, BIZPAHIRU, GUTXI-ASKO.

- bat-bi, bi-hiru, hiru-lau, lau-bost, bost-sei, sei-zazpi, zazpi-zortzi, zortzi-bederatzi, bederatzi-hamar, hamar-hamaika, hamahiru-hamalau; zortzi-hamar, zortzi-hamabi, hamar-hogei, hamabi-hamalau; hirurehun-laurehun
- bizpahiru, hiruzpalau, lauzpabost, bospasei
- gutxi-asko

##### XIV.5.1. EZAUGARRI NAGUSIAK

- a) koordinazio-harremanezkoak dira osagai bien arteko lokarriak, ez menpekotasunezkoak.

---

23: Ikus KAMIÑAZPI (Etxaburu'tar Jose Mari), in: **Euskera** 1979-2, 737 hurr. Ikus, orobat, Azkueren hiztegiko bereizkuntza.

- b) koordinazio-mota erabiliena (n, n+1) erakoa da: hots, bata bestearen ondoko zenbakiak osatzen dute normalean bikotea, txikitik handirako ordena logikoari eutsiz.
- c) osagaien kategoria gramatikalaz, ohar bi egin daitezke:
- **gutxi-asko** dvandva-mota besteetatik aski berezia da
  - **bizpahiru, hiruzpalau,...** motaren jatorria ere apartekoa da itxuraz<sup>24</sup>
- d) berrelkarketa askorik agertzen ez bada ere sail honetan, ez dirudi (lehen atalean behintzat) ezinezkoa denik: "**sei-zazpi-zortzi** ardi galdu zaizkio artzainari" esaldiak onargarria dirudi, behintzat. Bestelako garapen-moldeak ere ageri dira, noizean-noizean: **hamabost-hogeitsu,...**
- e) hitz-junturako hots-aldaketarik ez da, **bizpahiru** gisako formek adierazitakoa salbu, gertatzen.
- f) lehen atala emankorra da, gaur egun ere: "hemendik **seiehun-zazpiehun** kilometrorra dago Orléans" esan dezakegu, zenbatzaile-dvandva kolpean sortuz, beharrean sentitu orduko.
- g) idazkerari dagokionez,
- **bizpahiru** modukoak loturik idazten dira.
  - gainerakoetan baliozkoa izan liteke, kontrakorik esaten ez bada, Euskaltzaindiaren izen-dvandvei buruzko 1971ko erabakia: **sei-zazpi, hamar-hogei, berrehun-hirurehun.**

#### XVI.6. GALDEKARI-DVANDVAK

Adibide-kopuruari dagokionez arras murrizak izanik ere, kontuan hartzekoak dira, azkenik, dvandva-mota hauek.

Aspaldidanik erabiltzen diren noiz-nongo, zer-nola(ko),... modukoetan ohargarria da gehienak **-ko** morfemaz horniturik agertu ohi direla.

Aski iturri desberdinetik, eta mende honetan bertan seguruenik, sorturiko **non-zer, nor-nori, zer-nori-nork** modukoak ere hemen sartzekoak direla dirudi, azkenik.

---

24: Ikus LAFITTE, P.: **Grammaire Basque**, 79. or.



XV. SINBOLISMO FONETIKOZ ETA HOTS-UZTARDURAZ SORTURIKO HITZARTEAK



SARRERA

Hitzarte hauek ez dira, berez, erabateko hitz-elkarteak. Horren arrazoi nagusia, bakarra ez bada ere, sorkari horien iturburuko motibazio berezian da-tza. Hitzak eta hitz-atalak edo hizkiak, edukin eta formaz osaturiko aurpegibiko txanponak diren neurrian, era desberdinetan elkarrengana ere litezke hitzarte zabalagoak sortzerakoan. Edukina izan ohi da, hitz-elkartearen kasuan, motibazio-oinarri nagusia; eta, horrela, mugatzaile/mugakizun harremanean sustraitzen dira **eguzki-lore**, **sudurluze** eta antzeko beste hainbat sintagma gramatikal.

Sinbolismo fonetiko eta hots-uztarduraz sorturiko hitzarteak bestelakorik dira, ordea: forma da horrelakoetan, eta ez edukina, sorkari berriaren motibazio-oinarria: **mara-mara**, **dinbi-danba** edo **duda-muda** moduko hitzarteetan nekez aurkituko da edukinez, esanahiz, ongi isolaturiko hitz-bikoterik, mugatzaile/mugakizun harreman-bidez sintagma gramatikal ohizkorik sortzen duenik.

Belokeko jardunaldietan esan bezala<sup>1</sup>, hitzarte hauen status linguistiko berezia aurrez aurre aipatu eta azpimarratzea komeni da lehenik. Eta, ondoren, hitz-elkarte moduan baino areago erabide horren osagarri gisa aztertuko da<sup>2</sup> hitzarte-mota hau.

SAILKAPENA

Hiru atal nagusi bereiz litezke hitzarte hauen alorrean:

- hots-errepikak: **pil-pil**, **dar-dar**, **ttun-ttun**, **dirdir**.
- ablaut-taldeak: **zipli-zapla**, **dinbi-danba**, **plisti-plasta**, **kili-kolo**.
- errima-bikoteak: **duda-muda**, **zehatz-mehatz**, **nahas-mahas**, **txitean-pitean...**

Lehenengo atal biek badute, alde batera, elkarren arteko lokarri esturik: hotsaren eragina sendoagoa da bi horietan, hirugarrenean baino. Posible

---

1: Ikus bertan aurkezturiko "Hitz-elkarketa lantzeko erizpideak" izeneko txostena, bereziki III.2. puntua (29. or.).

2: Hala egin izan ere du, bidenabar esan, hainbat euskal gramatikarrik: L. Villasanté, J.M. Irazola, etab.ek.



litzateke, alde horretatik, elkarte-moduon sailkapena lehen-lehenik atal bitan egitea (batetik hots-errepikak gehi ablaut-taldeak, eta bestetik errima-biko-teak). Sailkapen-modu biak dira itxuraz posible, bakoitzak bere on-gaitzak dituelarik. Hasierako aukerari eutsi zaio hemen, alde bateko eta besteko erizpi-deak kontuan izan ondian.

Goiko hiru atal horietariko bakoitza berez bere landuz adieraziko dira beraz, ondoren, hitzarte berauen zertzelada nagusiak.

### XV.1. HOTS-ERREPIKAK

Adibideak: PIL-PIL, DAR-DAR, TTUN-TTUN, DIRDIR, MARMAR.

arra-arra, bala-bala, bar-bar, barra-barra, bor-bor, bris-bris, dan-dan, dar-dar, (dandar(a), -tu, -ti, -ka,...), dilin-dilin, dir-dir, diz-diz(-ka, -ari, -ara), dran-dran, dun-dun, durdo-durdo, fiut-fiut, gal-gal, kask-kask (kaxk-kaxk), kili-kili, kirkir, klik-klik, kuku, kulu-kulun(ka), marmar, mara-mara, mur-mur, ñir-ñir, pafa-pafa, parra-parra, pil-pil, pir-pir, raka-raka, taka-taka, tal-tal, talan-talan, tanka-tanka, tapa-tapa, tarra-tarra(ta), tarraka-tarraka, taup-taup, tenga-tenga, ttun-ttun, txan-txan, txin-txin, txio-txio(ka), txor-txor, xirri-xirri, xurru-xurru, zafla-zafla, zarra-zarra.

#### XV.1.1. EZAUGARRI NAGUSIAK

Beste hainbat hizkuntzatan bezala ez da erraza izaten, euskararen kasuan ere, hots-errepika hauek **bai, bai...; tira, tira...; ea, ea...; arre, arre...; xapi, xapi...** moduko bikoiztapen libreetatik bereizten. Zailtasuna, batez ere, honetatik dator: hots-errepika hauek ez dutela, gehienetan, morfologiazko batasun-mailarik eskuratzen. Eta, ondorioz, nekez esan daitekeela hots-errepika horiek honenbestez hots-hitzak ere direnik. Badira, ordea, eta **dar-dara, dizdiza, kirkirra, kukua, marmarra** edo **ttunttuna** ezin izango dira horren lekukorik ahulenak, hots-errepika hutsetik hots-hitzerako ibilera azken bururaino eraman izanaren adibide sendoak ere. Hitzarte hauen status morfologikoaz eztabaida luzeagoetan sartu gabe, dauden-daudenean hartuko dira beraz, hemen, hots-errepika hauek. Beren ezaugarri nagusiak, hitz gutxitan esanik, honako hauek dirateke:

a) Semantikaren aldetik, hots baten errepika etengabe eta monotonoa dateke, euskararen kasuan ere<sup>3</sup>, maizenik jasotzen den balioa: **marmar**-rean ari den jendeak, atean **kax-kax** jotzen deneko sentipena, behialako tren-bagoien **traka-traka-k**, **kuku**-aren kantu ezaguna, eta **kirkir**-raren ilunabarreko jardunak, supazterrean **gal-gal**, **pil-pil** edo **bor-bor** ari den eltze-jendeak, mendi-malda urrunetatik iristen den artaldearen **talan-talan-ak**, edo **ttun-ttun**-aren dan-tza-deiak berekin dakarren hots-doinua nabarmenegia da, jakina, horretaz ez jabetzeko. Uste okerra litzateke, ordea, errepikapen guztiotan hots-zantzua bertatik bertara antzeman daitekeela uste duenarena: **pil-pil** bera ez dago beti, xuxen erreparatzen badugu, hots-seinaleei lotua ("betileak **dar-dar** eta bulartea **pil-pil**", "brehala jartzen dituk **pil-pil**-ean", "pozez **pil-pil**-ka natorkizu",...). Eta are adierazgarriago dena, errepika askok apenas inoiz ere inolako hots-zantzurik buru-muina dakarkigunik: zein hots dagokie, izan ere, **mara-mara** ari den elurrari, ustegabeko **kili-kili**-ari, galtzarpetik behera **arra-arra** datorkizun izerdiari, larritasunak eragindako **dardar**-rari edo gau oskarbietan **dizdiz** egiten diguten urrutiko izarrei?

Gauza batean kideko dira, ordea, errepikapen guztiok, hots-iturri izan ala ez: adierazkorrak dira, sentipen-pizgarriak, alegia. Hortik datorke, agian, hurrekiko hizkeran honelako hitzarteak hain ugariak izatea: **ttaka-ttaka**, **po-po**, **ttu-ttua**, **tto-ttoa**,...

b) Kategoria gramatikalaren aldetik adberbio-balioa da, itxura osoz, maizenik ageri dena: "elurra **bala-bala** erori", "begiek **bris-bris** egiten zioten", "orain **barra-barra** kantatzen diren zenbait doinu", "alde batetik bestera ikaraz **dar-dar** zebiltzan", "Bidasoak **kulun-kulunka** daragio Hondarribiari", "mendietatik **mur-mur** dator ur ederra", "kea **pafa-pafa** egotziz", "**bazetozen** txalupak **parra-parra**, patxada onean", "orduendi batean **pil-pil** irakiten eduki", "hasi nintzen eta **raka-raka** ederki igeri", "**tapa-tapa**, geldi-geldi, **jarraitu** zion bere bideari", "gelaria lur-sagar **xuritzen** ari zen **zarra-zarra**".

Badira, ordea, bestelakoak ere. Izenak bereziki: **dardarra**, **marmarra**, **dizdiza**, **kukua**, **kirkirra** edo **ttunttuna**, esate baterako. Kasu hauetan, orobat

---

3: Ingelesaren kasurako, ikus MARCHAND, H.: *The categories and types of present-day english word-formation. A synchronic-diachronic approach*, Otto Harrassowitz, Wiesbaden, 1960, 46. or.

bakanago ageri ohi diren aditzetan, badirudi konbertsiozko edo eratorpenezko sorkariak ditugula eskuartean. Eratorpenari dagokionez **-ka** atzizkia da, itxuraz, ugariena: **dir-dirka, kulun-kulunka, pil-pilka, txio-txioka, dardarka.**

#### XV.1.2. BERRELKARKETA

Hitz-elkarketa nagusiki ondoko bi ezaugarriok definitzen dute:

- mugatzaile/mugakizun lanean edota koordinaziozko lokarriaz ari da hitz-bikotea, erlazio-atzizkirik gabeko harreman sintagmatiko bera-riazkoa osatuz; eta
- bikoteak halako batasun-maila bat eskuratzen du, bai esanahiaren aldetik eta bai, neurri ahulago batean, morfologiaren alorrean ere.

Baldin batasun-maila hori eskuratua duen eraikuntza sintagmatikoa harantzagoko eraikuntza sintagmatiko berri batean txertatzen bada, mugatzaile nahiz mugakizun moduan, berrelkarketaz hitzegiten da.

Hitzarte honen aurkezpena egiterakoan eman diren arrazoiak kontuan izanik, zentzugabea da, neurri on batean, hots-errepikapenen kasuan berrelkarketaz hitzegitea. Azalpide sistematikoari bere hartan eutsi nahirik haizu bedi, halore, izendapen-molde honetaz baliatzea.

Hots-zeinu bat hiru edo gehiago aldiz errepikatzeari esango zaio hemen, hortaz, berrelkarketa.

Esanahi berezi horri eutsiz, hots-errepikapenetan berrelkarketa nahikoa sarri egiten dela esan daiteke. Hona adibide bakar batzuk: **bir-bir-bir, dal-dal-dal, dar-dar-dar, dir-dir-dir, gol-gol-gol, kar-kar-kar, kask-kask-kask, klun-klun-klun, po-po-po(t), zar-zar-zar, zarta-zarta-zarta.**

Berrelkarketa hauen eginkizun bakarra, adierazi nahi den ekintzaren izaera etengabe eta errepikakorra are modu sendoagoan azpimarratzea dela dirudi.

#### XV.1.3. JUNTURAKO HOTS-ALDAKETAK

Hots-errepikapenetan, zeinu bakoitzak duen status morfologiko berezia kontuan izanik, nekez hitzegin daiteke hitz-junturaz, elementu bata nahiz bestea

ez bait da gehienetan hitza. Ohar hori kontuan izanik bidezkoa da esatea, dena dela, nola-halako juntura hauetan ez dela normalean hots-aldaketarik gertatzen. Aski jokabide desberdina ageri dute hitzarte hauek, honetan ere, hitz-elkarte gehienen ondoan.

#### XV.1.4. EMANKORTASUNA

Ez dirudi era honetako hitzarte berri asko sortzen denik eguneroko mintza-jardunean. Ezintasuna ez litzaioke hemen, halaz ere, erabide horren mekanismo sintagmatikoak ez ezagutzeari sor; errepikapena, soila nahiz anitza, aski baliabide erraz eta argia da. Eragozpena hitzarte hauen motibazio-iturri berezian datza: hots-zeinu biluzia, morfema oso baten mamirik gabea, denez hitzarte hauen lehengaia, zaila gertatzen da, bertatik bertarako imitazioz ez bada, horrelako errepikapen berriak sortzea. Badirudi, bestalde, imitazio-bide horiek errazago lantzen direla idazlanean: eder-asmozko idazlanean, ez edozeinetan; eta poesian, agian, inon baino areago.

#### XV.1.5. IDAZKERA

Honako lau ohar hauek dira, nagusiki, hots-errepikapenei dagokienez, kontuan hartu beharrekoak:

a) Treadizioak ez du, mende eta eskualde desberdinetan zehar, puntu honi dagokionez, ildo bakarrik urratu: batzutan bereiz idazten dira hots-zeinu errepikatuok ("begiek **bris bris** egiten zioten"), beste batzutan zeharo bat egini ("kukuak **kuku** pago gainetik") eta batzutan marratxoaz loturik ("Frantzia **dar-dar** zegoen")

b) Euskal gramatikan ez da puntu honetaz aipamen handirik egiten.

c) Euskal hiztegietan ere, oro har, idazlanetako aniztasuna bere horretan ageri da.

d) Euskaltzaindiak hitz elkartuen idazkeraz eta marratxoaren erabileraz eskainiak dituen arauetan ez da, orobat, puntu honetan aurrez aurreko adierazpenik egiten.

Lau ohar hauen ondoan badaude, ordea, kontuan hartu beharreko beste hirurok ere:

e) Testuetan hiru eratako idazkerak (bereiz, bat eginik, marratxoaz loturik) ageri badira ere, ez dira hirurak neurri-hedadura berean ageri: erabilmaiztasun handieneko idazkera, txosten honen iturburu gisa erabili den adibide-tegiaren arabera, marraz loturikoa da. Neurketa zehatza egiteke badago ere, bitatik behin edo erabiltzen da marra.

f) Idazkera bat ala beste erabiltzea ez da, gainera, zori hutsezkoa. Hots-errepikak hitz-maila osatuagoa eskuratzen duenean (konbertsioz edo eratorpenez ohiz kanpoko balio gramatikala eskuratuz, bide batez), askoz normalagoa da hitzarte hori bat eginik idaztea: **mamarra, dardara, dirdira, dizdiza, kukua, ttunttuna, kirkirra; dardarka, pilpilka** (baina txio-txioka).

g) Hots-errepikapenez Euskaltzaindiak aurrez aurreko arau zehatzik eman ez badu ere, hitzarte hauen hurbileko eraikuntzak diren ablaut-taldeez eta erri-ma-bikoteez (ikus txosten honen XV.2. eta XV.3. atalak) badu azalpenik emana: Horrela 1971ko Euskera-n, "puntuazio marka batzuk non, noiz eta nola jarri" ize-neko agirian, marratxoa erabiltzea gomendatzen da "hitz elkartearen bigarren zatia lehenbizikoaren oiartzuna denean. Adibidez 'tarteka-marteka', 'nahas-mahas', 'duda-mudatan'".

Badirudi, guzti horregatik, hots-errepiken idazkeraz inolako araurik ematekotan ondoko hau izan litekeela biderik egokiena.

a) normalean, marratxoaz: **mara-mara, pil-pil, ttaka-ttaka, txio-txio, bor-bor, parra-parra, kili-kili, bala-bala,...**

b) hitzartea aspaldidanik izen bihurtua badago (konbertsioz) edo eratorpenezko sintagma batean txertaturik badago, zeharo bat eginik idaztea hobe: **mamarra, kukua, kirkirra, dardarka, dizdizari,...**

## XV.2. ABLAUT-TALDEAK

Adibideak: ZIPLI-ZAPLA, DINBI-DANBA, TIRRIKI-TARRAKA, PLISTI-PLASTA, KILI-KOLO

bilin-bolaun, binbi-banba, binbilin-banbala, binbili(n)-bonbolo(n), briu-brau, dilin-dalan, dilin-dolon, dinbili-danbala, dringilin-dron, dsist (eta) dsaut, firi-fara, flix-flax, fristi-frasta, hinki-hanka, hirrimili-harramala, inji-anju, ipi-apa, kikili-makal(a), kili-kolo, kinkiri-kunkuru, kirri (eta) karra, kirriki (eta) karraka, k(ir)ris(k)-k(ar)ras(k), kiski-kaska, klin-klan, pinpi-

-panpa, pinpipi-panpapa, piri-para, plin-plan, plisti-plasta, tiki-taka, tiki-li-takala, tiliki-talaka, tinki-tinka, tinkiti-tanka, tinpiti-tanpa, tipi-tapa, tipili-tapa, tipus(t)-tapas(t), tititi-tata, txipli-txapla, unju-anja, unju-anju(-anju), zingulu-zangulu, zingun-zangun, zipirti-zaparta, zipli-zapla, ziri-zara, zirripi-zarrapa, zirruntz-zarruntz, zirt-zart, zirt edo zart, zirti-zarta, zis(ti)-zas(ta), zizt (eta) zazt, zirriki zarraka.

Inoiz esan izan da euskarak ez duela jatorriz ablaut-fenomenorik ageri eta esaldi horri aurpegi ematen edo dio, oso neurri apalean bada ere<sup>4</sup>, hitzar-te-molde honek. Adierazpen batak eta besteak ez dute, halere, nahi eta nahi ez, elkarren ukatzaile eta bateraezinak izan beharrik. Ablaut-taldeok aski isolaturik ageri bait dira, nolnahi ere, hizkuntza osoaren baitan. Bokal-aldaera edo apofonia, beste hainbat hizkuntzatan ageri dena<sup>5</sup>, ablaut-taldeon zeregin-esparrutik agitz harantzago hedatzen da gainerako hizkuntza horietan: bai horrela-koetan duen morfologiazko baliabide sendoaren izaeragatik eta bai, bide batez, hots-zeinu adierazkorren eremutik kanpora hitz-erro arruntetara ere iristen delako.

#### XV.2.1. EZAUGARRI NAGUSIAK

Sinbolismo fonetiko eta hots-uztardurei buruzko atal honen hasieran esan denez, arrazoi asko daude hitzarteok elkarketa baino areago sasi-elkartetzat hartzeko. Hartarako arrazoi nagusia, bakarra izan gabe ere, bere motibazio-bide berezian datza. Ondoko ezaugarriok definitzen dute, alde horretatik, ablaut-taldeon berariazko izaera:

a) Osagaien izaera gramatikala: ablaut-taldeetako osagai bat, bigarrena normalean, morfema edo sasi-morfema da. Bestea ez, ordea: oinarri gisa diharduen morfema edo sasi-morfema horren bokal-hots desberdineko osagaia izaten da gehienetan bigarren hori. Horrela, **zirt(i)-zart(a)** moduko ablaut-talde baten bigarren osagaia morfematzat har daiteke, **esku-zarta**, **zartatu** eta antzeko kasuetan morfe-

---

4: Ikus HOLMER, N.: "A historic-comparative analysis of the structure of the basque language", in: **Fontes Linguae Vasconum**, II (1970), 8. or.

5: Hizkuntza indoeuroparren azalpen ezagun bat aipatzearen, ikus PALMER: **Introducción al Latín**, 235. or.

ma eta are hitz-izaera eskuratua ere duenez. Bide horretan barrena jarraituz posible genuke beste hainbat lokarri ere aurkitzea. Adibidez,

**zist(i)-zast(a)** → **zastada** (baita **zistada** ere, agian)  
**dinbi-danba** → **danbada, danbatekoa**  
**zipli-zapla** → **zaplada, zaplatekoa** (cf. orobat **zafla-zafla, zafla-ko, ...**)

Bigarren osagaia da normalean, esan bezala, ablaut-taldeon morfema-oinarri gisa diharduena.

Zaila da, ordea, adibide guztietan horrelako lokarririk aurkitzea: non dago morfemarik, izan ere, **tiki-taka, dilin-dalan, dsist-dsaust, pinpi-panpa, ipi-apa** edo **inji-anju** moduko ablaut-taldeetan?

b) Hots aldetiko ezaugarriak: Goian emandako adibideetatik ikus daitekeenez [i-a] geminazioa da, askotxogatik, ablaut-talde gehienetako hots-uztardura: **zipli-zapla, dinbi-danba, tirriki-tarraka, plisti-plasta**. Indoeuropar hizkuntzetan hain ezaguna den apofoni forma dugu hau: gaztelaniazko **tic-tac, zig-zag, triqui-traque**, ingelesezko **dingle-dangle, mishmash, fiddle-faddle** edo alemanezko **Hickhack, Tingeltangel, Wirrwarr** moduko hots-uztarduren pare-parekoa.

Badira, ordea, bakanago izan arren, bestelakoak ere. Horrela, [i-o] moduko hots-uztardurak ageri dira batetik: **kili-kolo, binbilin-bonbolon, dilin-dolon**. Badira [u-a] modukoak, bestalde: **unju-anja, unju-anju**. Eta ez da, azkenik, tarte-bitarteko nahas-formarik ere falta: **bilin-bolaun, dsist-dsaust, inji-anju, tipus(t)-tapas(t), ...**

Arau nagusi bat ematekotan, ondoko hau esan daiteke: bokal altueneko osagaia doa aurrean, eta apalenekoa atzean<sup>6</sup>. Bokal-hots altua gehienetan **i** dela kontuan izanik, honela adierazia du P. Larzabalek<sup>7</sup> delako arau hori: "i, musika-ren aldetik, da geienetan gora doinukoa. Bi zatitako ots-izenetan, i aurkitzen

6: Ingelesaren kasurako, ikus MARCHAND, H.: op. cit., 347 or. (8.2.5. puntua).

7: Ikus LARZABAL, P.: "Ots-izenez oharren zenbait", in: **Euskera**, XX (1975), 293-300 or.

da usuenik lehen zatian. Bigarren zatian, i ordaindua da bertze bokala batez eta bertze hori ahozkatzen da, zenbait nota i baino apalagotik".

c) Semantikazko balioa: ablaut-taldeek burubiko izaera dutela esan izan da, esanahiari dagokionez<sup>8</sup>: bai soinu-zaraten adierazgarri direnean, bai harat-honateko mugimendua azaltzerakoan eta bai, azkenik, baliobiko beste zenbait gertakizunen seinale diren kasuetan. Bipolaritate hori nabarmenagoa da itxuraz, euskararen alorrean, soinu-zaraten adierazgarri diren ablaut-uztarduretan: besteena ez da, lehen azterraldi batean behintzat, hain gauza argia.

d) Kategoria gramatikala-ren aldetik adberbio-balioa edo dute, gehiengotan, era honetako hots-uztardurek. Adibide batzuk aski izango dira horren frogagarri:

- Bazekien **zirt-zart plantatu** ezik ez zegoela harekin zer eginik
- **zipli-zapla** zubia **purrukatu** genien
- Balak nonahi **zis-zas zebiltzan**
- Euskaraz irakurtzen **kili-kolo dabiltzan** batzuk izan litezke
- **Krisk-krask** hogeitabost berdeak **mila zati egin** zituen
- **Hinki-hanka** **ibiltzeaz** ez da ahalge
- Tximist etengabeen distirek **flix-flax argitzen** zuten gela
- **Dinbi-danba** **aditu** ziren tiro bi
- **Plisti-plasta sartu** zen lokatza mugituz
- **zirt edo zart egin** beza geroak

Adberbio nolabaitekoak lirateke, halere, direlako ablaut-taldeok. Aditz inguruko adierazgarri bereziak direla esatea zuzenago litzateke, apika.

Badira, gainera, izen-moduko uztardurak ere. Horrela, esate baterako:

- Han ziren **anju-unju** eta **unju-anjak**
- Sanjoan suaren **zirti-zartek** eta kantuen oihartzunek
- **Kirris-karras** handiaz joan ziren aldare ondoraino
- Beren **inji-anju** guztiekin harrotu egingo ziren
- Mirakuiluak eta abar, oso xeheki, **ipi-apa** xume eta aintzin-gibel askorekin kontaktzen ditu.

---

8: Ikus MARCHAND, H.: op. cit., 352 orr. (8.5.3. puntua).



Badirudi, halakoetan, konbertsiozko fenomenoa gertatu dela. Hots, lehen ataleko adberbio edo aditz-inguruko adierazgarrietatik sortutako formak direla azken hauek.

Kasu bakan batzutan -ka atzizkiaz perpauseraturik dauden hots-uztardurek ere guztien iturburua lehen atalean dagokeela pentsatzera bultzatzen dute. Horrela:

- Hormetako harriak **kris-kras-ka** puskatzen
- Harri handi batzuk etorri ziren **bilin-bolaunka** goitik behera.

#### XV.2.2. BERRELKARKETA

Esan dezagun, hasteko, XV.1.2. puntuan egindako sarrera-oharrak berdin-berdin balio duela hemen ere: osagai bitik gorako uztardurei esango zaie hemen, nolabait behar eta, berrelkarketa.

Ikuspegi horretatik, ablaut-taldeen berrelkarketa gertaera bakan eta ohiz kanpoko delako esan daiteke zalantza handirik gabe: adibide gutxi aurkitzen dira era horretakoak; eta, gutxi horietan ere, oso dudazkoa da hots-uztardura hauen mekanismoa (bokal-aldaeraz polaritate-sentipena ernarazten duena) bigarrenez aplikatzen den. Oinarritzko ablaut-taldearen behindaberrizko errepika edo indarbizitzea izan daitekeela dirudi, ezer izatekotan, berrelkarketa hauen egin-behar bakarra:

- Han ez zegoen urari ihes egiterik. **Plisti-plasta plisti-plasta** hortikan San Markon barrena.
- Harkaitz tartetik hor hasi zaizkigu **unju-anju-anju** eta tiroka moroak.

#### XV.2.3. JUNTURAKO HOTS-ALDAKETAK

a) Osagai biek tarte-bitarteko junturan ageri dituzten bi fenomenoetarik bat ez da berez junturari dagokiona, osagai bien bukaerakoa baizik. Horrela, egonezin nabarmena ageri da osagai-bukaerako hainbat kontsonante-(inoiz bokal-) hotsetan: **binbili(n)-bonbolo(n)**, **kili(n)-kolo(n)**, **tipus(t)-tapas(t)**, **zingun-zangun** vs. **zingulu-zangulu**, **zirt(i)-zarta(a)**, **zist(i)-zast(a)**

b) Bada halaz ere, horretaz gainera, junturako hots-gertaera bereziagorik. "Fugenelement" moduko hots eta are hots-multzoa da, alegia, kolokan edo antzematen dena. Horrela, **tipi-tapa** formaren ondoan, **tipili-tapa** dago, eta **tili-tala**-ren ondoan, **tititi-tata**.

Ez dirudi, halere, aldaera-moduok aurreko puntuan adierazitakotik hain bestelakoak direnik. Bietariko nahas-formak edo ez dira, behintzat, falta:

**pinpi-panpa**, baina **pinpipi-panpapa**  
**tipi-tapa**, baina **tipiti-tapata**  
**binbi-banba**, baina **binbilin-banbala**

#### XV.2.4. EMANKORTASUNA

Ablaut-taldeen bidezko hots-uztarketa ez da gaur egun, itxuraz, emankorra. Edota zuzenago litzateke, agian, gaur egun apofoniazko hots-uztardura berri gutxi sortzen dela esatea. Bereizketa hori egitea ez da agian alferlana izango, berezko ezintasunik ez bait dirudi legokeenik sorkari berriak prestatzeko. Eta, berezko ezintasunik ez egonik, zergatik sorkari berririk sortzen ez den inork galdetuko balu, ez litzateke agian erantzunik aldrebesena P. Larzabalek goian aipaturiko artikuluaaren amaieran, "ondar-solas" gisa, dioena: "gaur, asko euskal ots-izen aldatzen ari dira... Alabainan, ingurumena aldatu delakotz, gaurko hotsak ez dira lehengoak... Bertzalde, erdarak itotzen ari gaituelakotz, gure belarriak, mingainak bezala, ari zauzkigu erdaldun bilakatzen".

#### XV.2.5. IDAZKERA

Badirudi ablaut-taldeen idazkeraz, errima-bikoteenaz bezala, arau zehatza emana duela Euskaltzaindiak. Honela dio izan ere (ikus Euskera, 1971, 153. orr.), hitz-elkarteetan marratxoa noiz erabili eta noiz ez finkatzerakoan: marra jarri behar da "hitz elkartearen bigarren zatia lehenbizikoaren oiartzuna denean". Ondoren eskaintzen dituen hiru adibideak errima-bikoteak badira ere, ebazpenak ablaut-taldeentzat ere berdin-berdin balio duela dirudi.

Lehendikako joera nagusia, autore eta garai desberdinetan, ablaut-taldeak marraz idaztea izan dela esan daiteke, gainera, eraskin gisa eskaintzen diren adibideen arabera. Eta ez dirudi, beraz, puntu honetaz eztabaidagai handiagorik legokeenik.

### XV.2.6. SASI-UZTARDURAK

Ablaut-taldeen azken ohar bat egitekotan, zenbait esamolderen izaera berezia aipa daiteke.

a) Osagai bien artean **eta** zein **edo** konjuntzioa izaten da, nagusiki, sasi-uztardura batzuren berezitasuna. Horra zenbait adibide:

- **zirt edo zart** egin beza geroak
- berehalaxe hasi zitzaidan sabela, filarmonika bezala **kirriki eta karrika**
- sagu eta arratoi ikaragarriak **kirri eta karra** zurari aginka
- kaioak goitik behera **dsist eta dsaut** sartzen dira arrain-piloaren erdian.

Bada are urrunagokorik ere. Horrela:

- belarri-zulotik **zizt eta izterretik zazt**.

b) Ablaut-taldeen eta errima-bikoteen tarte-bitarteko nahas-formarik ere ez da, azkenik, falta:

- ez bait da **kiliki-makal(a)** ibiltzen diren horietakoa
- iritziei dagokienez, gezurrezko iritzien **nahaste-borraste** bat
- hitzaurre, sarrera ~~edo~~ dena delako **zirriborro**-pilo hau

### XV.3. ERRIMA-BIKOTEAK

Adibideak: DUDA-MUDA, ZEHATZ-MEHATZ, ZURRU-MURRU, NAHAS-MAHAS, JIRA-BIRA, TXI-TEAN-PILEAN

aiko-maiko, aitzaki-maitzaki, aldo-maldo(ka), angula-mangula, autu-mautu, auzi-mauzi, bildur-mildur, duda-muda, ele (eta) mele, elur-melur, erran-merran, esamesa, fits-mits, handi-mandi, harroska-marroska, hasi-masi, hautsi-mautsi, hazur-mazur(rak), herrixka-merrixka, hitz eta pitz, hizka-mizka, hondar-mondar(rak), ika-mika(ka), iker-miker(ka), ikusi-makusi, ilu-milun(ka), inguru-min-guru, iritzi-miritzi, irri-mirri, isil(ka)-misil(ka) (ixilka-mixilka), iskil-miskil, itzuli-mitzuli, ixtorio-mixterio?, izkiri-miri, izkutu-mizkutu(ka), jira-bira, jira (e)ta bira, kako-mako, keinu-meinu, kokolo-mokolo, kuku-mikuka,

kux-mux, nahas-mahas, saltsa-maltsa, saski-naski, sino-mino, surmur, tarteka-marteka, tira-bira, tira-biraka, to(t)tel-motel, tteke-meke, tximist, txinta-minta, txiri-biri, txirula-mirula, txirri-birri, txirri-mirri, txitean-fitean, txitean-pitean, txoko-moko, txurrute-murrute, txutxu-mutxu(ka), txutxu-putxu(ka), uka-muka, zaldiko-maldiko, zarra-marra, zarra-parra, zeharka-meharka, zehatz-mehatz, zinak eta minak, zinkulin-minkulin, ziri-miri, zitzi-mitzi, zizka-mizka, zoko-moko, zurru-burru, zurru-murru, zurru (e)ta purru.

### XV.3.1. EZAUGARRI NAGUSIAK

a) Erdara batzuekiko ahaidetasun nabarmena dute euskal errima-bikoteok. Nils M. Holmer-ek<sup>9</sup> aspaldisko aipatu zuenez georgierazko **uzar-mazar** "izugarri handia, -tzar", armenierazko **alxamalxa** "trasteak", turkierazko **paša-maša** "hainbat eta hainbat 'baja' edo 'paso' modukoez gainera, hor daude gaztelaniazko **tiquis miquis, ni oste ni moste, chirlo mirlo, zangamanga** hitzarteak ere. Eta, era beretsuan, hor daude ingelesezko **boogie-woogie, hodge-podge, hugger-mugger, poke-moke, willy-nilly, mumbo-jumbo, lovey-dovey,...** edota alemanezko **Hokuspokus, Kuddelmuddel, Techtelmechtel, Heckmec, Larifari,....**

b) Errima da, izendapenak berak aditzera eman nahi duenez, hots-uztardura hauen ezaugarriarik nabarmenena. Bigarren osagaia lehenengoaren oihartzuna da eta, ablaut-taldean kasuan ez bezala, erabateko errima bideratzen dute uztardura hauek.

c) Semantikazko balioaz denaz bezainbatean, beste hots-uztarduretan bezain agerian dago hauetan ere helburu nagusia ez dela burujardunaren ondoriozko mezu serioak adieraztea, gizakiok hain geure-geureak ditugun emozio-sentipenak ernatzea baizik.

Zenbait bikoteri darion izkutu-kutsua nabarmena bada ere (**isilka-misilka, esamesa, zurru-murru, ixtorio-mixterio, txoko-moko,...**), nekez esan daiteke ezaugarri hori hots-uztardurari berari darionik: oinarri gisa diharduten hitz edo elementuak dira halakoan, beti edo gehienetan, izkutu-kutsu horren iturri.

---

9: HOLMEL, N.M.: **El Idioma Vasco hablado**, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia, 1964, 56-57. orr.

Honek ez du halere esan nahi euskal errima-bikoteak, hizkuntza indoeuroparretariko beste zenbait bezala, sorginkeria, azti-kontu eta antzeko jardunetarako apropos-aproposak gertatu izan bide ez direnik. Haur-jolasen alorrean ere erabilmaiztasun handikoak izanak dira, itxura osoz, errima bidezko hots-uztardurok.

Guzti hori hala izanik ere askozaz eremu zabalagoa estaltzen dute, semantikaren aldetik, errima-bikoteek: desordena, zalaparta eta zurrumbiloa adieraz dezaketenak baztertu gabe ere (**nahas-mahas**, **saski-naski**, **jira-bira**,...), bistan dago gehienei nekez egotzi ahal izango zaiela hain esanahi-kutsu zehatzik.

Ez dago garbi, orobat, errima-bikoteek halako gutxiespen-kutsurik dutenik, deblauki, berekin: Marchand-ek<sup>10</sup> ingelesarentzat, Fleischer-ek alemanarentzat<sup>11</sup> eta Lafittek<sup>12</sup> euskararentzat aurkitzen duten "depreciative" balio hori apenas hain noraezeko den.

d) Osagaien izaera gramatikala dela eta, alde nabarmena dago errima-bikoteetatik gainerako hots-uztarduretara. Errima-bikote gehien-gehienetan hitz osoa da osagaietariko bat: lehen osagaia, hain zuzen. Horrela, **duda-muda**, **inguru-minguru**, **hasi-masi**, **aitzaki-maitzaki** edo **tira-bira** moduko bikoteetan, lehen osagaia hitza da: mintzajardun arruntean morfema lexikal libre gisa erabil daitezkeen elementua. Eta beste zenbaitetan, **zeharka-meharka** edo **isilka-misilka** modukoetan bezala, erlazio-morfema bera da oinarriko morfemak berez duen autonomia lexikalaren adierazlerik sendoena.

Badira ordea, halaz guztiz ere, autonomia lexikalik ezeze morfema-mailarik ere apenas eskuratzen duten lehen osagaiak. **Zarra-marra**, **zinkulin-minkulin**, **txutxu-mutxu** edo **kux-mux** moduko bikoteen lehen osagaietan (are gutxiago bigarrenetan), horrela, zail da inolako morfema bete-osaturik aurkitzea. Hori dela eta esan izan bide da, Marchand-ek<sup>13</sup> ingelesarenean adibidez, sasimorfemez

10: MARCHAND, H.: op. cit., 353 or. (8.5.5. puntua).

11: FLEISCHER, W.: **Wortbildung der deutschen Gegenwartssprache**, Niemeyer, Tübingen, 1975<sup>4</sup>, 236 or. (2.6.(1). puntua).

12: LAFITTE, P.: **Grammaire Basque**, Elkar, Donostia, 1979<sup>2</sup>, 149. or. (339 puntua).

13: MARCHAND, H.: op. cit., 345. or.

osaturiko errima-bikoteak direla morfemadun ez direnak. Izendapen-egokitasuna gora-behera ilun gelditzen da, nolana ere, azken elementu horien status gramatikala. Zer da, izan ere, sasimorfema bat?

Kontuan hartzekoa da, azkenik, **ixtorio-mixterio**, **totel-motel** edo **zinak eta minak** modukoetan hots-uztarduretatik bezain hurbil egon gaitzkeela, gutxienez, nahas-bikoteetatik.

e) hots aldetiko ezaugarriak. Gramatikari gehienek behin eta berriro adierazi izan dutenez, errima-bikoteen bigarren osagaia, lehenengoaren oihartzun izanik ere, ez da nolana ere oihartzun. Arau estuek gobernatzen dute, aitzitik, oihartzungintza hori. Adibideetatik erraz antzeman daitekeenez,

- bigarren osagaia [m] hotsaz hasten da maizenik: **aitzaki-maitzaki**, **hautsi-mautsi**, **kako-mako**,...
- bakanago bada ere, [p] zein [b] hotsak ere tartean-tartean ageri dira: **hitz eta pitz**, **txutxu-putxu**, **zarra-parra**, **jira-bira**, **txitean-pitean**. Horien ahaide hurbila da, itxura osoz, **txitean-fitean** adibidea ere.
- kasu hauetatik kanpora, salbuespenezko adibide banaka batzuk baizik ez dira ageri: **saski-naski** da, dirudienez, ezagun eta erabiliena.

Ez da bigarren osagaia, ordea, hots-hasierari dagokionez, araupeturiko bakarra. Lehen osagaitarako ere ez du, adibideek garbi samar adierazten dutenez, edozein hots-hasieratako hitzek balio. Bokalez (edo >h<-z) hasten diren lehen osagaien ugaritasunaz aparte, kontuan hartzekoak dira beste bi ezaugarriok ere:

- ez dago [m], [p] eta, ia, [b] hotsez hasten den lehen osagairik;
- kontsonanteen artean [k], [s], [s] eta, batez ere, [č] dira agertzen diren ia bakarrak.

Ondorio bi atera daitezke, beraz, errima-bikoteen hots-eramoldea dela eta, orain arte esandakotik:

- ez dirudi bigarren osagaiaren hasierako kontsonanteak ([m], [p], [b],...) aurrizki (izan) direnik<sup>14</sup>;
- euskal eredu aski berezia da, lehen osagaiaren autonomia lexikala dela eta, inguruko hizkuntza gehienetatik.

Hots-eraketa ez baina silaba-luzerari bagagozkio, azkenik, badirudi silaba bakarreko elementuek nekez lortzen dutela errima-bikoterik osatzea: bes-tela ere aski bereziak diren **tximist**, **kuxmux** eta **fits-mits** direlakoez aparte, **hitz eta pitz** bakarrik ageri da, eta hura ere konjuntzio-makuluz hornituta. Silaba biko morfemak dira, biluzik edo erlazio-morfemaz (**isilka-misilka**, **tar-teka-marteka**, **zehar-meharka**) jantziak, maizenik agertzen direnak.

f) Kategoria gramatikala-ren aldetik ere, aski desberdinak dira erri-ma-bikoteak gainerako hots-uztarduretatik. Oinarriko osagai-morfema normalean izen-kategoriakoa delarik, orobat izenak dira errima-bikote gehienak:

- Ohitura dut, jauna, nere **duda-muda** guztietan zugana jotzea
- Parapetotzat hartu dituen **kako-mako** ilun horiek
- Ez zen **tximistik** ikusten
- Plaza hartako **txoko-moko** eta zimardika guztiak.

Zenbait kasutan ohiz kanpoko adberbio-balioa hartzen dute, halaz ere, izen-oinarriko errima-bikoteek:

- Aita **aitzaki-maitzaki**, ez zen etorri bazkaltzera
- **Iritzi-miritzi** aritu dira
- Beronen **inguru-minguru** abarkaren lokarri luzeak biltzen ziren
- Jaioterriaz **hitz eta pitz** ari zitzaizun gudari-taldea.

---

14: Ikus, horretaz, batetik URTEL, H.: "Zur baskischen Onomatopoesis", in: **Sitzungsberichte der preussischen Akademie der Wissenschaften**, 1919, XIII; eta, bestetik, bai SCHUCHARDT, H.: **Litbl. für germ. und rom. Philologie**, 1919, 397 or. eta hurr.) eta bai UHLENBECK, C.C.: (RIEV, XIII (1922), 489-490) erantzunak.

Badira ordea, kontrara ere, adjetibo edo aditz-oinarritik abiatuz, izen-balioko errima-bikoteak<sup>15</sup>:

- Agintari eta **handi-mandi** asko joan zitzaizkion agurtzera
- Gure **hasi-masi** hauek zeuek burutuko dituzue
- Inolaz ere aho-berokeriak dira **esamesa** hauek.

Badirudi azken hauetan dvandva-ataleko **joan-etorri**, **jan-edan**, **sal-erosi**,... eta antzekoen fenomeno beretsua gertatzen dela<sup>16</sup>.

Adberbio-markaz hornituriko errima-bikoteak bere hartan txertatzen ere dira perpausean. Horrela,

- **isilka-misilka** zebiltzan
- **zeharka-meharka** entzun nahi izan du
- **tarteka-marteka** jardun du gehienetan
- **jira-biraka** ihes egiten zion
- **txitean-pitean** daude emakumeak.

Adberbio-balioz ageri ohi dira maizenik, orobat, ondoko bikote-moduok:

- hona **zehatz-mehatz** nola gertatu zen guztia
- gazteok **kux-mux** ditugu
- **txutxu-mutxu** elkarri belarrira hitzeginaz ari ziren.

### XV.3.2. BERRELKARKETA

Errepikaldirik bakarreko oihartzuna osatzen dute errima-bikoteek. Ez da, alegia, **duda-muda-muda**, **handi-mandi-mandi**, **jira-bira-bira**, **aitzaki-maitzaki-maitzaki** edo **zurru-murru-murru** moduko errima-hirukoterik ezagutzen. Laukoterik are gutxiago.

---

15: Alde horretatik bereiz hartzekoa da, nolana ere, **ikusi-makusi** adibidea.

16: Salbuespena dirudi, alde horretatik, **nahas-mahas** uztardurak, aditz-erroa adberbio-iturri bait da hor: "paperak **nahas-mahas**, liburuak betaren zain".



### XV.3.3. JUNTURAKO HOTS-ALDAKETA

Bigarren osagaiaren hasiera-hotsaz gorago (ikus XV.3.1.d) esandakoaz aparte, ondoko oharrok egin daitezke errima-bikoteen junturako hots-aldaketaz:

a) protesizkoa dirudien [m] (berdin [p], [b] ...) hotsa (**aiko-maiko, auzi-mauzi, izkutu-mizkutu, ele-mele,...**) aldaerazkoa da beste askotan (**jira-bi-ra, kako-mako, nahas-mahas, txirri-mirri, zurru-murru**).

b) Lehen osagaiak ez du inoiz benetako hitz-elkarteetako mugatzaileek bukaeran izaten duten hots-aldaketarik ageri. Horrela,

- **ele-tik elaberriti, elapide,...** baina **ele (eta) mele**
- **handi-tik hantuste,** baina **handi-mandi**
- **iritzi-tik irizpide,** baina **iritzi-miritzi**

### XV.3.4. EMANKORTASUNA

Ablaut-taldean emankortasunaz esandakoak berdintsu balio du errima-bikoteetan ere: ez dirudi bikote berri askorik sortzen denik, nahiz eta hizkuntzak hartarako trabarik jartzen ez duen. Ez da alferrikakoa izango, agian, Belokeko jardunaldian hots-uztardura hau dela eta izandako eritzi-trukea gogoan izatea. Biltzarkide batek bere zalantzak agertu zituen hitzarte hauezaz jarduteak lukeen probetxuaz, bere ustez iharturiko formak bait dira hauek: iturri agortua zen, beretzat, errima-oihartzunezko bikote-uztardura; eta ez zuen, beraz, sorkari berriak prestatzeko balio. Bertatik bertara erantzun zion aldiz, beste kide batek, beretzat iturri hori ez zela inondik inora agorra: "**bulego-mulego** nabil egun osoan" moduko perpausa eratu zion, kolpean, horren frogagarri.

Bistan dago, beraz, emankortasun-auzia ez dela era honetako hitzartee-tan erabakitzen hain erraza: hizkuntzaren beraren prestasuna baino askozaz area-go hiztunaren beraren sormena dago, hor, auzigai.

Batzarkide biek zuten arrazoi, nork bere ikuspegitik:

- a) Sorbide honen berri dakienak solaskideek ulertuko dioten erako erri-ma-bikote berriak sortu ezinik ez du.
- b) Hori bezain egia da, ordea, egin litekeenetik egiten denera aldatuz hots-bikote berririk ez dela gaur egungo idazlanetan kasik ageri.

Errima-oihartzunezko euskal hots-uztardurak erdi-emankorrek direla esatea izango da, beraz, ihesbide antzua ez bada, oraingoz atera daitekeen ondorio posible bakarra.

#### XV.3.5. IDAZKERA

Dagoeneko birritan adierazi denez, erabakirik dauka Euskaltzaindiak errima-bikoteak nola idaztekoak diren: marraz loturik idatz "tarteka-marteka", "nahas-mahas", "duda-muda" eta, oro har, bigarren zatia lehenbizikoaren oihartzuna deneko hitz-elkarte guztiak.

Araua zehatza da, eta aplikatzen erraza. Emendiozko mesedea du, gainera, berekin: lehendik ere euskal idazleen artean gailendurik zegoen joera zuzenetsi eta bermatu egiten duenez, errazbide ere gertatuko da idazle zahar eta gazteentzat. Salbuespen batzuk kontuan hartzea komeniko da, halere: **tximist, esamesa, hitz eta pitz,...**

#### XV.3.6. BESTE ZENBAIT OHAR

a) Ablaut-taldez hitzegiterakoan esan bezala, uztardura-mota bion arteko muga ez da erabatekoa. Badaude, alegia, multzo batetik edo bestetik hurbi-lago gertatu arren tarte-bitartean suertatzen diren hitzarteak: horrelakoak dirateke, errima-bikoteen alorretik so eginik, **ikusi-makusi** moduko uztardura bakarrak.

b) Ablaut-taldeekin ezezik, **āmredita** eta bikoiztapen indargarriekin ere badute errima-bikoteek zenbait kidetasun. Ez dirudi, alegia, batetik **tarteka-tarteka** edo **isil-isilik** moduko erabideak eta, bestetik, **tarteka-marteka** edo **isil(ka)-misilka** erakoak zeharo elkarren arrotz direnik.



XVI. **ASTAPUTZ** MODUKO HITZ-ELKARTEAK



Belokeko jardunaldian esan bezala, ez da hau oinarritzko arazo teorikoe-tan sartzeko leku aproposa. Eta, ondorioz, ahalik eta gogoeta gutxien egin nahi ere da era horretako auzi-mauziez.

Bada hemen, ordea, aurrerago jo gabe ere, argitasun-beharrean dagoen puntu bat: **astaputz** moduko hitz elkartuak aparteko multzo gisa zergatik hartzen diren. Are zehatzago esanik: izena eta izana sanskriotik jaso eta, Uhlenbeck ararteko genuela, guganaino iritsitako **bahuvrîhi** elkarte-motak "astaputz" moduko hitz elkartuak ere bere esparruan biltzen ez ote dituen argitu beharra dago.

Adibide batzuren laguntzaz eskaini nahi da, hartarako, zenbait eriz-pide.

Demagun mugakizun/mugatzaile lanean diharduten hitz-bikoteak ditugula, bata bestearen ondoren eta tartean inolako erlazio-morfemarik gabe. Horrela, substantiboak maiuskulaz eta izenondoko adjetiboak minuskulaz emanaz, eta mugatzailea B(b) letraz eta mugakizuna A(a) letraz, azter ditzagun banan bana honako hiru eraikuntza-moduok:

A b: **sudur luze** ("sudur luzea du benetan mutil horrek"), **buru handi** ("buru handiko kasta da, inondik ere, behi-mota hori"). Eraikuntza sintagmatiko libretzat hartzen dira hauek: hitz-andana ihartuen kasua alde batera utzirik, gainerakoan ez da horrelakoetan hitz-elkarketarik ikusten.

B-a: **sudurluze** ("sudurluze horrek kendu zidak lekua"), **buruhandi** ("alferrik duk horren pareko buruhandiek hitzegiten jardutea"). Bahuvrîhi saileko hitz-elkarteak direla esan ohi da hauek. Exozentrikoak direla esan ohi da sarri eta, euskal gramatikari gehienek diotenez, -dun morfema galduz sortuak omen dira.

Azken eraikuntzaren (hots B-a delakoaren) azalpide horretaz jakina da adostasunik ez dagoela gaur-gaurkoz. Are gehiago: sarriagotan eman ohi da kontrara (edota, gutxienez, bestela) eraikuntza honen barne-moldaera.

Definizio horien gora-beherak oraingoz albo batera utziaz (hurrengo batean aztertuko da hori, bahuvrîhiak aurrez aurre lantzean), alde nabarmen batzuk bederen badaude lehenengo taldetik bigarrenera:

- **sudur luze** bat sudurra (eta luzea) den arren, **sudurluze** bat ez da sudurra, sudurrez luzea den pertsona edo animalia bat baizik.
- Azentuazio mailan oso trataera desberdinekoak dira sail bata eta bestea.

B-A: **eguzki-lore** ("Aralarren bilduak dira eguzki-lore horiek"), **behi-gorotz**, **bekorotz** ("ongarritarako jasotzen dute behi-gorotza"). Hitz-elkartearen alorrean sartzen dira, bete-betean, era honetako eraikuntzak: menpekotasunezko izen-konposizioaren eremu zabal bezain aberatsa osatzen dute. **Eguzki-lore**a lore bat da: "eguzki" mugatzailearen laguntzaz ongi definituriko lore-mota, hain zuzen.

Zer gertatzen da ordea, eta honekin heltzen diogu aztergai honen hariari, **babalore**, **astaputz** edo **oilobusti** moduko eraikuntzekin? Axaletik begiraturik, **babalore** eraikuntza **eguzki-lore** hitz-elkartearen pare-parekoa da, eta **astaputz** goiko **behi-gorotz** horren bikia. **Oilobusti**, azkenik, **zakur busti** sintagmaren arras antzekoa da. Esan ote liteke hortaz, besterik gabe, **astaputz** eta **babalore** eraikuntzak **eguzki-lore** moduko hitz elkartuak direnik? eta **oilobusti** modukoak **oinetako busti**-en antzeko sintagma libreak? Ez erabat. Beloken jadanik adierazi zenez<sup>1</sup>, bi **astaputz** (astaputz-1, astaputz-2) eta bi **babalore** (babalore-1, babalore-2) daude: batetik, astaputz eta babalore "arruntak" ("astoaren putza", "baben lorea"), eta, bestetik, "bereziak" ("perretxikoetara joan eta dozena bat astaputz besterik ez dugu aurkitu", "zer espero zenuen, bada, gizajo babalore horrek egitea"). Orobat esan daiteke **oilobusti**-az ere: euritan egoteagatik blai-blai egindako hegaztiak daude, batetik (oilobusti-1), eta pertsona koldar-beldurriak (oilobusti-2), bestetik.

Lehenengotik bigarrenera alde nabarmena dago. Zer-nolakoa da, ordea, aldaera batetik besterako pasabidea? Askoren ustez, **A b** moduko eraikuntza libreetatik **B a** modukoetara dagoen berbera. Eta, ondorioz, astaputz-2, babalore-2, oilobusti-2, eta abarrekoak ere bahuvrîhizat hartu ohi dira sarri.

Ez dirudi ordea erizpide hori zuzena denik. Hemen ez dago, hasteko, **B-a** moduko bahuvrîhietan hain berezkoa omen den **-dun** morfemaren galerarik. Hemen ez dago, gainera (eta hau da, azken batez, kontu guzti honetan eskueran izan dezakegun argi-iturririk sendoena), mugatzaile/mugakizun osagaien leku-aldaketa nabarmen hura. Exozentrikotasuna ere apenas dagoen: ez behintzat **sudur-luze**, **buruhandi**,... bahuvrîhien parekoa; eta hobe hortaz, gauzak bere neurritik atera nahi ez badira behintzat, **astaputz** modukoak ere exozentrikoen mantupean ez sartu. Bestela, denak mantu horren pean sartu beharrez, **Pello Errota**,

1: Ikus bertan aurkezturiko 1. txostena, III.1. puntua, 25-28. orr.

**Erromako Zubia** eta segida amaigabea ere beldur izatekoa da exozentrikoen sailean sartu beharko direla, exozentrikotasunaren esanahi-muina itxuratxarki gesalduz.

Astaputz-1-etik astaputz-2-ra dagoen pasabidea, eta berdin babalorre-1-etik babalorre-2-rakoa zein beste antzeko guztiena, metaforizazioaren antzeko bilakaera semantikoa da, **B-a** moduko bahuvrîhien sorbidearekin zerikusirik apenas duena.

Asko ala gutxi arrazoirik badagoela uste izan da, beraz, **astaputz** moduko elkarteak aparteko sail batean aztertzeko. Eta hala egiten da ondoren, beren oinarritzko zertzeladak azalduz.

Adibideak: ASTAPUTZ, BABALORE, TXORIBURU; ARTABERO, OILOBUSTI; HARROPUTZ

- **BA modukoak**: artaburu, astakirten, astaperra, astapistola, astapotro, astaputz, astazakil, astolerdo, babalore, eltzekirten, gezur-hitz, golde-mutur, haizeputz, hitzontzi, kakanarru, oliontzi, pitxilore, tipulaburu, txoriburu, zerriburu.
- **Ab modukoak**: ardaozuri, artabero (artobero), oilobusti, esnepel, sardin-zar.
- **aB modukoak**: eder-ispilu, handiputz, harroputz.
- **bereziak**: **ogi-gazta(k)** ("zer arraiotara etorri dira hiru ogi-gazta horiek?").

#### XVI.1. EZAUGARRI NAGUSIAK

Sail honen hasieran esandakoez aparte honako hauek dira, nagusiki, hitz elkartu hauek besteetatik nabarmenenik bereizten dituztenak.

a) Semantikaren aldetik badute elkarte-mota hauek batasun-iturri ageri bat: hitz-elkarteak adierazten duen zeraren antza duten izaki bizidunak denotatzeko erabiltzen dira. Gizon-emakumeak denotatzen dira, era honetan, maizenik: **astaperra**, **artaburu**, **hitzontzi**. Erabilpen-eremu zabalagoa dute, ordea, berez: **astaputza**, horrela, perretxiko-mota bat izendatzeko erabiltzen da.



Horrezaz gainera badute hitz-elkarteok, semantikaren aldetik, beste ezaugarri bat ere: peioratiboak dira, gutxi edo asko, **astaputz** moduko hitz elkartu gehienak. Nori gustatzen zaio, izan ere, **artaburu**, **hitzontzi**, **astapistola**, **txoriburu** edo **oilobusti** bat dela entzun beharra? Eta peioratibo izate hori ez dagokio, nahi eta ez, jatorrizko sintagma-elkarteari: urrun samarreko alorretik baserriko aterpera lasterka batean datorren **oilo busti**-ari ez zaio gutxiezpenezko kutsu-apurrik aurkitzen; koldar **oilobusti**-ak kopetaren erdian darama, ordea, besterik nahi izanik ere, gaitzespen-zantzua. Azken ohar bat: **asta**- elementua maiztasun handiz ageri da lehen osagai moduan. Bigarren osagai gisa **-buru** hitzak dirudi gailen. Baluke azken horrek, itxuraz, euskal eremuaz gainetiko balio-in-darrrik: Cf. alemanezko **Kopf** (**Trotzkopf**, **Kahlkopf**,...).

b) Kategoria gramatikalaren aldetik, adjetibo gisa jardun dezakete hitz elkartu hauek. Horrela:

- "hamaika ergel harroputz ibili ohi da jo ezak hemen jo ezak hor"
- "hau mutil hitzontzia!", "gizonak ez du izan behar hain hitzontzi"
- "ez nuen uste izango hain gizon babalorea aterako zitzaigunik".

Adjetibo-oinarriko eratorpenak ere hor daude, gainera: "ez da liberalen erausi eta **hitzontzikeria**, mundua gehien nahastu eta irabiatu duena".

Izenak ere sarri agertzen dira, halaz ere:

- "astapistola horiek gerrara ekartzea ere!"
- "oilobusti eta zainik ez odol gorri xortarik ez duten batzuek"
- "ni hitzontzi bat naizela badakizu"
- "astaputz, harrosko!guk ere bazekiagu irabazten"

Atributu gisa dihardute maizenik, nolnahi ere, hitz elkartu bereziok: ("Hi ergelagoa haiz, demontre eltzekirtena" hor sartzen ote?)

Osagaien kategoria gramatikalaz ezer gutxi dago, goian esandakoari erasteko. Jatorrizko sintagma edo elkarte-motaren arabera, honako hauek dira mota nagusiak:

izen + izen: babalore, gezur-hitz, kakanarru

izen + adjetibo: ardaozuri, esnepel, sardinzar

adjetibo + izen: harroputz, eder-ispilu.

## XVI.2. BERRELKARKETA EDO GARAPENA

Nahiz eta tartean-tartean "**artobero-uxain** omen naiz" moduko esaldiak agertzen diren, gehiegi esatea litzateke **astaputz** moduko eraikuntzetan berrelkarketa posible denik. Elkarte-mota honen muin-muinean metaforizatze-kontua da-goela onartzen bada, izan ere, nekez hitzegin liteke sintagma barneko berredapenez. Aurreko adibidera itzuliz, horrela, **artobero-uxain** moduko eraikuntzan ez da metaforizatze-lanik egiten: **zikin-usain** moduko hitz-elkarketak dira horiek; sail honetatik kanporakoak, beraz.

Era berekoak dira, azkenik, **harropuztu** moduko eratorpenak: **astaputz** edo **harroputz** moduko hitz elkartuok morfologi unitate izatera zenbaterainoko neurrian iristen diren adierazgarri, nolana ere.

## XVI.3. HITZ-JUNTURAKO HOTS-ALDAKETAK

a) Hitz-elkarteok kasuan kasuko jatorri-elkarteen hots-aldaketa berberak ageri dituzte gehienetan, areagoko berrikuntzarik gabe:

**Astaputz**, horrela, **eguzki-lore**-ren saileko **astaputz-1** formaren bikia da, eta batak berekin daraman mugatzailearen amaierako bokal-zabalera bere hartan ageri da, inolako aldaketarik gabe, metaforazko forman ere.

Gauza beretsua esan daiteke oro har, salbuespenak ugariagoak badira ere, **Ab** modukoez: artabero, (artobero), oilobusti,...

b) **aB** moduko elkarteei dagokienez, bestalde, zera esan daiteke: hitz-junturan ez dutela, itxuraz, hots-aldaketarik ageri. Jatorrizko oinarri-elkarterik ez dutela kontuan izanik, badirudi idiomatizazio-maila<sup>2</sup> apalagokoak ere badirela azken hauek.

---

2: Idiomatizazio hitzarekin FLEISCHER, W. batek, adibidez, definitzen duena adierazi nahi da hemen (*Wortbildung der deutschen Gegenwartssprache*, Niemeyer, Tübingen, 1975<sup>4</sup>, 25. or.): semantikazko higadura eta finkapena, hurbileneko ezer esatekotan.

c) Metafora bidezko esanahi-aldaketa idiomatizazio-iturri ere baden neurrian, halaz ere, oinarri-elkarte arruntek baino lotura estuagoa ageri dute hainbat kasutan elkarte-forma hauek: **olio-ontzi**, baina **oliontzi**; **esne epel** baina **esnepel**;...

#### XVI.4. EMANKORTASUNA

Metafora-sortzea gizakiaren etengabeko mintza-jardunari berta-bertatik lotua dagoenez, badirudi baliabide emankorra izan behar lukeela era honetako hitz (edo, gutxienez, esanahi-aldaketa) berrien erabideak. Osagai biak ohizko hitz-altxorretik jasoak izaten direnez, erraza gertatu behar ere luke, gehiengotan, era honetako sorkariak paratzeak. Azken urteotako sasi-adibiderik adierazgarriena genukeen **Zakilixut**<sup>3</sup> alde batera utziaz, halere, bapatean sorturiko horrelako hitzarterik apenas asko dagoen. Euskal literaturan ez da behintzat, inolaz ere, halakorik aurkitzea erraza. Euskaldunon kamustasun-kontua izan liteke hemen ere, euskararena berarena baino areago, zailtasun-iturri nagusia. Hizkuntzaren erabilera bizi eta koloreduna, mezu-azalpen neutro eta hotzei baino gehiago sentipen-zirrarei lotua, ezpain-lumetatik galtzen ari zaigun neurri berberan bakantzen ari ere dira, itxura osoz, era honetako esamolde eta itzulikak.

#### XVI.5. IDAZKERA

Hitz-junturako hots-aldaketez esandakoa hitzez hitz errepika daiteke ia, mutatis mutandis, hitz elkartu hauen idazkeraz jarduterakoan.

Morfologiazko eraketaz elkarte hauetariko gehienak zein bere oinarri-elkartearen oinordeko huts direnez, normala da idazkeraz ere antzeko aniztasuna agertzea. Adibidetegiari begiratu bat ematea aski da horretarako.

Badirudi, ordea, aniztasun hori ezabatu gabe ere, joera nagusi batzuk ageri edo direla hitz elkartuon idazkerari dagokionean. Horrela:

---

3: Badirudi **artabero** modukoa baino areago bahuvrîhi arrunta dela, erabideari dagokionez, **Zakilixut** adibidea. Erdal konposizio-bide jakin baten (latin jatorriko kultur hitzen) eraginez hots-junturako **i** bokala erantsi zaiolarik, halere.

- a) Semantikazko higadura eta finkapen berariazkoa jasaten duten gainerako elementu lexikal gehienak bezala, hitzok ahalik era bilduenean idazteko joera bat badago. Ezer proposatzekotan, hitz elkartuok loturik idaztea gomenda daiteke, beraz, salbuespenak salbu: **artaburu, hitzontzi, harroputz, txoriburu.**
- b) Morfema-junturaren kontsonante-talkagatik edo ohiz kanpoko forma izateagatik ilungarri gerta daitezkeen kasuak marra tartekaturik idaztea egokiago ote den dirudi, halaz ere: **gezur-hitz, eder-ispilu.**



XVII. PERU ABARKA ELKARTE-MOTA



Era honetako eraikuntzak hitz elkartuak diren ala ez eztabaidatzea<sup>1</sup> alde batera utziaz, beraien azalpen labur bat eskaini nahi da ondoren. Adibide bila joz gero, gutxi bezain urrutiko jakin-iturri ezagunak dituzte hauek. Era sistematikoan bilduak ditu L. Mitxelenak<sup>2</sup> eta handik jaso ere da, iturburuko erreferentzi gisa, behialako hainbat adibide. Alfonso Irigoienek ere emana du, Plentzian agerturiko bere txostenean, elkarte-mota honi buruzko hainbat adibide zahar eta jakingarri.

Zazpi ataletan sailkaturik emango dira, argitasunaren fabore, elkarte-moduok.

Adibideak: PERU ABARKA, MARIZIKIN, JUANITO KOJU(A), FRANTSES-TXIKI, LAZKAO-TXIKI, MIKEL ELEDER.

- a) **PERU ABARKA** modukoak: Anton Deabru, Anton Ixkiña, Anton Kaiku, Antoni Errota, Domingo Kanpaña, Erramun Moko, Indalezio Moko, Joane Talotxu, Jose (Joxe) Errota, Kosepa Koipe, Madalen Bonbila, Manu Txurrut, Mari Errota, Martin Kaiku, Martin Txilibitu, Mikaela Txintzarri, Matea Saltsa, Mateo Txistu, Patxi Bakailo, Patxi Gezur, Patxiko Txerren, Pello Errota, Pello Kirten, Pepa Negar, Pepakin Mozkor?, Peru Abarka, Praixka Mutur, Txanton Piperrri.
- b) **MARIZIKIN** modukoak: mari-atso, mari-gorri, mari-maite, mari-mutiko, mari-puntta, mari-tente, mari-urrika, mari-xukalde. (Ez dirudi **haurra-mari** moduko eraikuntza hemen sartzekoa denik).
- c) **JUANITO KOJU(A)** modukoak: Estoan Txikien, Harry Azkar, Inazio Motz, Joan Manuel Haundi, Joan Martin Motz, Joanagorri, Joanito Zapparro, Joxe Mari Haundi, Juanito Koju(a), Katalingorri, Manuel Za(ha)r, Mari Haundi, Matxingorri, Tomasa Handi, Txomin Zatar, Zorion Potolo.

---

1: Ingelesaren kasuan ikus MARCHAND, H.: **The categories and types of present-day english word-formation. A synchronic-diachronic approach**, Otto Harrassowitz, Wiesbaden, 1960, 33-36 orr.

2: "Notas lingüísticas a 'Colección diplomática de Irache'", in: **FLV**, I (1969), 1-59. orr.



- d) **FRANTSES-TXIKI** modukoak: argin-txiki, frantses-txiki.
- e) **LAZKAO-TXIKI** modukoak: Altza-Haundi, Altza-Txiki, Lazkao-Txiki, Teileri-txiki.
- f) **MIKEL ELEDER** modukoak: Gaxuxa Mokobipil, Mari Begibakar, Mikel Eleder, Garazi Gerrieder.
- g) **ARTA MANUEL** modukoak: Artá Manuel.

Aspaldidaniko ohitura izan da, eta ez euskaldunen artean bakarrik, goitizen moduko izendapen haueza jokatzekoa. Erdi Aroko nafar dokumentuetatik, lehen esan bezala<sup>3</sup>, adibide ugari jaso daiteke. Horrela:

- Peru Abarka modukoak dira, itxura osoz, honako guztiok: **Garindo Aquetça, Eneco Beya, Tota Cerria, Garcia Errlea**, (Cf. Otxoa deitura), **Sancio Baraçuri, Sanso Bicorra, Semen Çapata, Roderico Avarca, Orti Guruce, Garcia Ciricu, Martino Lepoa, Juan Orti Sudurra, don Pere Beatça**,... Edota adibide are ezagunago batera joaz, **Antso Abarka** erregea.
- Mikel Eleder modukoak ere badute, era berean, lehendaniko kiderik: **Domingo Burugorri** (Cf. Federico Barbarroja), **G. Buruquiçur, Berasco aogavala, Elvira Mutil Ederra, Elvira Suberria, Domenca beguy urdina**,...
- Are gehiago, Ricardo Corazón de León modukorik ere ez da falta: **Domingo de Beorburu, García Arzpuru, Garsia Arzburu**.

Gure hizkuntzaren alorrean pertsona-izenen erabide aspaldidanikoa izateaz gainera, erdal hizkuntzen artean ere ez da bide hau erabat arrotza. Horrela:

- Era honetakoak dirateke, alemanari dagokionez<sup>4</sup>, **Prahlhans, Heulsuse, Zappelphilipp, Supenkaspár** edota **Qatschheini**. Baita **Hanswurst, Hansnarr** modukoak

---

3: Adibideok, 2. oin-oharreko artikuluan ikus daitekeenez, XII-XIII. mendeetakoak dira.

4: Ikus **FLEISCHER, W.: Wortbildung der deutschen Gegenwartssprache**, Niemeyer, Tübingen, 1975<sup>4</sup>, 107-109 orr.

ere, ordea<sup>5</sup>. Gure **marizikin** moduko en hurbilena **-fritze** kidekoetan aurki daiteke han: **Bummelfritze, Trödelfritze, Filmfritze, Fernsehritze, Klatschfritze,...**

- Ingelesaren alorrean ere bere kidekorik badu<sup>6</sup>: **Jack-straw, jim-crow, peggy-whitethroat, Jerry sneak, John-a-nokes, billy-goat, jenny-ass, tomboy, Jim-dandy,...** Kasu honetan **Jack-** litzateke, agerpen-maiztasunean oinarritu behar bagenu, gure **mari-**ren parekoa.

### XVII.1. EZAUGARRI NAGUSTIAK

a) Goian aurkezturiko zazpi ataletatik lehen hirurak dira, gaur egun, ugarienak.

b) Semantikaren aldetik ezin esan liteke hitz elkartuok peioratiboak direnik: badira halakoak, noski, eta **marizikin** moduko en atalean besteetan baino areago, gainera, baina hitzarte askok eta askok ez darama berekin halako gaitzespen- edo defektu-kutsurik.

c) Bigarren atalean (**marizikin, mari-xukalde**) badirudi **mari-** hori izen propio jeneralizatu bat dela, era horretan izen arrunt bihurtu dena. Pentsatzekoa litzateke lehen ataleko zenbait formak ere (**Pellokirten**) bide bera ez ote daraman.

d) Nolanahi ere, bai **Peru Abarka-**n eta bai **marizikin-**en mugatzaile/mugakizun ordena alderantziz edo dago: mugakizuna aurretik doa.

e) **Peru Abarka** nahiz **Juanito Kojua** modukoetan eta, batez ere, **marizikin-**en sailean izaeraren adierazgarri dira adibide gehienak; pertsonen duten nortasun-ezaugarri nabarmenen bat adierazten dute. Horrela: **Indalezio Moko, Kosepa Koipe, Manu Txurrut, Patxi Gezur, mari-mutiko mari-tente, mari-maite;**

---

5: Ikus MARCHAND, H.: op. cit., 33 or. (2.13.1 puntua).

6: Ikus, goiko horiezaz gainera, KOZIOL, H.: **Handbuch der englischen Wortbildungslehre**, Carl Winter, Heidelberg, 1972<sup>2</sup>, 54 or. (84. puntua).

Txomin Zatar, Zorion Potolo. Badira, halaz ere, ingeles<sup>7</sup> **tom-tit, jack-merlin** formen pareko animala izenak ere: **matxinsalto** dateke, denetan, ezagunena.

f) Elkartean gramatikazko balioaz, ohar bi egin daiteke.

- Hitz elkartuok izen + adjetibo segidaz sorturiko izen-sintagmen eitea dute normalean: **Arta Manuel** modukoak dira, inor izatekotan, salbuespena.

- Osagaien kategoria gramatikala aski desberdina da, halaz ere, sailkapen-atal batetik hurrengora. Horrela:

a) modukoetan izen propio + izen segida ageri da.

b) modukoetan izen arrunt edo bihurtu "mari-" + (izen, adjetibo) segida

c) modukoetan pertsona-izen + adjetibo segida

d) modukoetan konbertsiozko izen + adjetibo segida

e) modukoetan leku-izen + adjetibo segida

f) modukoetan pertsona-izen + bahu-rîhi adjetibo segida, eta

g) modukoetan izen + pertsona-izen segida (Cf. alemanezko **Supenkaspar**).

## XVII.2. BERRELKARKETA EDO GARAPENA

Hasierako sailkapenean f) atalean adierazitako **Mikel Eleder, Mari Begibakar, Gaxuxa Mokobipil** modukoak alde batera utzita, ez dirudi elkarte-moduotan inolako berrelkartze- edo garapen-arrastorik dagoenik. Dauden-daudenean pertsona jakinak identifikatzeko erabiltzen dira eraikuntzok, ez perpaus-katearen barnean txertatuz denotaziozko garapen-bide zabalagoak eskaintzeko. Eta ez dute, beraz, **lore-saltzail**-ek hala nahi izanik, **eguzki-lore saltzaile** eman dezakeen bezala, garapenik izaten.

---

7: Ikus MARCHAND, H.: op. cit., 34 orr. (2.13.3. puntua).

### XVII.3. HITZ-JUNTURAKO HOTS-ALDAKETAK

Eraikuntzotan ez da hots-aldaketa berariazkorik izaten bertako hitz-junturan: **iturri + zulo** segidatik sortzen den **itur(t)zulo**-ren antzekorik ez da, alegia, **mari + zikin** elkartetik sortzen.

Mende honetako literaturan sorturiko **Mikel Eleder** modukoak ez dira, bistan denez, arau horren salbuespen.

### XVII.4. EMANKORTASUNA

Elkarte-modu hau emankorra da orain ere. Bai idatzizko sorkuntza-lanetan ageri denez (**Martin Txilibitu, Mikel Eleder, Harry Azkar,...**) eta bai, batez ere, eguneroko hizkera-bide arruntean, lagunarteko jolas-mintzoan bereziki, euskaldun petoek orain ere eratzen dituzten aldiak aldiko izengoiti edo kalifikazioetan. Aurreko hainbat pasartetan egindako aipamena berritu liteke, halere, oker ibiltzeko arrisku handiegirik gabe, **Peru Abarka** elkarteetan: beren burua euskalduntzat duten askok eta askok (bizigunez, lanbidez edo adinez erdararen erasana gogorrago jasaten dutenek bereziki) nekez sortzen dituztela era honetako esaerak: **Pipi calzaslargas** bat mingain-puntanago sentitzen badute **Periko Moxala** edo **Olentzero Begigorri** baino, ez da euskal eraikuntza sintagmatiko hori erdarazkoa baino korapilatuagoa delako, hiztun horiek erdal kontzeptu-sareak eta irudi-munduak kolpatuago daudelako baizik: Ramos Azkarate **Galtzaundi**-ren garaian baino agitz kolpatuago<sup>8</sup>, nolana ere.

Hizkuntzaren aldetik ez dago, beraz, elkarte-modu honi dagokionez, ezinbesteko antzutasunik: euskaldun batzuen mintza-gaitasuna da, ezer izatekotan, kolokan edo elkorturik ageri dena.

### XVII.5. IDAZKERA

Goian aipaturiko atalak banan bana aztertzea komeni da, puntu honetaz inolako argitasunik egiteko.

---

8: Ez ahaztu, ordea, gaitza urrunagotik datorrela: **Galtzaundi**-ren beraren "**lehengusu pocofino**" ezin kasualitate hutsaren fruitu izango da.

a) taldean (**Peru Abarka, Pello Errota, Mateo Txistu**), hitz biak bereiz idazteko joera ageri da, eskuartean erabilitako adibideetan, garaile: inoiz edo behin marraz loturiko formak suertatzen badira ere, gutxienak dira.

b) taldean (**marizikin, mari-xukalde**), bai zeharo loturiko formak eta bai marra bidezkoak agertzen dira: azken hauek dira, halere, maiztasunik handienekoak.

c) taldean, bai eta f)-n zein g)-n, aurkitutako adibide urriak bereiz idatzirik daude normalean: **Juanito Koju(a)** (baina, **Joana-gorri**), **Gaxuxa Mokobipil, Arta Manuel**.

d) eta e) taldeetan, azkenik, marra bidezko idazkera ageri da gailen: **frantses-txiki, Lazkao-Txiki**.

Idazkerari dagokionez, badago, azkenik, aipatu beharreko beste puntu bat: osagai bietariko bat, edota biak, maiuskulaz idazten dira sarritan. Puntu honetan ez daude gauzak, halere, hain garbi; alde nabarmena antzeman daiteke idazle batetik bestera. Hemen hautatu den ereduak, gutxi gora-behera, ondokoa da:

- a, c, e, f eta g taldeak: osagai biak maiuskulaz.
- b eta d taldeak: osagai biak minuskulaz.

ADIBIDETEGIA



SARRERA

Gorago esan denez (ik. 34. or., b) pasartea), azken bost mendeetako hainbat liburu arakatu nahi izan dira, teoriatzko azalpenei ohizko mintzajardunaren oinarri sendoagoa eman asmoz. Bilketa-lan horretatik jasotako adibideak atalez atal sailkatu dira. Ondoren eskaintzen den adibidetegi honek Plentziako Jardunaldian landutako 5 elkarte-motei buruzko erakuskariak eskaintzen ditu. Bikoiztapenen eta Dvandven kasuan, duten bolumen handiagoagatik, adibide-multzoak azpiataletan banatu dira.

Ahal zen guztian jatorrizko idazkuntzan eman dira adibideok, beren testuinguru zehatzean. Grafia aldetik dagoen aniztasunari aurre egiteko, halere, adibide berberaren aldaera desberdinak lema bakar baten pean sartu dira. Buruhauste bat baino gehiago eskaini du, ezinbestean, lemaketa honek. Adibide-sail ugariena eratzen duten bikoiztapenen eta dvandven kasuan, adibidez, ondoko oztopo hauei erantzun behar izan zaie, horrela gutxienezko uniformetasun-maila bati eutsi ahal izateko:

a) bustidurazko elkarteak bustidura gabeko lemapera ekarri dira gehienetan.

Horrela: **ixil-ixillik** → **isil-isil(ik)**, **txintxo-txintxo** → **zintzo-zintzo**, **motx-motx** → **motz-motz**.

b) hurbiltasunezko markak, orobat, aldaera normalenaz ordezkatu dira. Horrela:

**anai-arrebok** → **anai-arrebak**.

c) zenbatzailezko sintagmak ere plural arruntaz ordezkatu dira. Horrela:

**ham seme-alaba** → **seme-alabak**.

d) zalantza handiagoak sortu dira diminutibo-morfemei bere hartan eutsi ala ez erabakitzerakoan. Adibidez,

**apur(txo)ka-apur(txo)ka**, edo **seme-alaba(txoa)k**.

Bestetan esan denez, ehun eta gehiago jakiniturritatik jasotakoak dira ondoren ematen diren adibideak. Adibide bakoitzaren ondoan, bere hurbileneko testuinguruaz gainera, zein liburutatik eta bertako zein orrialdetatik jaso dagoen adierazten da berariazko kode batez: **HE11**, horrela, Axularren **Gero** da, eta **EJ79** Txirritaren **Ustu ezin zan ganbara**. Liburu guztion aipamena egiten duen alfazenezko kode horretaz jabetzeko, ikus ondoko zerrenda.



HITZ-ELKARTUEN ADIBIDEAK BILTZEKO ERABILITAKO ITURBURUAK

- EB20 ANSOLA, G.: **Usa-ren agintaritza eta dolarraren ahulezia**, Gero, Bilbo, 1972.
- EB87 SAN MARTIN, J.: **Gogoz. Gure Herriko gauzak. Cosas de nuestro país**, GAK, Donostia, 1977.
- EC16 LAPHITZ: **Bi saindu hescualdunen bizia**, Hordago/Lur (Euskal klasikoak), Donostia, 1978.
- EC48 AGUIRRE, J.B.: **Jaungoicoaren legueco amar aguinteen gañean eracusaldia, III**, Hordago/Lur (Euskal klasikoak), Donostia, 1978.
- EC61 AÑIBARRO, A.Fr. P. A.: **Escu-liburua, ta berean eguneango cristiñau-cereguiñac**, Hordago/Lur (Euskal klasikoak), Donostia, 1978.
- EC70 VILLASANTE, L.: **Jesukristo**, SGEP, Donostia, 1969.
- ED46 Ik. HE08.
- EF92 GIPUZKOAKO DIPUTAZIOA: **Nekazaritzako irakuñaldiak**, Gip. Diputazioa, Donostia, 1933.
- EI31 MENDIBURU, S. (P. Altuna prestatzailea): **Mendibururen idazlan argitaraga-beak (II)**, Mensajero, Bilbo, 1982.
- EI94 ELKAR-LANEAN: **Rikardo Arregi**, Jakin, Arantzazu, 1979.
- EI95 EUSKALTZAINDIA: **Euskera**, XXVI (1981-1).
- EI99 X.X.: **Euskalzale**, I, 1897
- EJ00 GOIKOETXEA MAIZA, I.: **Juan Bautista Gámiz Ruiz de Oteo, Poeta Bilingüe alavés del siglo XVIII**, Diputación Foral de Alava/Euskaltzaindia, Gasteiz, 1983.
- EJ03 ARTOLA, F. "Bordari" eta ARTOLA, R.: **Aritz beraren adarrak**, Auspoa (156. zk.), Tolosa, 1982.
- EJ04 TREKU, M.: **Mattin, nere gizona**, Auspoa (158. zk.), Tolosa, 1982.
- EJ05 ONAINDIA, S.: **Estutitzak. Euskal literaturari buruz**, Egile editore, Bilbo, 1974.
- EJ06 EUSKO IKASKUNTZA: **Tercer Congreso de Estudios Vascos**, Eusko Ikaskuntza, San Sebastián, 1923.
- EJ07 X.X.: **Ibaizabal 1902-1903**, Sendoa, Donostia, 1982.
- EJ40 SAGARNA, A.: "Maiztasun-bihurtzaile elektronikoen eta korrante alternoko motoreen bitartezko abiadura aldagarritzako eragingailuak (I)", in: **Elhuyar** 25 zk., 1980, 21-38. orr.
- EJ48 ETXAIDE-ITHART, J.: **Usa alostorreko**, Hordago, Donostia, 1981.
- EJ49 ALKAIN, I.; ZAVALA, A.: **Gerrateko ibillerak II**, Auspoa (149. zk.), Tolosa, 1981.

- EJ50 SARASOLA, I.: **Gerraondoko Euskal-poesiaren antologia (1945-1964)**, Lur, Donostia, 1973.
- EJ51 TXILLARDEGI: **Euskal Herriatik erdal herrietara**, Egile editore, Bilbo, 1978.
- EJ52 ELKAR-LANEAN: **Zehatz**, 3 zk. (1978ko Urtarrila-Otsaila).
- EJ53 SATRUSTEGI, J.M.: **Axelko eta otsoko. Abereen ipuinak**, GIE, Donostia, 1983.
- EJ54 DAVANT, J.L.: "Udan irakurriak", in: **Lafitte-ri omenaldia** (Iker-2), Euskaltzaindia, Bilbo, 1983.
- EJ55 LIZARRAGA, J.: **Doctrina Christioarén cathechima. I. Fede christioarén gáin**, Príncipe de Viana/Euskaltzaindia, Iruñea, 1979.
- EJ56 EUSKALTZAINDIA: "Bergara-ko biltzar ondoko erabakiak", (Euskera-ren separata), Euskaltzaindia, Bilbo, 1979.
- EJ58 POUVREAU, S.: **Les petites oeuvres basques. Andre dana Maria privilegiatua**, Hordago/Lur (Euskal klasikoak), Donostia, 1978.
- EJ59 AGIRRE, D.: **Kresala**, Arantzazuko Frantziskotar Argitaldaria, Oñati, 1976<sup>5</sup>
- EJ60 ALKAIN, J.; ZAVALA, A.: **Gerrateko ibillerak. I.**, Auspoa (170. zk.), Tolosa, 1981.
- EJ61 KRUTWIG, F.: **Sua ez da hilten**, Haranburu Editor, Donostia, 1983.
- EJ62 GARMENDIA, Tx.: **Bordaberri'ko gozo-mikatzak**, Auspoa (170. zk.), Tolosa, 1983.
- EJ63 URQUIAGA, E. (Lauaxeta): **Bide-barriak. Nuevos rumbos**, Geu, Bilbo, 1980.
- EJ64 ARRUE, A.: **Jan edanak**, GAK, Donostia, 1979.
- EJ65 SATRUSTEGI, J.M.: **Bordel bertsolaria**, Auspoa (45-46. zk.), Tolosa, 1965.
- EJ66 LAZKANO, P.; ZAVALA, A.: **Tiro tartean bertsoan**, Auspoa (168. zk.), Tolosa, 1983.
- EJ67 ZAVALA, A.: **Xenpelar bertsolaria**, Auspoa (88-89-90. zk.), Tolosa, 1981.
- EJ68 ARROSAGARAY, J.C.: **California-tik kantuz**, Auspoa (163. zk.), Tolosa, 1983.
- EJ69 BASARRI: **Kezka-giroan**, Auspoa (169. zk.), Tolosa, 1983.
- EJ70 AZKUE, E.M.: **Parnasorako bidea**, Hordago/Lur (Euskal klasikoak), Donostia, 1979.
- EJ71 ETCHEHANDY, M.; PUCHULU, R.: **Jondoni Pauloren gutunak**, Elkar, Donostia, 1983.
- EJ72 ELISSAMBURU, J.B.: **Piarres Adame**; ITURRALDE, P.: **Murtuts eta bertze...**, Elkar, Donostia, 1982.
- EJ75 X.X.: **Escualdun cocinera. Ceinarekin nornahic cocina ona errechki eguin baiteçake**, P.-A. Cluzeau baithaco imprimerian, Bayona, 1864.
- EJ76 AZKARATE, R.: **Galtzaundi ta beste bertso asko**, Auspoa (7. zk.), Tolosa, 1962.

- EJ77 ZAMARRIPA, P.: **Gora begira**, Emeterio Verdes-en irarkolan, Bilbo, 1927.
- EJ78 ZAVALA, A.: **Arrantzaleen bizitza**, Auspoa (133. zk.), Tolosa, 1978.
- EJ79 ZAVALA, A.: **Ustu ezin zan ganbara (Txirritaren zenbait bertso ta gertae-ra)**, Auspoa (126. zk.), Tolosa, 1976.
- EJ80 ETXEBERRI, J.: **Manual devotioenezcoa (Lehen zatia). (Edizio kritikoa P. Altunak paratua**, Euskaltzaindia, (Euskararen lekukoak 3), 1981.
- EJ81 LERTXUNDI, J.M.: **Polli ta Pello. Bi euskaldun bikain da zintzoen kondaira**, 1910.
- EL70 MITXELENA, S.: **Ama-Semeak Arantzazuko kondairan**, E.F.A., Arantzazu, 1951.
